



TOLOSAKO  
UDALA

## **OHIKO OSOKO BILKURA**

**2018.10.30**

Tolosako Udaletxean, 2018ko urriaren 30ean, 20:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 30 de octubre de 2018, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:  
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Patxi Amantegi Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga  
Begoña Tolosa Mendia

Lore Agirre Zipitria  
Onintza Lasa Arteaga  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Igor Ezenarro Balda  
Kristina Pelaez Errazkin  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Cristian Fernandez Susin

Bertaratu ez den zinegotzia:

Ibai Iriarte San Vicente

Idazkaria:  
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:  
Ainhoa Molinos Zubiaurre

### **Eguneko gaia zerrenda**

1. Ondorengo akta onartzea:  
2018ko irailaren 25eko Ohiko Osoko Bilkurakoa.

### **Orden del día**

1. Aprobación de la siguiente acta:  
Sesión ordinaria del 25 de septiembre de 2018.



- |   |   |
|---|---|
| 2. 2018/13 kreditu gehigarriaren hasierako onarpena.  | 2. Aprobación de la modificación de crédito adicional 13/2018.  |
| 3. Diru-laguntzen eranskinaren aldaketaren onarpena.  | 3. Aprobación de la modificación del anexo de subvenciones.   |
| 4. Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko programaren 1. fasearen hasierako onarpena: Enplegu Plana 2018-2020.   | 4. Aprobación inicial de la 1ª Fase del Programa de racionalización de los recursos humanos del Ayuntamiento: Plan de Empleo 2018-2020.   |
| 5. Udaleko Lan hitzarmenaren aldaketa: Musika Eskolako irakasleen zuzendaritzako eta Idazkaritzako ordu lektiboen gehikuntza onartzea.  | 5. Aprobación de la modificación del convenio colectivo del Ayuntamiento: incremento de horas lectivas de profesor en puesto de Dirección y Secretaria de la Escuela de Música.   |
| 6. Onartzea Tolosa eta Charleville. Mézièresen arteko senidetze hitzarmena.   | 6. Aprobación del convenio de hermanamiento de Tolosa y Charleville-Mézières.   |
| 7. 2011ko martxoaren 31n Miguel Muñoa Fundazio Ongile Partikularraren Patronatua, Tolosa F.K eta Tolosako Udalaren artean sinatutako lankidetz hitzarmenaren aldaketa Tolosako Berazubi Estadioa birgaitzeko. | 7. Aprobación de la modificación del convenio de colaboración suscrito el 31 de marzo de 2011 entre el Patronato de la Fundación Benéfico Particular Miguel Muñoa, Tolosa CF y el Ayuntamiento de Tolosa para la rehabilitación del Estadio Berazubi. |
| 8. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko irailaren 1etik 30era. (2018/1.654- 2018/1.863).  | 8. Notificación de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 30 de septiembre de 2018 (2018/1.655-2018/1.863).   |
| 9. Tolosako udalaren adierazpen Instituzionala Euskaltzaindiaren sorreraren 100. urteurrenean.  | 9. Declaración institucional con motivo del Centenario de la creación de Euskaltzaindia.  |
| 10. Galderak eta eskaerak.  | 10. Ruegos y preguntas.   |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

Gai zerrendako 5. puntua, hau da, Udaleko Lan hitzarmenaren aldaketa: Musika Eskolako irakasleen zuzendaritzako eta Idazkaritzako ordu lektiboen gehikuntza onartzea gai zerrendatik kendu da espedientea osatu gabe dagoelako.



**1. Ondorengo akta onartzea:**  
**2018ko irailaren 25eko Ohiko**  
**Osoko Bilkurakoa.**

**1. Aprobación de la siguiente acta:**  
**Sesión ordinaria del 25 de septiembre**  
**de 2018.**

Izenburuan aipatutako akta aho batez **onartu** da.

**2. 2018/13 kreditu gehigarriaren**  
**hasierako onarpena.**

**2. Aprobación de la modificación de**  
**crédito adicional 13/2018.**

Partehartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeko lehendakaria: *“Bigarren eta hirugarren puntuko azalpena lotu egingo ditut. Ogasun batzordean diktaminatu eta plenoak onartzeko ekarri dugun 13. kreditu aldaketa, gehigarri modalitatekoa da. 772.358 eurokoa da eta finantzatuko da erremamentetik. Dauzkagu bi inbertsio, bat, Dirulaguntza erakundeei, 7.358 euroko laguntza Goienetxe Fundazioari kotxe egokitua erosteko oraingoa ondo ez daukatelako. Bigarrena, Zezen plazako eraberritze obretarako 765.000 euro. Aipatu dudan Goyenecheko fundazioari emango zaion diruak diru-laguntzaren eranskina aldatzea eskatzen du, hau da, 3. puntuan onartzeko proposatzen duguna. Hori izanda bi puntuak batera azaltzearen arrazoia.*

-----

**OGASUN BATZORDEAREN 2018KO URRIAREN 24KO IRIZPENA**

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0500.781.01.231.00 2018	Dirulaguntzak erakundeei. G.Zerbitzuak	0,00	7.358,00	7.358,00
1 0700.622.02.920.32 2018	Zezen plazako obrak.	0,00	765.000,00	765.000,00
<b>GUZTIRA</b>		0,00	772.358,00	772.358,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2018	DIRUZAINZA GERAKINA, GASTU OROKORRAK	772.358,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>772.358,00</b>



TOLOSAKO  
UDALA

Hau guztia ikusirik, bozkatu egin da:

- Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
- Patxi Amantegi (EAJ), Jokin Azkueren izenean: aldeko botoa
- Nuria Carbonell (EAJ), Iñigo Alonsoren izenean: Aldeko botoa
- Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
- Kristina Pelaez (EH Bildu), Lore Agirrerren izenean: Aldeko botoa

Beraz, ondorengo diktaminatu da eta proposatzen du:

**Lehena.-** Osoko Bilkurak 13/2018 kreditu aldaketa onartzea.

**Bigarrena.-** 13/2018 kreditu aldaketaren espedientea hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **hasierako onarpena** eman dio 2018/13 kreditu aldaketarako espedienteari.

- 3. Diru-laguntzen eranskinaren aldaketaren onarpena.**      **3. Aprobación de la modificación del anexo de subvenciones.**

### **OGASUN BATZORDEAREN 2018KO URRIAREN 24KO IRIZPENA**

2018ko diru-laguntzen eranskina aldatzeko proposamena aztertu zaie batzordekideei:

Honela geratzen dira aldatzen diren puntuak:

0500.781.01.230.00	G2007096	FUNDACION GOYENECHÉ DE SS	Garraiorako ibilgailuen erosketa	7.358,00	izenduna
--------------------	----------	---------------------------	----------------------------------	----------	----------



TOLOSAKO  
UDALA

Hau guztia ikusirik, bertaratutako guztien aldeko botoarekin, ondorengoa diktaminatu da:

- Begoña Tolosa (EAJ),: Aldeko botoa
- Nuria Carbonell (EAJ), Iñigo Alonsoren izenean: Aldeko botoa
- Patxi Amantegi (EAJ), Jokin Azkueren izenean: Aldeko botoa
- Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
- Kristina Pelaez (EH Bildu): Aldeko botoa
- Lore Agirre (EH Bildu): Aldeko botoa

Beraz, ondorengoa diktaminatu da eta proposatzen du:

**Lehena.-** Osoko Bilkurak 2018ko diru-laguntzaren eranskina aldatzea goran aipatutako aldaketekin.

**Bigarrena.-** 2018ko diru-laguntzaren eranskinaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.

Osoko Bilkurako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 2018ko diru-laguntzen eranskina aldatzea.

- |  |  |
|--|--|
| <p><b>4. <u>Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko programaren 1. fasearen hasierako onarpena: Enplegu Plana 2018-2020.</u></b></p> | <p><b>4. <u>Aprobación inicial de la 1ª Fase del Programa de racionalización de los recursos humanos del Ayuntamiento: Plan de Empleo 2018-2020.</u></b></p> |
|--|--|

Partehartzeak:

- .. Alkatea: *"Bi apunte, bat, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko azaltzen da izenburuan eta Giza baliabideak Arrazionalizatzeko baino, egin ditugun bilera guztietan horrela*



adierazi dugulako, plan hau lanpostuan egonkortzeko prozesu bat da, legeak ematen dizkigun aukerak kontutan edukiz eta prekarietateari aurre egiteko. Baita ere, izenburuan azaltzen den bezala, 1. fasea da. Plana egiterakoan beste behar batzuk azaleratu direlako eta, gutxienez, beste bi faseen beharra aurreikusten delako eta dokumentu bertan jasotzen den bezala, beste bi fase burutzeko konpromisoa hartzen da. Idazkaritzatik prestatuko memoria honetan erreferentzia egiten zaio administrazioak aurre egin behar diola gero eta zerbitzu gehiagori eta hainbat erronka berriei. Esate baterako, administrazio elektronikoaren hedapenari. Baita ere, udaleko organigrama berrikusteko eta berrantolatzeko beharra ere aipatzen da. Horren adibide da udaleko lanpostuen Katalogo orokorra 2004 urtean erredaktatua izan zela. Motzean, plan honen helburu nagusiak hauek dira: alde batetik, aldi baterako lanpostuak eta funtzioak egonkortzea 2017-2018ko Estatuko aurrekontuak arautzen duen legeak ematen dituen aukeraz baliatuz. Gaur egun, dugun lanpostuen zerrendan aldi baterako izaera duten lanpostuen %39ko ingurukoa da. Hainbat egoera kontutan hartzen baditugu, gainera, portzentaia igo egingo litzateke. Adibidez, zerbitzu batzuk etengabeko kontratazioaren bidez egiten dira eta estrukturalak diren zereginak betetzen dira modu horretara. 2010ko Estatutuko Aurrekontu Legeak %8ko mailara jaitea eskatzen du aldi baterako tasen egoera hori eta hiru urteko epea programatzen du Lan Eskaintza Publiko bitartez egoera hori aldatzeko. Beraz, helburu nagusienetako bat da plan honetan da aldi baterakotasunaren tasa jaitea. Bestalde, bigarren helburu nagusi bat izango litzateke premia duten lanpostuak sortzea. Alde batetik, daude legeak ezartzen dituenak eta, legeak ezartzen dituen horietan, hiru lanpostu azaltzen dira. Batetik Diruzainarena, Toki Entitateen arrazionalizazioa eta jasangarritasuna arautzen duten legeak fiskalizazioaren betebeharrak zabaldu eta kontrola handitu egiten ditu. Hortik aparte, beste hainbat egoera ere berriak badira. Esate baterako, Tolosaldea Garatzen Tolosako Udalaren fiskalizazioa eta kontrolaren esparruaren barruan sartuko litzateke. Beste lanpostua da Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Delegatua eta hori gardentasun atalean udalari ezarritako betebeharrei aurre egiteko eta hirugarren lanpostua da Kontratazio arloko Teknikaria Udalaren kontratazio zerbitzua era zentralizatuan emateko. Beste alde batetik, gainera, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko departamentuan epe laburrean aurreikusten diren aldaketei aurre egiteko premia jasotzen da plangintzan. Gainera, enplegatu publikoei dagozkien hainbat zeregin kontratatutako enpresek betetzen dituzte eta hori zuzentzeko ere neurriak hartu behar dira. Jakina da, Udaleko eskumenekoak diren ezinbesteko zerbitzuak emateko neurriak jasotzen dira planean, baita ere amortizatu daitezkeen eta aldatu daitezkeen lanpostuak identifikatzea. Horretaz aparte, daukagu sozietate instrumentalen disoluzioak bideratzeko beharra. Udalari dagozkion hainbat zerbitzuen kudeaketa burutzen dira sozietate hauen bidez eta plan honen bitartez funtzio publikoko izaera duten eginkizunak administrazio publikoak bereganatzen ditu berriz. Erretengibel eta Tolosa Lantzen buruz ari naiz hitz egiten. Bi sozietate hauek desegite eta likidatzeko bidean jarri behar dira, Guzti hau burutu behar da modu orekatuan eta ordenatuan, neurri desberdinak hartu behar dira, faktore guztiak hartu behar dira kontutan, tartean langileen batz besteko adina. Kontutan izan behar dugu hamabost urteren buruan oraingo plantilaren zati handi bat jubilatuko dela eta egoera hori aurreikusi egin behar da hartu behar diren berezko neurriak hartzeko. Bestalde, administrazio elektronikoa eta herritarrei arreta emateko modu berriei sorturiko betebeharrak ditugu aurrean. Beraz, dokumentu honek lanpostuen sorrera, aldaketa eta amortizaziori dagokion plangintza bat da eta neurriak proposatzen ditu



*sailez sail. Sail bakoitzeko planteatzen da sortzen diren plaza edo lanpostu berriak. Hornitu beharrezkoak eta hornitu beharreko horretan egonkortzeko prozesuan sartzen direnak eta, baita kontsolidatzeko prozesuan sartzen direnak eta amortizazioak. Plangintza burutu ahal izateko udal departamentuko arduradunekin bilerak egin dira, baita ere, sail guztiekin burutu dira bilerak eta bilerak bereiztuak, sail bakoitzaren eta baita langile guztiekin batera. Egia esan, ariketa honek aukera eman digu ia-ia langile guztien egoeraren jabe izateko eta hori aukera handia izanda. Batzordean eztabaidatu da plangintza udal talde politiko guztiekin, ekarpenak jasotzeko izan da eta gainera langileak era prozesu parte-hartzaile bat burutu dute lanpostuez gain udalaren antolaketaren inguruko gogoeta bat eginez. Ordezkarri sindikalekin ere negoziazio kolektiboa burutu da eta langile ordezkariekin egindako ekarpenak jaso dira eta kontutan izan dira baita ere plangintza osatzeko garaian. Lan mardula hau aurrera emateko ordu asko eskaini dizkiogu eta gainera, jakinik garrantzizkoa izango dela etorkizunerako herritarrei zerbitzu on bat eskaintzeko. Onarpenerako jarri aurretik eskerrak eman nahi dizkiet, bai langile guztiei parte hartu dutelako bilera askotan, iritziak eta ekarpenak egin dituztelako, langile ordezkariei, Sailetako arduradunei, ordezkari politikoari eta, nola ez, Idazkaritza sailari gai honen lidergoa eman duelako. Berez, proposatzen dena diktamenean da: onartzea bi kontu. Bata da Tolosako udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2018-2020 bitarteko Programaren 1. Fase hori egitea, Enplegu Plana deitu dioguna. Eta bi, onartzea baita ere 2018ko Lanpostuen Zerrenda. Beste alde batetik, anexoan azaltzen den Lan Eskaintza Publikoen egutegia orientatiboa da. Asteleheneretik aurrera hasiko gara langileekin bilera egiten baita ere egutegiaren inguruan. Dokumentuan jasotzen dira baita ere konpromisoak. Konpromisoak hauek dira:*

*Batetik, Lanpostuen funtzioa eta zereginak berraztertzea, oraingo errealitatea eta beharrak kontuan hartuta antzeman dugulako prozesu guzti honetan disfunczioak ere badaudela. Departamentuen ebaluazioa egitea eta organigrama berraztertzea. Hori egiten denean, eta hau dagoeneko datorren legealdian izango denez, badago akordio politikoa. Hori dela eta, sartu dugu dokumentuan lan postuen balorazio prozesu bat gauzatzea kontutan izanik benetako zeregin eta funtzioak. Gaur hartutako akordioa hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, informazio publikoan jarriko da interesatuei hamabost lan-eguneko epea emanaz alegazioa egiteko. Ondoren alegazioak ebatzi eta gero, behin betiko onespina emango zaio."*

- ... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): "Enplegu planaren txostenean jasotzen den bezala, 2010. urtetik, urtez-urte Estatuko Aurrekontu Orokorrak asko mugatu dute sektore publikoko erakundeen lan eskaintzak. Horren ondorioz eta txostena jasotzen den bezala udalaren ekimen faltaren ondorioz, Olatz, zuk zeorrek aipatu duzun bezala, behin-behinekotasuna ia %40an dago. Beraz, ezinbestekoa da egin den lana eta eskertzekoa dudarik gabe enplegu plana osatzen aritu diren guztien lana. Azkenean, txostenaren bitartez lanpostuak egonkortzea du helburu eta hau da txosten honek oinarritzat jartzen duena eta zentzu horretan guk aldeko bozka emango diogu. Hala ere, ezin aipatu gabe utzi, azkenean plan honek zuzenean dudarik gabe langileei eragiten diela eta gure aldetik, behintzat, lasaitasun eta animo mezua helarazi nahi diegu kontziente garelako Udalak arrazoi ezberdinak medio eman duen kudeaketaren ondorioz beraien behin-behinekotasun egoera hori denbora zehar behar baino gehiago luzatu dela eta hori horrela izanda gure ustez Enplegu plan honek egoera guzti horiek konpondu eta behintzat kaltetuak atea ez daitezten bideratu beharko lieke. Zentzu horretan langileak eskatzen dituzten berme





TOLOSAKO  
UDALA

*guzti horiek betez. Azken batean eurak direlako Udalaren eguneroko jardunean dabilzanak eta beraiek gabe ez Udala, ez Tolosa ez litzatekeelako gauza bera izango. Beraz, pixka bat mezua hortik, har dezatela Enplegu Plana beraien lan egoera hobetzeko tresna gisa, lasaitasun eta animoa azterketei begira. Bide batez, aipatu nahi nuke batzordean aipatu zen bezala, bai Musika Eskola zein Euskaltegiaren egoera berezia edo konplikatua izanik lehengo fase honetan Enplegu Planetik kanpo gelditu dira, baino uka ezina da daukagun garrantzia eta urgentzia. Pixkanaka uste dut, bai Euskaltegia zein Musika eskolaren inguruan bere etorkizunaz eta bertako langileen lan egoeraz ere hitz egin behar dugula eta adostasunak bilatu bide berdinetik.”*

... Alkatea: *“Bakarrik zehazteko, Lorek aipatu duen bezala, Musika Eskola eta Euskaltegia Plan honetatik kanpo gelditu dira azterketa sakonago bat behar dutelako eta hori bigarren fase horretan, funtzioak aztertzen diren fase horretan, sartuko dugu. Baita ere, berretsi Lorek esaten zuen hari berdinetik, Udalaren aktibo garrantzitsuena langileak direla eta Enplegu Plan honek ahalbideratuko duela, hori da behintzat asmoa, kalitatezko enplegu publikoa eskaintzea eta egonkortasuna. Hiru OPE ezberdinak izango dira burutuko direnak 2018, 2019 eta 2020. urtean Hemendik aurrera, astelehenik aurrera, adostuko dugu pixkaz bakoitzen deialdia noiz aterako den. baita Udalaren jarduna zainduz eta orekak bilatuz. Nik uste dut plan honek eman digula baita ere aukera etxe honen etorkizunaren diseinua egiteko, langileak, sindikatu, ordezkari politikoekin elkarlanean. Balorean jarri nahiko nuke egin den prozesu guzti hori eta burutu dugun elkarlana. “*

## **TOLOSAKO UDALEKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO 2018-2020 BITARTEKO PROGRAMA/ENPLEGU PLANAREN 1. FASEA: MEMORIA**

### **IRIZPENA**

#### **1. SARRERA**

Administrazio publikoek —horien artean, udalek— aldaketa garrantzitsuak izan dituzte azkeneko urte hauetan. Tolosako Udalaren kasuan, herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak gero eta zabalagoak dira; administrazio elektronikoaren hedapena gauzatzen ari da —besteak beste, baliabideak jartzea herritarrek sarbide elektronikoa izan dezaten udal izapideetara eta orokorrean, informazio publikora—; herritarrei zuzendutako izapideak sistematizatu eta aldatu egin dira, prozesuen gardentasuna eta informazio publikorako sarbidea bermatzeko helburuarekin; udal espedienteak aztertzen, sinplifikatzen eta katalogatzen ari gara udal administrazioko sail guztietan; Udaleko egituren antolakuntza eta arrazionalizazioa ezinbesteko helburu bihurtu dira.... Prozesu hauen barruan, Tolosako Udalak egun duen Giza Baliabideen plantila eta bere ezaugarriei buruzko hausnarketa bat egin ondoren, baliabide horiek antolatu eta egonkortasuna emateko pausoak eman behar dituela ondorioztatu du, beti ere indarreko legeriak ematen dituen tresnak erabiliaz eta hark ezarritako mugak kontuan hartuz. Honetarako, dokumentu honetan Tolosako Udaleko Giza Baliabideak arrazionalizatzeko





TOLOSAKO  
UDALA

eta antolatzeneko Egitasmoaren 1. Fasearen proposamena aurkeztu da. Bertan, hainbat neurri proposatuko dira, baina horren aurretik hainbat argibide eman behar dira.

Programa hau Tolosako Udaleko Giza Baliabideak antolatzeneko Egitasmo Orokorren 1. Fasea besterik ez da. Izan ere, Programaren aurreneko zirriborroaren inguruan aurkeztutako alegazioak erantzuteko idazkian, ondorengo hau agerian jarri zen:

*“...Aurkeztu diren alegazio eta iradokizun anitzetan, Udaleko departamentuak eta organigrama orokorra berrantolatzeneko beharra agertu da. Halaber, hainbat lanposturen funtzioak eta zereginak berraztertzeneko eskaera ugari jaso dira.*

*Eskaera hauek erabat logikoak dira, kontuan hartzen badugu Udaleko Lanpostuen Katalogo orokorra 2004ko abenduan erredaktatu zela, ondorengo aldaketa puntualen kalterik gabe. Hamalau urte hauetan aldaketa ugari izan dira toki-administrazioetan: zerbitzu gehiago eman behar dira, zerbitzuak emateko modu berriak sortu dira, zorroztasuna eta eskakizun berriak indarrean jarri ditu legeria berriak.... Prozesu hau biziki sentitzen ari gara udal langileok azken hilabete hauetan, non abian jarri diren ondorengo proiektuak:*

- *Enplegu-plana bera.*
- *Udaleko Izapideen Eskuliburuaren definizioa eta Sozializazioaren prozesua.*
- *Udal Departamentu bakoitzeko espedienteen definizioa eta sistematizazioa, espedienteen tramitazio elektronikoa ezarri ahal izateko.*
- *Kontratuak arautzen dituen 9/2017 Legearen araberrako egokitzapenak*
- *.....*

*Aipatu beharra dago prozesu hauek ahalegin berezi bat egitea eskatzen dietela udal langileei, eta egindako iradokizunek garbi adierazten dute egoera hori.*

*Beraz, eskakizun horien aurrean ezinbestekoa da hainbat ideia garbi uztea Enplegu Planarekin hasi dugun prozesuari buruz:*

- 1 *Enplegu Plan honek idazki honen hasieran aipaturiko helburu nagusiak ditu, zera, enplegua eta lanpostuak egonkortzeko 2018ko Estatuko aurrekontuko Legeak ematen dizkigun aukerez baliatzea, ezinbestekoak diren lanpostuak sortzea eta berrantolatzeneko premia duten departamentuak definizioa egitea, beti ere legeriak jartzen dizkigun mugak errespetatuz.*
- 2 *Behin Enplegu Plana onartu eta gero, idazkari honen iritziz, ezinbestekoa izango litzateke prozesu bat abian jartzea ondorengo xedeekin:*
  - 2.1 *Lanpostuen funtzioak eta zereginak berraztertzea, oraingo errealitatea eta beharrak kontuan hartuta*



*2.2 Departamentuen ebaluazioa egitea, bakoitzean dauden beharren aurrean irtenbideak proposatuz. Kasu honetan, abiapuntua —departamentuaren diagnostia— departamentu bakoitzak formulatu beharko luke.*

*2.3 Departamentu bakoitzaren eta Udal osoaren antolaketa jasotzen duen organigrama berraztertzea, garai berriekekin bat datorren organigrama finkatuz.*

*3 Lanpostuen, departamentuen eta Udalaren antolaketa zehaztu ondoren, lanpostuen balorazio prozesu bat abian jartzea, zeregin eta funtzioen benetako edukia kontuan hartzen dituen.*

*4 Prozesu hauetan ezinbestekoa izango litzateke interesatu guztien parte-hartzea.*

Prozesu honen guztiaren helburu nagusiak ondoko hauek dira:

- Egun plantilan dauden aldi baterako izendapen eta kontratuen egoera aztertzea, eta enplegua egonkortzeko neurriak aplikatzea, indarreko legeriak ematen dituen bideak landuz.
- Udaleko giza baliabideak ahalik eta era onenean hornitzea eta antolatzea, plantilaren tamaina egokituz, eraginkortasunaren eta efizientziaren printzipioetan oinarrituta.
- Udal departamentuen egitura aztertzea eta egokitzea, Udalak ematen dituen (eta plangintzan aurreikusitako epean eman behar dituen) zerbitzuak oinarritzat hartuta. Horretarako, bereziki kontuan hartu dira Udaleko sektore publiko osoan egin behar diren arrazionalizazio- eta sinplifikazio-prozesuak, administrazio elektronikoak jarri dituen erronkak, herritarren arreta hobetzeko neurriak, eta sortu diren behar berrien aurrean erantzunak, beti ere indarrean dagoen legeriak xedaturiko mugak ahaztu gabe.
- Tolosako langile publikoek jasotzen dituzten ordainsariak berraztertzea eta lanpostu bakoitzarentzat xedaturiko funtzio eta zereginetara egokitzea.
- Tolosako Udaleko enplegu publikoaren kudeaketa antolatzeko eta sistematizatzeko tresna egokia diseinatzea.
- Udalak ematen dituen zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea.

Lehenengo fase honetako helburuak zehatzagoak dira:

1. Aldi baterako lanpostuak eta funtzioak egonkortzeko 2017ko eta 2018ko Estatuko Aurrekontuak arautzen dituzten Legeek ematen dituzten aukerez baliatzea, udal plantila egonkortzeko eta prekarietate-maila gutxitzeko, bereziki kontuan hartuz aurreikusten diren hautaketa-jardunbideetan Tolosako Udaleko lanpostuetan izandako esperientzia.
2. Premia duten lanpostuak sortzea, honako arrazoi hauetan oinarrituta:
  - 2.1. Legeak xedaturiko funtzioak eta zereginak betetzea: diruzaina, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko delegatua, Kontratazio arloko teknikaria.



- 2.2. Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuan epe laburrean aurreikusten diren aldaketa eta gabeziei aurre egitea, beti ere Legeak xedatzen dituen mugak errespetatuz.
- 2.3. Udalaren eskumenekoak diren eta ezinbestekoak diren zerbitzuak ematea: Gizarte Zerbitzuak, Udal Ondarearen Kudeaketa, UDATE, Sustapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Feriak, etab.
3. Hasiera batean amortizatu edota alda daitezkeen lanpostuak identifikatzea.
4. Tolosako Udaleko sektore publikoa berrantolatzea: hainbat sozietate instrumentalen disoluzioa bideratzea; sozietate haietan burutzen diren eta funtzio publikoko izaera duten eginkizunak administrazio publikoak bereganatzea; langileak hautatzeko garaian publizitatea, meritua, gaitasuna eta berdintasunean oinarritutako prozesuak baliozkotzea, eta, azken finean, Tolosako Udalaren sektore publikoa arrazionalizazio eta eraginkortasunean oinarritzea, funtzio publikoak bermatuz. Halaber, amortiza daitezkeen lanpostuak amortizatzea, Udalaren beharretara egokitzeko. Era honetan, plangintza honek Erretengibel SAri eta Tolosa Lantzen SAri eragingo die.
5. Plantilaren malgutasunerako eta mugikortasunerako tresnak sortzea, giza baliabideen optimizazioa eta zereginetikiko egokitasuna bermatzeko, beti ere langileen eskubideak kontuan hartuta: plazen definizio orokorrakoak, barne-sustapeneko jardunbideak, lanpostuen birbanaketa eta langileen berrizendapena, etab. Horretaz gain, sortzen diren singularizatu gabeko plaza berriak ahalik eta era zabalenean definituko dira.
6. Udaleko gainontzeko departamentuetan izan daitezkeen gabeziak eta hutsuneak detektatzea, hasiera batean, Bigarren fasean garatu behar den prozesuaren kalterik gabe.
7. Tolosako Udaleko Lanpostuen Zerrenda egokitzea.

Programa hau diseinatzeko, kontuan hartu dira Tolosako Udala zein bere sektore publikoaren zati bat, hain zuzen, Udalaren berariazko baliabide izaera duten sozietateak (Erretengibel eta Tolosa Lantzen), sozietate hauetan Tolosako Udalari dagozkion funtzio publikoko zereginak betetzen direla egiaztatu ondoren. Egindako azterketaren bitartez egiaztatu da erakunde autonomo eta sozietate hauek Udalari dagozkion zeregin anitzak betetzen dituztela: zerbitzu publikoen kudeaketa, udal espedienteen izapidetzea, udal espedienteetako txostenak, etab. Izan ere, askotan, oso zaila izan da bereiztea non amaitzen den Udalaren zeregina eta non hasten den aipaturiko sozietateena. Arrazoi hauengatik, sektore publikoko ikuspuntu honek programa osoari eragin dio: langileen esperientzia, lanpostuen amortizazioa, lanpostu berrien sorrerari buruzko azterketak eta Programa honek gastu publikoan duena eragina ebaluatzeko garaian, Tolosako Udala, Erretengibel SA eta Tolosa Lantzen SA hartu dira unitate funtzional baten gisa.



TOLOSAKO  
UDALA

Azkenik, azpimarratu behar da prozesu honen elementu nagusienetarikoa Negoziazio Kolektiboa dela. Alde batetik, Programako hainbat gai negoziatzea legezko baldintza delako, baina bestetik, proposatzen den prozesua nekez iritsiko litzateke bere helmugara langileen ordezkarien oposizioarekin edota jarrera pasiboarekin. Hori da, azken finean, proposamen honen atzean lortu nahi den helburua, zera, denon elkarlana batzea, udal administrazio hobea egiteko eta, era berean, herritarrei ematen dizkiegun zerbitzuak gero eta hobeak izan daitezen.

Aurkezturiko Memoriak ondorengo atalak ditu eta espedientean jasota daude:

- I. Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programak: Araubide Juridikoa eta Printzipio Nagusiak.
- II. Tokiko entitateek bere burua antolatzeko duten ahala: Lanpostuen Zerrenda eta Aurrekontu-Plantila.
- III. Tolosako Udaleko giza baliabideen egonkortasunari buruzko diagnostia, orokorra zein Departamentu bakoitzarena.
- IV. Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programaren neurriak
- V. Proposatutako neurrien azterketa juridikoa.
- VI. Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planaren izapidetzea.
- VII. ERANSKINAK
  - o 1. ERANSKINA: 2018ko Lanpostuen Zerrenda.
  - o 2. ERANSKINA: Sortu edo aldatzen diren Lanpostuen funtzioak.
  - o 3. ERANSKINA: 2018-2020 urteetako Lan Eskaintza Publikoen Programazioa eta Hautaketa-prozesuetako programazioa (orientagarria).

## 2. DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA

Orokorrean, ondorengo hauek aztertu dira Plangintza egiteko garaian:

a) Tolosako Udaleko langileen behin-behinekotasunaren tasa.

2018ko urtarrilean Tolosako Udaleko *Lanpostuen Zerrendaren* langileen kopurua eta sailkapena, enplegu publikoa arautzen duen araubide juridikoaren arabera, ondokoa zen:

- *Karrerako funtzionarioak: 76*
- *Bitarteko funtzionarioak: 25*
- *Lan izaerako langile finkoak: 19*
- *Aldi baterako lan izaerako langileak: 45*
- ***Guztira: 165***



TOLOSAKO  
UDALA

Honela, egun dagoen Lanpostuen Zerrenda ikusirik, aldi baterako izaera (bai izendapen batekin, bai lan kontratu baten bidez) duten lanpostuen ehunekoa % 39aren inguruan finkatzen da.

Horretaz gain, adierazi behar da Udal honetan hainbat langilek beren zerbitzuak ematen dituztela, postu edo plaza jakin batekin inolako loturarik gabe, eta lanpostu horiek ez direla azaltzen Lanpostuen Zerrendan. Bestaldetik, zerbitzu batzuk ematen dira langile ezberdinekin (brigadan, bulego teknikoan), etengabeko kontratazioak edo izendapenen bitartez, estrukturalak diren zereginak betetzen. Departamentu bakoitzeko egoera aztertzerakoan aipatuko dira kasu hauek. Egoera hauek kontuan hartzen baditugu, aldibaterakotasunaren tasa lehen aipatu dena baino handiagoa da.

b) Langileen batez besteko adina.

Aurreko atalean izan diren zailtasunak kontuan hartuta, langileen adina gero eta handiagoa da; esate baterako, batez besteko adina, ia 52 urtekoa (51,77 urte) da Tolosako Udalean. Honek esan nahi du 10-15 urteren buruan oraingo plantilaren zati handi bat jubilatuko dela eta Udalak aldaketa nabarmena jasango duela bere Giza Baliabideei dagokienez. Horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditu Udalak, oraintxe bertan hasita.

c) Administrazio elektronikoa eta herritarrei arreta emateko modu berriek sorturiko betebeharrak.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkidea arautzen duenak, 2018ko urriaren 2tik eragin osoa izan behar zuen Udaleko administrazio zerbitzuetan, batez ere UDATEn. Izan ere, aipatu datatik aurrera indarrean sartu behar ziren Lege honek xedatzen dituen, besteak beste, Erregistro Elektronikoa elkar-eragingarria, Ahalordetzeen eta Gaitutako Funtzionarioen Erregistroak, administrazioen sarbiderako puntu bakarra eta artxibo elektronikoa bakarra. Abuztuaren 31ko 11/2018 Errege-Dekretu Legeak bi urtez atzeratu ditu 39/2015 Legearen xedapenak gai hauetan (ahalordetzeen erregistroa, gaitutako funtzionarioen erregistroa, erregistro elektronikoa, administrazioaren sarbide puntu bakarra, artxibo elektronikoa), eta indarrean sartuko dira 2020ko urriaren 2an. Hala ere, kontuan hartu behar da Tolosako Udalak aldaketa handiak burutu beharko dituela —administrazio guztiek bezala— zerbitzu hauek modu egokian emateko.

Era honetan, UDATE bihurtu beharko da herritarren eta Udalaren arteko harremanetako eremu nagusi, informazioa bideratzeari eta eskaeren izapidetzeari dagokienez: herritarrek behar duten informazio nagusia (ez teknikoa) UDATE zerbitzuaren eskutik jaso behar dute, Udaleko Izapideen Eskuliburua informazio horren oinarria izanik; beraien eskaerak, iradokizunak, ekarpenak... bideratzeko gunea izan behar du, ahalik eta erraztasun handiena emanez. Horrek eskatzen du, aurrerago ikusiko dugun moduan, berrantolaketa prozesu handi bat, non ezinbesteko elementuak izango diren giza baliabideen



TOLOSAKO  
UDALA

prestakuntza, formazioa eta, gure kasuan, gehikuntza. Halaber, beste Departamentuetan burutzen diren hainbat zeregin UDATEn beteko dira (izapideei buruzko informazioa, ordainagirien ordainketa, berehalako izapideak, etab.), eta horrek, kontratazioko espedienteen izapidetze zentralizatuarekin batera, erraztu beharko luke bidean dagoen eraldaketa.

d) Udalari dagozkion hainbat zerbitzuren kudeaketa sozietate publikoek egiten dute.

Azken urte hauetan, Tolosako Udalak % 100 kapital publikoz osaturiko sozietateen esku jarri du bere eskumeneko hainbat zerbitzuren kudeaketa, horien artean hirigintzako jardunbideekin loturiko ondorengo zerbitzuak: Eraikinen Ikuskapen Teknikoari buruzko txostenak, Tolosako Alde Zaharreko baimen urbanistikoei buruzko txostenak, eremu horretan garatzen diren jardueri buruzko txostenak... Erretengibel Sozietateko pertsonalak burutzen du, halaber, espediente administratiboen izapidetzea. Bestaldetik, sozietateko kudeatzailea Udaleko lanpostu bat hornitzen ari da *izendapen askeko* jardunbide baten ondorioz, eta egoera horren aurrean irtenbideak eman behar dira.

Tolosa Lantzen SA, bere aldetik, Udaleko kirol instalazioen kudeaketaz arduratzen da, izaera pribatuko kontratu baten bitartez. Halaber, hainbat inbertsio burutu ditu Udaleko azpiegituretan edota erabilera publikoko kirol instalazioetan.

Bi sozietate hauek, azkeneko urte hauetan, emaitza negatiboa izan dute beren kontuetan, eta horren ondorioz, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, (27/2013 Legeak, Toki Entitateen Arrazionalizazioa eta Jasangarritasuna arautzen dituenak aldatuta), bere Bederatzigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, desegiteko eta likidatzeko bidean jarri behar dira datozen urteetan. Prozesu hau era ordenatuan eta faktore guztiak kontuan hartuta burutu behar da.

e) Izendapen askea enplegu publikoko sarbide gisa aurreikusten da hainbat lanpostutan, Lanpostuen Zerrendan.

g) Langileen erregimen juridiko ezberdinen desdoikuntza: funtzionarioak eta lan itunpeko pertsonala. Lanposturik gabeko langileak.

Egiaztatu da funtzionarioentzako gordeta dauden hainbat lanpostu lan harremanetako pertsonalak hornitzen dituela aldi baterako; baita alderantzizko kasuak ere. Horregatik, disfuntzio hauen inguruan hausnarketa bat egitea ere proposatzen da oro har plantila osoan, beharrezkoak diren neurriak har ditzan Udal honek. Halaber, lan-kontratudun hainbat langilek Udaleko zeregin estrukturalak betetzen ditu azken urte hauetan, baino lanposturik ez dago sortuta Lanpostuen Zerrendan.





TOLOSAKO  
UDALA

h) Zerbitzu eta eginkizun berriak betetzeko beharra eta premia.

Hemen hiru ildo nagusi daude:

- Batetik, indarrean sartu den 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratazioa arautzen duena, bete ahal izateko, ezinbestekoa da Udalaren kontratazioko zerbitzua era zentralizatuan ematea, eta horrekin batera, egitura bateratua, egonkorra eta finkoa sortzea. Modu honetan, Udala eta bere sektore publikoaren kontratazioko jardunbideen egokitasuna bermatuko da, ondoko helburu hauekin: kontratazioen izapidetzea ahalik eta era eraginkorrean eta azkarrenean ematea, kontratazio jardunbideen segurtasun juridikoa bermatzea, udal administrazioan eta bere sektore publiko osoan irizpide sendo eta koherenteak txertatzea, eta kontratazioko zerbitzuarekin loturiko baliabideak arrazionalizatzea eta aurreztea, orain dagoen dispertsioari amaiera emanaz. Sektore publikoko kontratazioaren arloan, halaber, ezinbestekoa da kontratu bakoitzaren azterketa ekonomikoa gauzatea, dagokion espedientean sartua izan dadin, emakida administratiboan bideragarritasuna eta oreka aztertzea, eta kontratu guztien jarraipena egitea.

- Bestetik, gardentasunaren atalean, indarrean dagoen legediak (batez ere 19/2013 Legea, Gardentasuna, Informazio Publikoa eta Gobernu Ona arautzen duena, eta 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa) udalei ezarri dizkie betebeharrak batzuk oso zehatzak, hainbat gairi buruzko azalpenak (kontratazio administratiboa oro har, aurrekontua, diru-laguntzak, arauak, organigrama, etab...) argitara ditzaten; honekin batera, Udalak sustatzen dituen parte-hartze prozesuak diseinatu, gauzatu, eta bermatu ahal izateko, baliabideak behar dira. Ez dezagun ahaztu herritarren parte-hartzea, legeriak aurreikusitako modu guztietan, ez dela bakarrik aukerazko zeregin bat, betebeharrak batzuk. Honen adierazleak dira 39/2015 Legeak, Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, bere 133. artikuluan xedaturikoa, arauak idatzi aurretiazko kontsultei buruz, edota 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak xedaturiko parte-hartze prozesuak udal aurrekontuak onartzeko jardunbidean. Beraz, Udalak dituen betebeharrak betetzeko Parte-hartze eta Gardentasunaren arloetan, egitura finko bat diseinatu behar da, Udaleko departamentuek ezin dutelako bere gain hartu zerbitzu hauen ardura zuzena. Bestaldetik, 2016/679/EBk onarturiko Erregelamenduak, apirilaren 27koak, Pertsona Fisikoen Datu Pertso readjudicará nalen Tratamendua eta Zirkulazio Askea arautzen duenak, Datuak Babesteko Delegatua izateko betebeharrak xedatzen du tratamenduko arduradun guztientzat. Plangintza honetan proposatzen da departamentu berri bat sortzea eginkizun hauekin.



- Fiskalizazio eta kontrol ekonomikoari dagokienez, indarrean sartu zen 27/2013 Legeak, Toki Entitateen Arrazionalizazio eta Jasangarritasuna arautzen dituenak, bere xedapenetan areagotu eta zehaztu egin zituen funtzio horiek. Halaber, 128/2018 Dekretuak, gaitasun nazionalako funtzionarioen araubidea arautzen duenak, kontrolaren eta fiskalizazioaren betebeharrak zabaldu ditu. Azkenik, 424/2017 Errege Dekretuak, apirilaren 28koak, Tokiko Sektore Publikoko Entitateen Barne-Kontrolaren araubide juridikoa arautzen duenak, kontrolaren eskakizunak are gehiago handitu ditu. Era honetan, ezinbestekoa da aztertzea ze baliabide behar diren eskakizun horiei aurre egiteko, eta araudiak xedaturikoa betetzeko. Azpimarratu behar da, Tolosako Udaleko sektore publikoko arrazionalizazio prozesuaren ondorioz, hainbat sozietate publiko desagertuko liratekeela, baina aipatu den araudian xedaturikoa kontuan hartuz, Tolosaldea Garatzen sartuko litzateke Udal honen fiskalizazio eta kontrolaren esparruaren barruan, aurretiazko fiskalizazioa eta kontuen kontrola barne.

i) Hainbat departamentu berrantolatu beharra.

Dokumentu honetan aipatu diren administrazio-prozedurari buruzko arau berriek ezinbestez eskatzen dute departamentuen funtzionamenduan aldaketak egitea, bai lan egiteko moduan, bai giza baliabideen antolaketan. Hauei gehitu behar zaizkie datozen urteetan aurreikusten diren langileen erretiroek (aurreratuak ere kontuan hartu behar dira) sortuko dituzten beharrak. Udalak prest egon beharko du behar hauei modu egoki batean erantzuteko eta egun dauden funtzionarioen ezagutzak datozen belaunaldiei transmititzeko baliabideak jartzeko. Azkenik, ezinbesteko helburuak dira oraingo langileen prestakuntza bermatzea eta sartzan diren langile berrien formazioa sustatzea.

Ezin da ahaztu, era berean, Udalak garatu dituen zerbitzu berriei erantzuteko, udal langileen plantila handitu behar dela, zerbitzu horiek modu egokian emateko, indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen mugak ahaztu gabe.

j) Lanpostuen Zerrendan, sailkapen bikoitzeko lanpostuak banan-banan aztertu behar dira, Lanpostuen Zerrendari ziurtasun juridikoa emateko.

k) Kontrataturako enpresek betetzen dituzte enplegatu publikoei dagozkien hainbat zeregin.

Egoerak aztertu ondoren, kontuan hartu behar da 20/2012 Errege-Dekretu Legearen 1. Xedapen Gehigarrian xedaturikoa, non Sektore Publikoko erakundeak behartzen diren arlo honetan neurriak har ditzaten: *sektore publikokoak diren erakundeek, organismoek*



*eta entitateek beharrezko jarraibideak emango dituzte, norik bere esparruan, kontratatu dituzten kanpoko zerbitzuak zuzen egin ditzaten; horrela bada, Administrazioari kudeatzaileen eta kontratutako enpresako langileen arteko harremana argi eta garbi zehaztuta gelditu beharko da, eta, gainera, lan-harremana dagoela onartzea eragin dezaketen ekintzak ere saihestuko dira, betiere, sektore publikoaren kontratu-legeriak kontratatuzko organoari kontratuak gauzatzeko onartzen dizkion ahalmenak baztertu gabe. Xede horrekin, erakunde, organismo eta entitate horiek 2012ko abenduaren 31 baino lehen emango dituzte beharrezko jarraibideak lan-harremana dagoela onartzea eragin dezaketen jarduerak saihesteko*

l) Eskualde mailako erakundeek ematen dituzten udal eskumeneko zerbitzuei buruzko irizpideak argitu beharra.

Tolosaldea eskualdeko udalerrien konfigurazioak eraginda, udal eskumeneko hainbat zerbitzu eskualde mailako erakundeen esku jarri dira: sustapen ekonomikoa, turismoa, nekazaritza-garapenarekin loturiko hainbat zerbitzu, etab. Hala ere, kasu batzuetan erakunde horiek ematen dituzten zerbitzuak ez daude lotuta beren xedearekin, edo gaintzen dute Udal honek emandako ahalmenaren esparru materiala. Halaber, Tolosako Udalak bere baliabide propioekin ematen ditu hainbat zerbitzu, berez eskualde izaerako erakundeen esku egon beharko luketenak. Arrazoi horiengatik zerbitzu hauen azterketa egin beharko litzateke, eta horien inguruko irizpideak finkatu, bikoiztasunak saihestearren. Hau guztia 7/1985ko Legeak, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoak, bere 7., 25. eta 85. eta hurrengo artikuluetan xedaturikoa, eta 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 102. artikuluan xedaturikoa kontuan hartuta. Lan horrek gaintzen du Plangintza honen esparrua, baina paraleloki, era ordenatuan, burutu beharko litzateke.

### **3. GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMAREN 1. FASEAN AURREIKUSITAKO NEURRIAK**

Diagnostiko orokorra eta departamentuz departamentukoa egin ondoren, lehenengo ondorioak hauek dira:

- Udal honek mantendu edota hobetu nahi baditu ematen dituen zerbitzuak, oso zaila du lanpostuak amortizatzea edota ematen diren lan izaerako zerbitzuak gutxitzea. Hala ere, ahalegin berezi bat egin da departamentuz departamentu, lanpostu berrien sorrerak dituen mugak kontuan hartuz.
- Bigarren ondorioa: 2001etik, 2005etik, 2009tik..... lanean diharduten langile batzuek emandako zerbitzuak aztertuz gero, iraupen hori duten enpleguek izaera estrukturala eta iraunkorra dutela adierazten dute.



- Hirugarren ondorioa: aipatu diren urteetatik (gehienez 2014ko abenduaren 31tik, gero ikusiko dugun moduan) orain arte lanean diharduten langileentzako **enplegua kontsolidatzeko edo egonkortzeko prozesuak** diseinatu behar dira.

Horretarako, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa hau tresna egokia da. Honen bitartez, ondoko helburu hauek bete nahi dira:

- Udalaren eskumenekoak eta Udalak nahitaez eman beharrekoak diren zerbitzuak ematen direla bermatzea, gastu publikoaren arrazionalizazioaren esparruaren barruan.
- Udal zerbitzuen katalogoa oinarri bezala hartuta, departamentu bakoitzak eman behar dituen zerbitzuak, bakarka edo partekatuak, definitu behar direla ikusirik, une honetan ematen direnak eta legez eman beharrekoak abiapuntutzat hartzea, enpleguaren beharrak oinarritzeko.
- Udaleko departamentu ezberdinetan egiten diren lan estruktural eta iraunkorrak bereiztea lan koiunturaletatik.
- Udalak duen langileen aldi baterako tasa jaistea eta aldi baterako lan kontratuen zein bitarteko funtzionarioen izendapenen erregularizazioa egitea, 2018ko Estatuko Aurrekontu Legeak xedaturiko mailaraino (% 8), hiru urteko epean programaturiko Lan Eskaintza Publikoen bitartez.
- Lege xedapen berrietara egokitzea eta baliabide pertsonalak zein materialak prestatzea herritarrei zerbitzu telematikoak eskaini ahal izateko.
- Udalaren antolaketa eredia finkatzea, zerbitzuak emateko erak definituz: baliabide propioekin, kanpoko baliabideen kontratazioa erabiliz...
- Langilearen garapen profesionala sustatzea, mugikortasuna, formazioa, barne promozioa eta antzeko neurriak hartuz.

Lanpostuen sorrera, aldaketa eta amortizazioari dagokienez, Plangintza honen bitartez ondoko neurriak hartzea proposatzen da, departamentu bakoitzean:

### **1.- GARAPEN EKONOMIKOA, TURISMOA, MERKATARITZA, AZOKAK ETA ENPLEGUAREN SUSTAPENA.**

Garapen Ekonomikoa eta Enplegua, eta Turismo eta Azokak bat egitea proposatzen da Departamentu bakar bat osatuz. Departamentu honek arduradun lanpostua izango luke, Goi Mailako teknikaria. Honek ekarriko luke 1. kapituluko gastua gehitzea, baina kontuan hartu behar da 2. kapituluko gastua jaitsiko litzatekeela, dirua aurreztuz, eta homogeneotasun terminoak hautsi direla kasu honetan, zerbitzua kudeatzeko era aldatzen delako.

Horretaz gain, Departamentuan hutsik dagoen administrariaren lanpostua behin betikoz hornituko da Plangintza honek aurreikusitako epealdian, 6/2018 Legeak, Estatuko Aurrekontuak arautzen duenak, bere 19.9 artikuluan xedatutakoaren arabera.



<b>GARAPEN EKONOMIKOA, ENPLEGUA, TURISMOA, MERKATARITZA ETA AZOKAK</b>				
<b>Plaza berria</b>	<b>Taldea</b>	<b>Urteko ordainsariak</b>	<b>Hornitzeko era</b>	<b>Gastu berria</b>
Departamentuko arduraduna	A1	42.751,94	Oposizio-Lehiaketa	<b>BAI</b> (2. kapituluarekin konpentsatuta)
Administraria (Lanpostuen Zerrendan bitarteko izaeraz)	C1	29.937,02	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua Egonkortzeko Tasa Gehigarria)	EZ

## 2.- EUSKARA ETA HEZKUNTZA/EUSKALTEGIA

Euskara eta Hezkuntza Departamentuko arduradunaren lanpostua behin betikoz hornitzeko hautaketa-jardunbidea garatuko da Programa honen indarraldiaren barruan. Ez du ekarriko inolako aldaketarik aurrekontuan. Horretaz gain, udalbatza plenoak onartutako funtzioen artean, Udal Euskaltegiko aurrekontua prestatzea eta horren jarraipena egitea dagozkie lanpostu honi.

Euskaltegiko pertsonalari buruzko neurriak Egitasmo honen 2. fasea garatu ondoren ebatziko dira, zerbitzuaren beharrak eta euskaltegiko antolakuntza ebazten direnean.

<b>EUSKARA ETA HEZKUNTZA</b>				
<b>Lanpostua</b>	<b>Taldea</b>	<b>Urteko ordainsariak</b>	<b>Hornitzeko era</b>	<b>Gastu berria</b>
Departamentuko arduraduna	A1	45.311,14	Oposizio-Lehiaketa	EZ



### 3.- GIZARTE ZERBITZUAK

Dokumentu honen aurrekarietan adierazi denaren arabera, eta Departamentuko azterketa sakonago baten kalterik gabe, urteetan zehar lanean diharduen pertsonalaren enplegua kontsolidatzeko neurriak hartu behar dira. Izan ere, pertsonal honek betetzen du EPOEren Laugarren Xedapen Iragankorrean araututakoa:

#### ***Laugarren xedapen iragankorra. Aldi baterako enplegua finko bihurtzea.***

*1. Herri Administrazioek enplegua finko bihurtzeko deialdiak egin ahal izango dituzte, beren kidego, eskala edo kategoriei dagozkien lanpostu edo plaza estrukturalak betetzeko, baldin eta beren aurrekontu zuzkidura badute, eta, 2005eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik, bitarteko edo aldi baterako langileek betetakoak badira.*

*2. Hautaketa-prozesuetan ondo bermatuko da berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioak beteko direla.*

*3. Hautaketa-probetako edukiak zerikusia izan behar du deialdiaren xede diren lanpostuetako ohiko prozedurekin, eginkizunekin eta atazekin. Lehiaketa-fasean, beste merezimenduekin batera, Herri Administrazioetan zerbitzuan emandako denbora eta deialdiaren xede diren lanpostuetan izandako esperientzia balioetsi ahal izango dira.*

*Estatutu honen 61. artikuluko 1. eta 3. paragrafoetan ezarritakoaren arabera garatu behar dira hautaketa prozesuak:*

1. Hautaketa-jardunbideak irekiak izango dira eta lehia askea bermatuko dute, diskriminazio positiboko neurrien kalterik gabe.
2. Merituen balorazioak proportzionatua izan behar du, jardunbidearen emaitza erabaki gabe.

Bestaldetik, 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, Gizarteratze Zerbitzua Lehen mailako Arretako Gizarte Zerbitzu gisa sailkatzen du bere 22. artikuluan: 1.5.- *Gizarte-zerbitzuen eremuan partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua.* Lege honen 42.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, Gizarteratze Zerbitzua, lehen mailako arretako zerbitzua denez, udal eskumenekoa da. Zerbitzu honekin loturiko zereginek izaera estrukturala dute eta pertsonal propioarekin hornitu behar dira, kasu askotan funtzio publikoen erabilera eskatzen dutelako. Arrazoi horregatik, ezinbestekoa da lanpostu berria sortzea, gastu hau 2. Kapitulutik 1. Kapitulura lekuz aldatuz.





GIZARTE ZERBITZUAK					
Lanpostu berria (Kontsolidatzeko)	Kopurua	Taldea	Urteko ordainsariak	Hornitzeko era	Gastu berria
Gizarte langileak	2	A2	35.562,52	Oposizio- Lehiaketa (Enplegua Kontsolidatzeko Tasa Gehigarria)	EZ
Administraria	2	C1	29.937,02	Oposizio- Lehiaketa (Enplegua Kontsolidatzeko Tasa Gehigarria)	EZ
Gizarte langilea	1	A2	35.562,52	Oposizio- Lehiaketa	<b>BAI</b> (2. kapitularekin kompentsatuta)
Ondoren, Lanpostuen Zerrendan era finkoan agertzen den eta hutsik dagoen lanpostua aipatzen da, kontsolidatze-jardunbidean sartzea proposatzen delako.					
LZerrendan dagoen lanpostua	Kopurua	Taldea	Urteko ordainsariak	Hornitzeko era	Gastu berria
Gizarte langilea	1	A2	35.562,52	Oposizio- Lehiaketa (Enplegua Kontsolidatzeko Tasa Gehigarria)	EZ

#### 4.- HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA

Departamentu honetan ondorengo neurriak hartzea proposatzen da:

##### 1.- Lanpostuak amortizatzea



- Erretengibel sozietateko gerentea, arkitektoa eta administrariaren lanpostuak amortizatu behar dira sozietatean.
- Zerbitzuetako arduradunaren lanpostua (C1 taldekoa) hornitzen duen langileak datorren urtean hartuko du erretiroa. Programa honek aurreikusten du une horretan aipatu lanpostua amortizatzea, eta Obra Publikoetako ingeniariaren lanpostua sortzea, A2 taldekoa, Udalak sustaturiko obrak diseinatzeko, Udalaren obra publikoen exekuzioa zuzentzeko, eta Udalak gauzatzen dituen obra eta zerbitzuen kontratuen jarraipena egiteko.
- Hirigintza Letraduaren lanpostua amortizatuko da eta, bere orde, Administrazio Orokorreko teknikariaren lanpostua sortuko da, ondoko funtzio nagusiekin: espedienteak informatzea eta ebazpen proposamenak eta irizpenak formulatzea; aholkularitza juridikoa gauzatzea; espedienteen osaketari buruzko irizpideak proposatzea eta adostea Udaleko gainontzeko zerbitzuekin, beharrezkoa izango balitz; Departamentuko administrarien lana koordinatzea eta zuzentzea; espedienteak behar bezala izapidetzen direla egiaztatzea eta beharrezkoak diren argibide eta irizpideak ematea; kontratazio espedienteetarako proposamenak formulatzea eta Departamentuko gainontzeko teknikariei argibideak ematea kontratazio-proposamenak era egokian formula ditzaten, etab.
- Hirigintza Departamentuko administrariburuaren lanpostua amortizatuko da, eta, bere orde, Departamentuko administraria-Artxiboko arduradunaren lanpostua sortuko litzateke, C1 taldeari atxikituta. Lanpostuaren behin-behineko balorazioak kontuan hartuko du funtzioen aldaketa, administrariaren buruzagitza Administrazio Orokorreko teknikariari emango zaiola ikusirik.

## **2.- Udaleko sektore publikoa berrantolatzea eta enpresa ondorengotza bermatzea**

- Aurrekarietan aipatu den bezala, Erretengibel sozietateko langileak lan kontratudun finkoak dira, eta bere garaian hautatuak izan ziren berdintasun, meritu eta gaitasunari buruzko printzipioak bermatuz, lehia bermatu zuten jardunbide publikoen bitartez. Horretaz gain, langile hauek Udalari dagozkion funtzio publikoak betetzen dituzte, agerian jarri den moduan.
- Arrazoi hauek kontuan hartuta, funtsean, ez litzateke inolako kontraesanik egongo enpresa ondorengotza arautzen duen 2/2015 Errege Dekretu Legegilearen (Langileen Estatutuaren) 44. artikuluan araututakoaren eta enplegu publikorako sarbidea arautzen duten EPOEren 55. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren artean. Kasu honetan, bi egoera bat datoz: alde batetik, Tolosako Udalaren ondorengotza, Erretengibel sozietatearen desegite-prozesua amaitzeko baldintzarekin, eta bestetik, enplegu publikora sartzeko baldintza guztiak bete dituen pertsonalaren lekualdaketa Udaleko lanpostuetara, sozietateko lanpostuak amortizatu ondoren.



- Beraz, ondorengo neurri hauek hartzea proposatzen da, Erretengibel sozietatean hiru lanpostu hauek amortizatu ondoren:
  - Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuan 2. arkitekto lanpostua sortzea, lan kontratupekoa, Erretengibelen betetzen zituen oinarritzko funtzioekin, Departamentuan burutuko diren doikuntza edo zuzenketen kalterik gabe, zerbitzuen emakida hobetzeko.
  - Erretengibel sozietateko administraria atxikitzea, lan kontratupeko langile gisa, hutsik geldituko den Hirigintza, Obra eta Zerbitzu eta Ingurumen Departamentuko administrari-Artxiboko arduradun lanpostuari. Administrari honek, bere lansaioaren zati batean, UDATEn emango lituzke bere zerbitzuak, Tolosako Hirigune Historikoarekin loturiko eskaerak bideratuz.
  - Ondoren, beharrezkoak diren funtzionarizazio-jardunbideak garatzea, 6/1989 Legeak, Euskal funtzio Publikoa arautzen duenak, bere Seigarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoaren arabera:
- Aurreikusitako neurri hauekin, Udalak eta bere sektore publikoak aurreztuko lituzkete amortizatutako lanpostuen ordainsariak. Era honetan, Tolosako Udaleko sektore publikoa berrantolatuko litzateke, dagoen egoera irregularra konponduz, eraginkortasuneko printzipioan oinarrituta, berariazko baliabideak erabiliz.

### 3.- Lanpostu berriak sortzea

- Hirigintza Departamentuan Administrazio Orokorreko teknikariaren lanpostu berriak ez luke inolako gastu gehigarririk ekarriko. Halaber, dedikazioarengatik osagarririk ez luke izango.
- Udal aparejadorearen lanpostu berria sortu behar da, baina honek ere ez du gastu gehiago sortuko. Izan ere, azkeneko urte hauetan etengabe kontratatu edo izendatu dira arkitekto teknikoak Udalean edo Erretengibelen, eta horrek adierazten du bigarren lanpostuaren behar estrukturala.
- Obra Publikoen ingeniariaren lanpostu berriak, A2 taldekoak, ekarriko lukeen gastu berria C1 eta A2 erdi mailako teknikariaren arteko diferentzia izango litzateke. Kontuan hartu behar da C1 taldean sailkaturiko lanpostuak dedikazioarengatik osagarria duela eta A2 taldekoak ez.

### 4.- Hainbat lanposturen funtzio eta zereginak aldatzea

- Departamentu honetan ematen ari den berrantolaketa prozesua ikusita, plangintza honetan egiten diren proposamenak Departamentuko lanpostuen behin betiko funtzio eta zereginekin baldintzaturik daude. Hala ere, hainbat arazok berehalako erantzuna behar dute, eta horiek aztertuko dira dokumentu honetan.
- 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duenak, URTEKO KONTRATUEN PLANGINTZA egiteko betebeharra xedatzen du, sektore



- publikoko entitate bakoitzean. Beraz, 2019ko Plangintza landu eta gauzatu ahal izateko, sail honi dagozkion kontratuen plangintza gauzatu behar da, eta zeregin hori lanpostu bati atxikitu behar zaio.
- Bestaldetik, egindako plangintzaren jarraipena ere burutu behar da.
  - Zeregin hauek Obra eta Zerbitzuetako saileko ingeniari teknikoko lanpostuari atxikituko zaizkio, aldi baterako izaeraz, eta Departamentuko behin betiko estruktura ebatzi arte. Era honetan, ondoko funtzio eta zereginak beteko lituzke:
    - Saileko kontratazioen programazioa.
    - Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko arduradunak ematen dizkion obren proiektuak.
    - Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko arduradunak ematen dizkion obren jarraipena.
    - Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko arduradunak ematen dizkion kontratuen jarraipena.
  - Zeregin hauek *Aldi baterako funtzioen esleipenaren* bitartez beteko lirateke, eta horiengatik ordainsarien osagarri bat jasoko luke, esleipenak irauten duen bitartean. Osagarri honek 6/2018 Legeak, Estatuko Aurrekontuak onartzen dituenak, bere 18. Siete atalean xedaturikoaren arabera finkatzen da, eta arrazoi honengatik ez du konputatuko homogeneotasunezko helburuetarako. Osagarria kalkulatzeko ondoko irizpidea hartu da kontuan: goi mailako ingeniaria eta ingeniari teknikoaren arteko diferentziaren % 50 gehitzea proposatzen da, beti ere, aurretiaz aipatu diren funtzioak betetzen diren bitartean.
  - Halaber, Ingurumen eta Landa Eremuko teknikariaren lanpostuaren funtzio eta zereginak berraztertu eta zehaztu behar dira, gainontzeko lanpostuenak bezala, Departamentuko lanpostu guztien zereginak argitzeko, eta denen arteko koordinazioa hobetzeko.
  - Berrantolaketa prozesuan, ondoko behar hauek kontuan hartu beharko dira
    - Saileko kontratazioen proposamenak.
    - Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko arduradunak ematen dizkion obren proiektuak.
    - Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko arduradunak ematen dizkion obren jarraipena.
    - Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko arduradunak ematen dizkion kontratuen jarraipena.
  - Garbiketako pertsonala Lantaldeko pertsonal gisa sailkatuko da Lanpostuen Zerrendan, gaur egun duen talde eta kategoria berarekin.



### 5.- Administrari lanpostu bat Idazkaritza Departamentuko Kontratazio Unitateari berraxikitzea

Dokumentu honen diagnosian, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko zeregin administratiboak berrantolatzeke beharra azaldu da, batez ere Kontratazioko espedienteen tramitazioaren zentralizazioaren ondorioz.

Prozesu honen barruan proposatzen da administrari baten lanpostua Idazkaritza Departamentuko Kontratazioko Unitateari berraxikitzea, titularraren erretiroa eman ondoren, 2019ko abuztuan. Aldaketa honek ez du inolako gastu berririk ekarriko.

### 6.- Izaera estrukturaleko enplegua egonkortzea

Departamentuan hutsik dauden ondorengo lanpostuak behin betikoz hornituko dira Plangintza honek aurreikusitako epealdian, 6/2018 Legeak, Estatuko Aurrekontuak arautzen duenak, bere 19.9 artikuluan xedatutakoaren arabera:

- Ingeniari teknikoa
- Ingurumeneko teknikaria
- Ikuskatzaile-Delineatzailea
- Bi peoi

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA/ERRETENGIBEL					
Amortizazioak					
Amortizatzeke	Kopurua	Taldea	Urteko ordainsariak		AURREZKIA
Erretengibel-kudeatzailea	1	A1	51.102,71		51.102,71
Erretengibel-administraria	1	C1	29.573,68		29.573,68
Erretengibel-arkitektoa	1	A1	43.583,22		43.583,22
Zerbitzuetako arduraduna(2019)	1	C1	39.531,37		39.531,37
Hirigintzako letradua	1	A1	50.348,71		50.348,71
Hirigintzako administrariburua	1	C1	34.230,68		34.230,68



<b>HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA</b>				
<b>Plaza berriak</b>				
<b>Berria</b>	<b>Taldea</b>	<b>Urteko Ordainsariak</b>	<b>Hornitzeko Era</b>	<b>Gastu berria</b>
Arkitektoa (Erretengibeletik)	A1	49.497,7	Sektore publikoko berrantolaketa/Funtzio narizazioa	BAI ->+ 5.914,48 (Erretengibeletik amortizazioarekin konpentsazioa eginda)
Administraria (Erretengibeletik)	C1	32.083,85	Sektore publikoko berrantolaketa/Funtzio narizazioa	EZ (Aurrezkia: - 2.146,83 €)
AOT	A1	43.721,3	Oposizio-Lehiaketa	BAI
Obra Publikoetako ingeniari teknikoa	A2	38.054,24	Oposizio-Lehiaketa	EZ-> -1.477,13 (Aurrezkia:bi lanpostuen arteko diferentzia)
Aparejadorea	A2	42.992,74	Oposizio-Lehiaketa	EZ (azken 4 urteetan aurrekontu-doikuntzarekin)
Lantaldeko peoiak (4)	E	(1) 25.074,70 (2) 100.298,8	Oposizio-Lehiaketa	EZ





<b>HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA</b>				
<b>Hornitu beharreko plazak, Plantillan daudenak</b>				
<b>Plaza/Lanpostua</b>	<b>Taldea</b>	<b>Urteko ordainsariak</b>	<b>Hornitzeko era</b>	<b>Gastu berria</b>
Departamentuko arduraduna	A1	70.167,55 (dedikazioa barne)	Oposizio-Lehiaketa	EZ
Ingeniari teknikoa	A2	45.186,7	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua Egonkortzeko Tasa Gehigarria)	<b>BAI,</b> egokitzapena (aldi baterako funtzio berriak 7.132,46 €)
Arkitektoa	A1	49.497,7	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua Egonkortzeko Tasa Gehigarria)	EZ
Ingurumen eta Landa Eremuko teknikaria	A2	36.201,76	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua Egonkortzeko Tasa Gehigarria)	EZ
Ikuskatzailea/ Delineatzailea	C1	31.521,82	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua Egonkortzeko Tasa Gehigarria)	EZ
Peoiak (2) (Lanpostuen Zerrendan daudenak baina behin betikoz hornitu gabe)	C2/E	(1) 25.074,70 (2) 50.149,42	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua Egonkortzeko Tasa Gehigarria)	EZ

## 5.- IDAZKARITZA

Departamentu honetan ondorengo neurriak hartzea proposatzen da:

### 1.- UDATE berrantolatzea:

- Jakinarazleak dagozkion zereginak berreskuratu ondoren, UDATEn hiru administrari-lanpostu sortu beharko lirateke, bulegoa hornitzeko era estandarizatu batean (5.000 biztanleko administrari bat, borobilduz) :
  - Administrari bat: irekia, enplegua egonkortzeko. Udalarentzat kosturik gabe.



- Administrari bat: Giza Baliabideen birbanaketa erabiliz, langilearen adostasunarekin (liburutegiko laguntzailea). Udalarentzat kosturik gabe (orain, lansaiio erdia Pertsonalean eta beste erdia UDATEn).
- Administrari bat: Barne Sustapenez hornitzeko kontsulta egin ondoren, sistema hau jarraituko litzateke ( mugatua). Inor ez balitz egongo interesatuta, librearen bitartez hornituko litzateke. Kasu horretan, ezingo litzateke ziurtatu kosturik izango lukeen ala ez, baina era guztietan kontuan hartu behar da Erretengibel sozietateko administrariaren lanpostua amortizatu dela.

## 2.- Kontratazioko Unitate zentralizatua

- Proposatzen da Kontratazioko teknikariaren lanpostua sortzea. Horrekin batera, izendatutako Programako funtzionarioaren lanpostua amortizatuko litzateke. Kontratazioko administrariari dagokionez, aurreko atalean aipatu den moduan, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko administrari lanpostu bat berraxikituko litzateke Kontratazioko Unitatera, titularra 2019an jubilatua ondoren, kostu gehigarririk gabe. Teknikariaren plaza hautatzeko jardunbidea oposizio-lehiaketa librea izango litzateke. Administrariaren lanpostuari dagokionez, barne sustapenari emango zaio lehentasuna, eta inor ez balitz interesaturik egongo, librea esleituko litzateke.

## 3.- Etxebizitza eta Udal Ondarearen teknikari kudeatzailea

- Aurretik aipatu den moduan, langile batek betetzen ditu hauetako zeregin batzuk 2006tik. Lanpostu berria sortzeak ez luke inolako gastu gehigarririk ekarriko. Lanpostua kudeaketa teknikari gisa konfiguratu da, A2 taldekoa, ondoko zereginekin:
  - Etxebizitza tasatuen kudeaketa orokorraren programazioaz arduratzea, Idazkaritzako Administrazio Orokorreko teknikariarekin elkarlanean: esleitzeko jardunbideak izapidetzea, oinarri eta txostenak barne, kontratuak prestatzea eta izapidetzea, etab.
  - Etxebizitzen erabileraren kontrola gauzatzea, herritarrei kontsultak erantzutea, beharrezkoak diren baimenak kudeatzea, elaborazio berezia behar ez duten txostenak prestatzea.
  - Alokairuko etxebizitzen kudeaketa: etxebizitzaren egoera egiaztatzen, kontratu berria izenpetu eta etxebizitza entregatu arteko prozesua.
  - Zuzkidurako bitokiak kudeatzea.
  - Etxebizitza hutsak merkaturatzeko programak kudeatzea.
  - Uzturre asistentzia zentroko pertsona autonomoentzako bitokiaren eskualdaketa kudeatzea.
  - Udal jabetzako garajeak kudeatzea.
  - Herritarrei informazioa ematea, bere arloko gaietarako buruz.
  - Administrariari irizpideak ematea, sailari dagozkion gaietarako buruz: espedienteen kudeaketa, antolakuntza, unitateko dokumentazioaren antolaketa, etab.



- Udaleko gainontzeko teknikariekin elkarlanean aritzea, udal ondarearen kudeaketa hobetzeko.
- Udalaren jabetzako higiezinak (lokalak...) besterentzeko (lagatzeko, saltzeko, akuran emateko...) jardunbideak jasotzen dituzten espedienteak prestatzea eta izapidetzea, Idazkaritzako Administrazio Orokorreko teknikariak lagunduta.
- Lagapenean eman diren udaleko lokalen zerrendaren osaketa, udaleko gainontzeko Departamentuen informazioaz baliatuz.
- Lanpostua hornituko da irekian, enplegua egonkortzeko jardunbidean.
- Langilearen ordainsari orokorrak mantenduko dira behin behineko balorazioan, eta berraztertuko dira lanpostu guztien balorazio orokorra egiten denean.

#### 4.- Pertsonal Unitateko hirugarren administraria

- Hirugarren administrari honek ez du inolako lanposturik betetzen Pertsonal Departamentuan, bi administrari-lanpostu besterik ez dagoelako, eta egoera honi amaiera jarri behar zaio. Bere jatorrizko lanpostua liburutegiko laguntzailea (administraria, administrazio orokorrekoa) da, eta une honetan enpresa baten zerbitzuen bitartez ematen da zerbitzu hori. Proposatzen da Giza Baliabideen birbanaketa, langilea UDATE zerbitzuari atxikitzeko, adostasuna egonez gero, dagokion jardunbidea garatu ondoren. Kostuen gehikuntzarik ez dago, oraingo ordainsariekin alderatuta.

#### 5.- Informatika Unitateko teknikaria

- Lanpostua hornituko da irekian, enplegua egonkortzeko jardunbidean. Kostuaren gehikuntzarik ez dago.

#### 6.- Idazkaritzako administraria

- Aurrekarietan aipatu den moduan, lanpostu hau hutsik dago, eta bitarteko izaeraz betetzen du udal funtzionario batek zerbitzu eginkizunetan. Hornikuntza mota honen gehieneko iraupena bi urtekoa dela ikusirik, epea amaitu aurretik behin betikoz hornituko da, barne sustapenez. Kostuen gehikuntzarik ez dago.

#### 7.- Jakinarazlea

- Langile hau jatorrizko lanpostura bueltatzea proposatzen da, UDATEn dituen zerbitzu-eginkizunak amaituz. Kasu honetan **diru kopuru bat aurreztuko litzateke (3.517,36 €-koa)**, bi lanpostu hauen zuzkidura aurreikusten delako udal aurrekontuetan.



TOLOSAKO  
UDALA

<b>IDAZKARITZA</b>				
<b>Plaza/Lanpostu berriak</b>				
<b>Berria</b>	<b>Taldea</b>	<b>Urteko ordainsariak</b>	<b>Hornitzeko era</b>	<b>Gastu berria</b>
U DATEko administraria	C1	29.937,02	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua Egonkortzeko Tasa Gehigarria)	BAI -> 1.293,4
U DATEko administraria)	C1	29.937,02	Giza Baliabidetako Birbanaketa	EZ
U DATEko administraria	C1	29.937,02	Oposizio-Lehiaketa (Barne-sustapen mugatua edo irekia)	BAI
Kontratazioko teknikaria	A1	43.721,30	Oposizio-Lehiaketa	BAI
Etxebizitza eta Ondare Kudeaketako teknikaria	A2	40.025,16	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua Egonkortzeko Tasa Gehigarria)	EZ
Kontratazioko administraria	C1	29.937,02	1. Barne Sustapena 2. Oposizio-Lehiaketa librea	EZ (berraxekipena)

<b>IDAZKARITZA</b>				
<b>Hornitu beharreko plazak edo lanpostuak, Plantilan daudenak</b>				
<b>Plaza/Lanpostua</b>	<b>Taldea</b>	<b>Urteko ordainsariak</b>	<b>Hornitzeko era</b>	<b>Gastu berria</b>
Idazkaritzako administraria	C1	29.937,02	Barne Sustapena	EZ
Informatikaria	A1	43.693,44	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua Egonkortzeko Tasa Gehigarria)	EZ
Jakinarezlea	E		Zerbitzualdia amaitzea	EZ Aurrezkia: - 3.517,36 €



## 6.- KIROLA ETA TOLOSA LANTZEN

Ondorengo neurriak proposatzen dira:

- Kirol Departamentuko administrariaren lanpostua behin betikoz hornitzeko jardunbidea garatzea: librea. Ez du gastu gehigarrik ekarriko.
- Tolosa Lantzen: Kirol instalazioen kudeatzaile-koordinatzaile lanpostua sortzea, eta aldi baterako enplegua egonkortzeko jardunbidea garatzea, behin betikoz hornitzeko. Sistema: irekia, Enplegua egonkortzeko jardunbidea.

<b>KIROLA</b>				
<b>Hornitu beharreko plaza/Lanpostua</b>				
<b>Plaza/Lanpostua</b>	<b>Taldea</b>	<b>Urteko ordainsariak</b>	<b>Hornitzeko era</b>	<b>Gastu berria</b>
Administraria	C1	29.937,02	Oposizio-Lehiaketa librea	EZ
Kirol instalazioen kudeatzailea-koordinatzailea	A2	42.740,74	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua Egokortzeko Tasa Gehigarria)	EZ

## 7.- KONTUHARTZAILETZA

Departamentu honetan ondoko neurriak hartzea proposatzen da:

- Diruzainaren lanpostua sortzea, A1 taldean sailkatuta. Hornitzeko era: Gaitasun Nazionaleko Funtzionarioentzako Merituen Lehiaketa. Hutsik geldituko balitz: lehiaketa-pposizio irekia. Gastu berria ekarriko du.
- Errenta/Zerbitzu Ekonomikoen Administrariaren lanpostua sortzea, ondoko zereginekin: zerga, tasa eta prezioen errolda fiskalak prestatu, helegite eta tasa zein zergen kitapenen jakinarazpenak egin, herritarrei arreta eman, eta, orokorrean, Departamentuak behar dituen zerbitzuak ematea, bere kategoriaren barruan.....Izan ere, azken urte hauetan bitarteko funtzionarioak izendatu dira zeregin hauetarako ohiko eran, behar estruktural baten aurrean gaudela egiaztatuz.
- Kontuhartzaitzako goi mailako teknikariaren lanpostuari dagokionez, Tolosako Hiltegian betetzen dituen behin-behineko zereginak eta Udalean sortu diren behar berrien arteko bateragarritasuna aztertu ondoren, UDALHITZ hitzarmenean araututako Baliagarritasuneko Lanaldi Luzatuko erregimena aplikatzea, urteko 1.685 orduekin eta ordainsarien % 20ko osagarriarekin (antzinatasuna izan ezik). Udaleko behar berriak dokumentu honen aurrekarietan aipatu dira. Osagarri hau finkatzen da 6/2018 Legeak, Estatuko Aurrekontuak onartzen dituenak, bere



18. Siete atalean xedaturikoaren arabera, eta arrazoi honengatik ez du konputatuko homogeneotasunezko helburuetarako.
- Kontuhartzailtzako administrariaren lanpostu bat (1) hornitzen duen langileak betetzen ditu EPOEren Laugarren Xedapen Iragankorrean araututako baldintzak. Beraz, lanpostua behin betikoz hornitzea proposatzen da, ireki bidez, kontsolidatzeko jardunbidearen barruan.
  - Halaber, Plangintza honetan, kontuan harturik Tolosako Udalaren eta bere sektore publikoaren ikuspuntu orokorra hartu dela aintzat, Udalaren berariazko baliabideak diren sozietateetan emandako zerbitzuak kontuan hartu dira, beti ere zerbitzu horiek funtzio berdinak dituen lanpostuekin lotuta baldin badaude. Arrazoi honengatik, Kontabilitateko administrariaren lanpostua bitarteko funtzionario gisa betetzen duen langileari Erretengibel sozietatean administrari gisa emandako zerbitzuak onartzen zaizkio. Horren ondoren, enplegua egonkortzeko jardunbidearen bitartez proposatzen da lanpostu hau behin betiko izaeraz hornitzea.
  - Kontuhartzailtzako bigarren administrariaren (2) funtzioak aldatu behar dira, eta bere ordeaz Errentetako administrariaren zereginak atxikitu. Horretarako, Kontuhartzailtzako administrariaren lanpostua amortizatuko da, eta Errenta administrariaren lanpostua sortuko da. Langileari lanpostu berria esleituko zaio (berresleipena), eta gaur egun jasotzen dituen ordainsariak ez dira gutxituko.
  - Azkenik, Departamentu honen azterketa sakona egin behar da prozesu honen 2. fasean, udalaren eta bere sektore publikoko barne-kontrola xedatzen duen araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzeko, eta departamentuak behar dituen baliabideez hornitzeko. Beraz, ez dira baztertzen, ez lanpostu berriak sortzeko beharra, ezta kanpoko enpresen laguntza kontratatzea ere.
  - Hala eta guztiz ere, Tolosako Udaleko Sozietateen kontabilitatea eta auditoretza kanpoko enpresen bitartez gauzatzea proposatzen da, Kontuhartzailtzari legez dagozkion zereginen kalterik gabe.

<b>KONTUHARTZAILETZA</b>					
<b>Amortizazioak</b>					
<b>Amortizatze</b>	<b>Kopurua</b>	<b>Taldea</b>	<b>Urteko ordainsariak</b>		
Kontuhartzailtzako 2. administraria	1	C1	30.933,82		





<b>KONTUHARTZAILETZA</b>				
<b>Plaza berriak</b>				
<b>Lanpostu berria</b>	<b>Taldea</b>	<b>Urteko ordainsariak</b>	<b>Hornitzeko era</b>	<b>Gastu berria</b>
Diruzaina	A1	44.428,72	GNF: Lehiaketa	<b>BAI</b> (Legeak aginduta)
Errenta /Zerbitzu Ekonomikoen Administraria	C1	30.933,82	Oposizio-Lehiaketa Librea	<b>BAI</b>
Errenta Administraria	C1	30.933,82	Giza Baliabideen Berresleipena	<b>EZ</b>

\* azken urtetako 1. kapituluko gastuarekin diferentzia:

<b>KONTUHARTZAILETZA</b>				
<b>Hornitu beharreko plazak, Plantilan daudenak</b>				
<b>Plaza/Lanpostua</b>	<b>Taldea</b>	<b>Urteko ordainsariak</b>	<b>Hornitzeko era</b>	<b>Gastu berria</b>
Kontuhartzaitzako administraria (1)	C1	29.937,02	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua <b>Kontsolidatzeko</b> Tasa Gehigarria)	<b>EZ</b>
Kontabilitateko administraria	C1	30.803,2	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua <b>Egonkortzeko</b> Tasa Gehigarria)	<b>EZ</b>

## 8.- KULTURA, JAIK, GAZTERIA

Departamentu honetan ondoko neurriak proposatzen dira:

- Lanpostuen Zerrendako administrariaren lanpostua, lan-itunpekoa, amortizatu eta bere ordeztuntzionario izaerako lanpostua sortu behar da. Lanpostu hau behin betiko izaeraz beteko da ireki bidez, Enplegua Egonkortzeko jardunbidean. Gastu gehigarrik ez du ekarriko.
- Kultura eta Festetako koordinatzailearen lanpostua amortizatuko da, eta bere ordeztuntzionario Kulturetako teknikariaren lanpostua sortuko da, A2 taldekoa. Lanpostua behin betikoz hornituko da irekiaren bitartez. Kostu ekonomikoa: C1en eta A2ren arteko diferentzia.
- Kultura eta Festetako koordinatzaileari dagokionez, honako aukera hauek aurreikusi dira: lehena, Liburutegiko Laguntzailearen lanpostua berresleitzea. Bestelako kasuan, hutsik dagoen lanpostu bat berresleitu zaio, bere kategoriaren barruan. Orain duen ordainsariaren (prestasun eta dedikazioko



osagarria izan ezik) eta lanpostu berriari dagokion ordainsariaren arteko diferentziarik badago, diferentzia hori osagarri iragankor gisa mantenduko zaio, eta igoeren kasuan, aipatu osagarria erabiliko da igoera ordaintzeko, agortu arte. Kosturik gabe, eta liburutegiaren kasuan, 2. Kapitulutik aurreztuko da zerbitzu honen kontratazioa.

- Gazteria arloko teknikariaren kasuan, betetzen ditu EPOEren Laugarren Xedapen Iragankorrean araututako baldintzak. Beraz, lanpostua behin betikoz hornitzea proposatzen da, ireki bidez, enplegua egonkortzeko jardunbidearen barruan. Gastu gehigarririk gabe.
- Balio Anitzeko laguntzailea eta administrariaren lanpostuak behin betikoz betetzeko, irekia eta enplegua egonkortzeko jardunbideak garatuko dira. Kostu gehigarririk gabe.
- Liburuzainaren kasuan, hutsik dagoen lanpostua behin betikoz hornitzeko jardunbidea garatuko da, egonkortzeko jardunbidea erabiliz.
- Azkenik, Informazio kudeatzailearen lanpostua sortuko den Partaidetza eta Gardentasuneko Departamentuari berraxikituko zaio.

<b>KULTURA AMORTIZAZIOAK</b>			
<b>Lanpostua berria</b>	<b>Taldea</b>	<b>Urteko ordainsariak</b>	
Administraria (Lan itunpekoa)	C1	29.937,02	
Kultura eta Festetako koordinatzailea	C1 (% 4ko osagarria)	32.251,25	

<b>KULTURA Plaza berriak</b>				
<b>Lanpostu berria</b>	<b>Taldea</b>	<b>Urteko ordainsariak</b>	<b>Hornitzeko era</b>	<b>Gastu berria</b>
Administraria (funtzionarioa)	C1	29.937,02	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua <b>Egonkortzeko</b> Tasa Gehigarria)	EZ
Kultura Kudeaketarako teknikaria	A2	36.574,3	Oposizio-Lehiaketa Librea	<b>BAI (C1 + prestutasuna eta A2 arteko diferentzia: 4.325,05 €)</b>



<b>KULTURA</b>				
<b>Hornitu beharreko plazak, Plantilan daudenak</b>				
<b>Plaza/Lanpostua</b>	<b>Taldea</b>	<b>Urteko ordainsariak</b>	<b>Hornitzeko era</b>	<b>Gastu berria</b>
Gazteria Teknikaria	A2	36.574,3	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua <b>Kontsolidatzeko</b> Tasa Gehigarria)	EZ
Balio Anitzeko laguntzailea	C2	27.890,14	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua <b>Egonkortzeko</b> Tasa Gehigarria)	EZ
Liburuzaina	A2	37.021,18	Oposizio-Lehiaketa (Enplegua <b>Egonkortzeko</b> Tasa Gehigarria)	EZ

## 9.- BERDINTASUNA

Departamentu honetan, hasiera batean egonkortuko dira bi teknikarien lanpostuak lanaldi osoz, eta Prozesu honen bigarren fasean Departamentuko egitura aztertuko da, Emakumeen Etxearen proiektua garatuagoa egongo delako.

Lanpostu hauek behin betikoz betetzeko, oposizio-lehiaketa irekia eta Enplegua Egonkortzeko jardunbideak garatuko dira. Kostua, teknikari baten lanaldiaren % 50 izango da. Kopuru hau finkatzen da 6/2018 Legeak, Estatuko Aurrekontuak onartzen dituenak, bere 18.Siete atalean xedaturikoaren arabera, eta arrazoi honengatik ez du konputatuko homogeneotasunezko helburuetarako.

<b>BERDINTASUNA</b>				
<b>Hornitu beharreko plazak, Plantilan daudenak</b>				
<b>Plaza/Lanpostua</b>	<b>Taldea</b>	<b>Urteko ordainsariak</b>	<b>Hornitzeko era</b>	<b>Gastu berria</b>
Teknikariak(2)	A2	(1) 36.547,84 (2) 73.095,68	Oposizio-Lehiaketa irekia eta Enplegua Egonkortzeko jardunbideak (Enplegua <b>Egonkortzeko</b> Tasa Gehigarria)	1. EZ 2. <b>BAI: Lanaldi baten %50a</b> <b>18.273,92</b>

## 10.- UDALTZAINGOA



Departamentu honetan garatu behar diren jardunbideak ondoko hauek dira:

<b>UDALTZAINGOA</b>				
<b>Hornitu beharreko plazak, Plantilan daudenak</b>				
<b>Plaza/Lanpostua</b>	<b>Taldea</b>	<b>Urteko ordainsariak</b>	<b>Hornitzeko era</b>	<b>Gastu berria</b>
Agenteak (2)	C2	C1 36.777,60	Oposizio-Lehiaketa	EZ
UDALTZAINBURUA	C1	47.391,10	Oposizio-Lehiaketa mugatua, Barne Sustapena	EZ
UDALTZAINBURU-ORDEA	C1	44.249,66	Oposizio-Lehiaketa mugatua, Barne Sustapena	EZ
TRAFIKO KOORDINATZAILEA	C1	36.777,60	Oposizio-Lehiaketa mugatua, Barne Sustapena	EZ

3. agentearen lanpostua 2017ko Lan Eskaintza Publikoan onartu zen.

## **11.- MUSIKA ESKOLA**

Musika Eskolako pertsonalari buruzko neurriak Egitasmo honen 2. fasea garatu ondoren ebatziko dira, zerbitzuaren beharrak eta Musika Eskolako antolakuntza ebazten direnean. Bitartean, ondoko neurriak hartuko dira:

- Orduko kobratzen duten irakasleen ordainsariak gainontzekoekin homogeneousatuko dira, hileko maiztasuna izanik, egiten den lansaiorearen portzentaiaren arabera.
- Pertsonalaren lan-harremanari dagokionez, Epaitegiak emandako sententziak beteko dira.
- Bandako zuzendariaren lanpostuaren kasuan, kontuan hartu behar da une honetan Tolosako Musika Bandarekin ireki den prozesua, hitzarmena berritzeko xedea duena. Aztertu diren alternatiben artean, batean bideragarria ikusten da Tolosako Udaleko Lanpostuen Zerrendan aipatu lanpostua mantentzea, beti ere Musika Eskolako irakaslea izateko baldintzarekin lotuta. Ematen ari den negoziazioan irtenbidea bestelakoa bada, lanpostua iraungitzeko sailkatuko da eta hutsik geratzen denean, amortizatu egingo da.

## **12.- DEPARTAMENTU BERRIA: PARTAIDETZA, GARDENTASUNA ETA DATUAK BABESTEKO DELEGAZIOA.**



Dokumentu honen aurrekarietan aipatu den moduan, Departamentu honen sorrera beharrezkoa da, ondorengo arrazoi nagusiengatik:

- Teknikari bat beharrezkoa da, 19/2013 Legeak xedatu dituen gardentasunari buruzko betebeharrak bete ahal izateko: publizitate aktiboko betebeharrak departamentu guztietan betetzen direla egiaztatu, gai honi buruzko irizpideak eman, herritarrek duten eskubidea informazio publikora sartzeko protokoloak sortu eta irizpideak proposatu, gardentasuna sustatzeko kodeak proposatu...
- 2/2016 Legeak, Euskadiko toki Instituzioei buruzkoak xedatzen dituen parte-hartze tresna ezberdinak aztertu behar dira, haietan oinarritutako protokoloak sortu, *Tolosatzen* prozesuarekin jarraitu, herritarren parte-hartzea txertatu Udalaren ohiko dinamiketan, udal langileak formatu...
- 2016/679 (EB) Erregelamendua 2018ko maiatzaren 25ean indarrean sartu ondoren, Datuen Babeserako Delegatuaren figura ezinbestekoa da eta Udalak izendatu behar du.
- Horiekin bat etorritik, Partaidetza eta Gardentasunaren arloetan, Administrazio Orokorreko teknikariaren lanpostua sortu behar da, funtzio anitzekin: **Partaidetza, Gardentasuna, Datuen Babesa, Informazio Publikoa... Teknikari honek Datuen Babeserako Delegatuaren zereginak beteko lituzke, eta era honetan, beteko litzateke legeriak (Europako Erregelamenduak) agindutakoa.** Lanpostu honen zereginak 2007tik betetzen ditu Hirigintzako letraduaren lanpostua bitarteko izaeraz hornitzen duen teknikariak, izendapen baten bitartez. Beraz, Lanpostua hornitzeko sistema oposizio-lehiaketa irekia eta Enplegua Egonkortzeko jardunbidea izango da.
- Departamentu honi berratzikituko zaio Informazio Kudeatzailearen lanpostua.

PARTAIDETZA, GARDENTASUNA ETA DATUAK BABESTEKO DELEGARITZA				
Plaza/Lanpostua	Taldea	Urteko ordainsariak	Hornitzeko era	Gastu berria
AOT	A1	43.721,30 €  Prestasuna/ Dedikazioa: aztertzeke	Oposizio-Lehiaketa irekia eta Enplegua Egonkortzeko jardunbidea (Enplegua <b>Egonkortzeko</b> Tasa Gehigarria)	<b>BAI</b> (Legeak aginduta)

Beraz, ezinbestekoa da Tolosako Udaleko Lanpostuen Zerrenda berriak aldaketa hauek jasotzea, dokumentu honen 1. eranskinean proposatzen den moduan.



## NEURRI NAGUSIEN LABURPENA

Aurreko ataletan aipatu diren neurri nagusietatik kanpo, hona hemen Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa honek proposatzen dituen bestelako neurriak:

**IV.1.- Funtzio edo enplegu publikoan sartzeko era oposizio-lehiaketa izatea, eta lanpostuak hornitzeko edo zuzkitzeko sistema lehiaketa izatea, eta hori Lanpostuen Zerrendan islatzea.**

Era honetan, izendapen askea desagertuko da, bai lanpostuak hornitzeko, baita enplegu publikora sartzeko tresna gisa. Halaber, publizitatea, meritua, gaitasuna eta berdintasuneko printzipioak bermatuko dira.

**IV.2.- Lanpostuen Zerrendan eta Katalogoan, Administrazio Orokorreko lanpostuak aztertzea, ahalik eta diziplina anitzekoak (ahalik eta diziplina gehien) izateko helburuarekin, lanpostuen arteko mugikortasuna ahalbidetuz.**

Era honetan, Udaleko langileek erraztasun gehiago izango dituzte barne sustapeneko jardunbideetan parte har dezaten, beti ere publizitatea, meritua, gaitasuna eta berdintasuneko printzipioak bermatuz.

**IV.3.- Barne Sustapeneko eta Barne Sustapeneko gurutzatuko jardunbideak garatzeko bideak ahalbideratzea.**

Izaera (funtzionarioak/lan itunpekoak) eta Eskala ezberdinetako langileei bidea erraztuko zaie Barne Sustapeneko jardunbideetan parte har dezaten, beti ere publizitatea, meritua, gaitasuna eta berdintasuneko printzipioak bermatuz.

**IV.4.- Funtzionarioentzat gordetako eta lan-itunpeko pertsonal finkoak hornitutako lanpostuetan, funtzionarizatzeko prozesuak garatzea.**

Prozesu hauek arautzen ditu 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, bere Seigarren Xedapen Iragankorrean, eta eragindako pertsonalarentzat mugatuak izango dira.

**IV.5.- Izaera estrukturala duten plazak eta postuak kontsolidatzeko/egonkortzeko hautaketa-jardunbideak garatzea.**

Hautaketa-jardunbide hauek ondorengo legerian oinarrituko lirateke:



- 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Laugarren Xedapen Iragankorra: 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera aldi baterako edo bitarteko eraz eta etengabez betetako postu, plaza edo zereginak, aurrekontuan aurreikusitakoak, **kontsolidatuko** dira.
- 2018ko Estatuko Aurrekontuak arautzen dituen Legearen 19.Uno.9 artikulua: 2014ko abenduaren 31ik aurrera aldi baterako edo bitarteko eraz eta etengabez betetako postu, plaza edo zereginak, egiturazkoak, aurrekontuan aurreikusitakoak, **egonkortuko** dira. Sozietate publikoen kasuan, xedapen berdina jasotzen da 27.7 Xedapen Gehigarrian.

Azpiratu behar da jardunbide hauek garatzea ez dela legeak jarritako betebeharrak, aukera bat baizik. Hala ere, kontuan hartzen badugu Tolosako Udaleko errealitatea, azken hamarkadetakoa pausoak, eta garatu ez diren jardunbide guztiak, beharrezkotzat jotzen da konpromiso hau hartzea, burutu behar diren prozesuetan Udaleko eta bere sektore publikoko langileek ahalik eta berme gehienak izan ditzaten.

#### **IV.6.- Hutsik dauden lanpostuak betetzeko eskaintza publikoetan sartu beharreko eta jardunbide libreak garatzeko lanpostuak zehaztu dira**

#### **IV.7.- Erretengibel Sozietateko Pertsonal finkoaren eskualdaketa: sektore publikoko berrantolaketa**

Aurreko atalean aipatu den moduan, Programa honek eragindako lanpostuak ondoko hauek dira: kudeatzailea, arkitektoa, eta administraria, denak lan itunpeko pertsonal finkoa. Langile hauek aukeratzeko garaian, publizitatea, merezimendua, gaitasuna eta berdintasunean oinarritutako prozedurak jarraitu ziren.

Une honetan, Udalak bere gain hartu behar ditu sozietate honek ematen dituen zerbitzuak, eta epe laburrean, bere disoluzioari ekingo dio. Horrela, enpresa-oinordetzaren aurrean egongo ginateke, kontuan hartuta 2018ko Estatuko aurrekontuak arautzen dituen Legea (ikus 2017ko aurrekontuak arautzen dituen Legearen 26. Xedapen Gehigarria eta Hirugarren Xedapen Iragankorra), eta 2/2015 Errege Dekretu Legegileak, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenak, bere 44. artikuluan xedaturikoa. Bestelako kasuan, langileen absortzioa administrazioaren edo sektore publikoaren berrantolaketaren ondorioa izango litzateke.

## **4. AZTERKETA JURIDIKOA**

### **1º.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMAK: ARAUBIDE JURIDIKOA ETA PRINTZIPIO NAGUSIAK**





Indarrean dagoen Konstituzioak, bere 103. artikuluan xedaturikoaren arabera, Administrazio Publikoak objektibotasunez zerbitzatu dituzten interes orokorrak, eta jardura-printzipioa du, besteak beste, eraginkortasuna, legegari eta Zuzenbideari osotara men eginik. Bestalde, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua (EPOE) hemendik aurrera) arautzen duena, honela dio Zioen azalpenean:

*“Las Administraciones y entidades públicas de todo tipo deben contar con los factores organizativos que les permitan satisfacer el derecho de los ciudadanos a una buena administración, que se va consolidando en el espacio europeo, y contribuir al desarrollo económico y social. Entre esos factores el más importante es, sin duda, el personal al servicio de la Administración”*

...

*“Para eso, la legislación básica de la función pública debe crear el marco normativo que garantice la selección y la carrera sobre la base de los criterios constitucionales de mérito y capacidad y que establezca un justo equilibrio entre derechos y responsabilidades de los empleados públicos. Además, la legislación básica ha de prever los instrumentos que faculten a las diferentes Administraciones para la planificación y ordenación de sus efectivos y la utilización más eficiente de los mismos”.*

Testu horrekin lotuta, EPOEko 69. artikulua honela xedatzen ditu giza baliabideak planifikatzeko helburuak eta tresnak:

### **Giza baliabideen plangintza**

#### **69. artikulua. Plangintzaren helburuak eta tresnak.**

1. *Administrazio publikoetako giza baliabideak planifikatuta, aurrerapausoak eman nahi dira, batetik, zerbitzua ematerakoan eraginkortasuna lortzeko, eta, bestetik, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak kudeatzerakoan eragimenez jarduteko. Horretarako, langile kopurua egokitu behar da, langileak hobeto banatu, ondo prestatu eta lanbide-sustapena eta mugigarritasuna eskaini.*

2. *Administrazio publikoek giza baliabideak antolatzeko planak onartu ahal izango dituzte, plan horien barruan, besteak beste, honako neurri hauek hartuta:*

a) *Dauden eta behar diren langileen inguruko analisia, aintzakotzat hartuta bai langile kopurua, bai lanbide-profilak edo prestakuntza-maila.*

b) *Lana antolatzeko erabiliko diren sistemei buruzko aurreikuspenak, eta lanpostuen egituretan egingo diren aldaketak.*

c) *Mugigarritasun-neurriak; esate baterako, kanpoko langileak sartzeko aukera etenda utz daiteke eremu jakin batzuetan edo lanpostuak betetzeko lehiaketa-deialdi batzuk eremu jakin batzuetako langileentzat bakarrik jarri.*



d) Barne-sustapeneko eta langile-prestakuntzako neurriak, eta nahitaezko mugigarritasunekoak ere bai, estatutu honen titulu honetako III. kapituluan ezarritakoari jarraituz.

e) Giza baliabide gehiago sartzeko neurriak, enplegu publikoaren eskaintzaren bitartez, hurrengo artikuluan ezarritakoarekin bat.

3. *Administrazio publiko bakoitzak bere giza baliabideak planifikatuko ditu, bakoitzean aplikatu beharreko arauetan ezarritako sistemen arabera.*"

Oinarrizko erregulazio hau abiapuntutzat hartuta, garapeneko araudi zabal bat indarrean jarri da Giza Baliabideak arrazionalki erabiltzeko gaian. Araudi horretan, besteak beste, xedatzen da Administrazio Publikoek enplegu-planak lantzeko duten ahalak. Administrazio Publikoek, beren burua antolatzeko ahalak baliatuz eta langileen ordezkariekin negoziatu ondoren, giza baliabideak arrazionalki erabiltzeko programak ezar ditzakete, bai langile funtzionarioentzat eta bai lan-kontratukoentzat ere, guztiek izan dezaten, bakoitzaren eragin-eremuaren barruan, giza baliabideak hobeto erabiltzeko abian jarritako ekimenen onura. Guztia, betiere, aurrekontuek ematen dituzten aukeren barruan, eta Gobernu Organoek pertsonal-politikarako ezarritako gidalerroen bidetik.

Alde horretatik, 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 22. artikuluan arautzen ditu Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programak:

1.– *Euskal Administrazio Publikoek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, euren buruak antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira, eta euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Eta hori aurrekontuen mugen barne egin beharko da, gobernu-organoek langileei buruzko politikarako finka ditzaten jokabideen arabera.*

2.– *Giza baliabideak arrazionalizatzeko programetan, enplegu-planetarako aplikagarriak diren arau orokorretan ezarritako neurri guztiak edo batzuen batzuk sar daitezke. Horretaz gain, borondatezko lan-utzialdian daudenentzat, aldez aurretik jubilatu daitezkeenentzat, jarduneko zerbitzu-aldia uzten dutenenentzat edo behin-betiko baja hartzen dutenenentzat pizgarriak ere sar daitezke.*

3.– *Lege honetan eta Administrazio Publiko bakoitzak eman dezan arautegian xedatutakoa beteko da giza baliabideak arrazionalizatzeko programetan.*

4.– *Euren aplikazio-arautegi berezia beteko da enplegu planetan.*

5.– *Giza baliabideak arrazionalizatzeko programek daragiten langileak beste Administrazio Publiko batzuetara berraxiki daitezke. Era eta modua Administrazioen arteko hitzarmenetan ezarriko dira.*



6.– Giza baliabideak arrazionalizatzeko programek, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren eremuan, Sail, Erakunde edo administrazio-alar bati edo hainbati eragin diezaiekete. Funtzio publikoaren alorrean eskuduntzak dituen Sailak onartuko ditu programok, ogasun alorrean eskuduntza duen Sailak emandako aldeko txostena beharko duela aldeaz aurretik. Sail bati baino ez badiote eragiten, aipatutako Sail horien aldeaz aurretiko aldeko txostena izan ondoren, Sail horrek onartuko ditu.

Programok gertatzeko ekimena, eragindako Sail edo Erakundearen esku geldituko da edo, elkarlanean, funtzio publikoaren eta ogasunaren alorretan eskuduntza duten Sailen esku. Azken egoera honetan, aplikatu dakien Sailen txostena beharko da.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren xedapenak garatzeko araudi autonomikorik ezean, aplikatzeko izaten jarraitzen du Eusko Jaurlaritzak emandako 190/2004 Dekretua eta, hain zuzen ere, Dekretu horrek IX. Kapitulua, non 41. artikuluan eta hurrengoetan arautzen dituen euskal administrazio publikoetako giza baliabideak arrazionalizatzeko programak, programa hauek barne har ditzaketan neurriak eta onarpena emateko prozedurak.

Dekretu honen 42. artikulua xedatzen ditu Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programek har ditzaketan neurriak:

- a) Antolakuntza-egiturak nahiz lanpostuak aldatzeko aurreikuspenak.
- b) Eraginpeko alorrean kanpoko langileak sartzea bertan behera uztea, sartze hori enplegu eskaintzaren bidez nahiz mugikortasun prozeduraren bidez gertatu bada.
- c) Alor jakinetako langileei mugaturiko lehiaketak egitea lanpostuak betetzeko.
- d) Langileen prestakuntza eta gaitasunerako plangintzak langileak berriro koka daitezela laguntzeko asmoz.
- e) Barne sustapenerako neurri bereziak.
- f) Langileen berrizendapena.
- g) Lanaldi partzialeko zerbitzuan jardutea.
- h) Beste herri administrazio batzuekin hitzarmenak sinatzea langileak berrizendatzeko xedez.
- i) Borondatezko lan-utzialdia, aurreraturiko erretiroa, jarduneko zerbitzua uztea edo jarduneko zerbitzuan behin betiko baja hartzea sustatzeko pizgarriak.
- j) Arrazionalizatzeko programaren helburuei dagozkien bestelako neurriak.

Orain arte azaldutakotik ondorioztatzen da Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programak edo Enplegu Planak jarduketa globaleko figurak direla, eta langileen egoera antolakundearen premietara egokitze neurriak eta aurreikuspenak finkatzeko egiten



direla. Pertsonala planifikatzeko eta administrazioko egiturak berrantolatzeko tresnak direnez, ezagunak eta egiaztatuak diren desdoikuntzak konpontzeko erabiltzen dira batez ere. Beraz, aukera operatiboak eskaintzen dituzte honako ondorioetarako:

- Giza baliabideen erabilera optimizatzeko.
- Pertsonal-politika garatzean antzemandako premietara egokitzeko.

Bestalde, Estatuko 364/1995 Errege Dekretuak, martxoaren 10ekoak, behin betiko bultzada eman zuen era honetako tresnen eraginkortasuna aitortzean, arau horrek ezartzen baitu Giza Baliabideen Plan Integralek zehaztuko dituztela pertsonalaren arloan lortu beharreko helburuak, helburu horiek betetzeko egokitzen diren giza baliabideen kopurua eta egitura, hasierako langile-kopurua eraldatzeko behar diren neurriak eta horretarako egin beharreko jarduketak, batez ere mugikortasunari, prestakuntzari eta promozioari dagokienez.

## **2.- TOKIKO ENTITATEEK BEREN BURUA ANTOLATZEKO DUTEN AHALA: LANPOSTUEN ZERRENDA ETA PLANTILLA.**

5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duenak, 74. artikuluan ezartzen duenez, "*Administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabilia egituratuko dute beren antolamendua*". Tokiko entitateei dagokienez, beren burua antolatzeko ahalaren beste adierazpen bat da, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak 6.1 artikuluan aitortua.

Lanpostuen Zerrendek jaso beharko dute, gutxienez:

Lanpostuaren izena  
Saikapen profesionalean zein Taldetakoa den  
Lanpostuaren eskala  
Lanpostua betetzeko modua  
Ordainsari osagarriak

Lehen aipatutako 5/2015 Legegintzako Errege Dekretu Legegileko 75., 76. eta 77. artikuluetan arautzen dira langile funtzionarioak nahiz lan-kontratukoak sailkatzeko irizpideak.

Bestalde, 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 13. artikuluan eta hurrengoetan arautzen ditu Lanpostuen Zerrendak, honela:

- Administrazio Publikoetako Lanpostuen Zerrenden xedea da: barne-egiturak arrazionalizatzea eta ordenatzea, langile-premiak finkatzea, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztea eta lanpostu bakoitza sailkatzea.



- Lanpostuen Zerrendek lanpostu guztiak jaso behar dituzte, aurrekontuan dotazioa duten guztiak, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat, aldi baterako lan-kontratukoentzat eta behin-behineko pertsonalentzat gordetakoak bereiziz.
- Lanpostuen Zerrendek honako hauek adieraziko dituzte lanpostu bakoitzeko: lanpostuaren izena; saila; dedikazio-erregimena; lanpostua betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean hizkuntz eskakizuna; sailkapen-taldea, eskala, azpieskala edo kategoria lan-kontratuko langileak direnean; osagarriak (destinokoa eta espezifikoa), eta lanpostua betetzeko modua.

Bestalde, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 90.2 artikuluan tokiko entitateak behartzen ditu antolakundean dituzten lanpostu guztien zerrenda osatzera, lehen azaldutako funtzio publikoari buruzko oinarritzko legerian aurreikusitakoren arabera. Halaber, Lege honen 90.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, langileen plantilla onartzea. Zerrenda horretan funtzionarioen, eta lan-kontratuko eta behin-behineko langileen lanpostu guztiak jaso beharko dira.

Aurrekoarekin kontsonantzian, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duenak (aurrerantzean TATB), xedatzen du lanpostuen zerrendek beti jaso beharko dutela funtzio publikoari buruzko oinarritzko legerian aurreikusitako edukia, eta 7/1985 Legeko 90.2 artikuluan ezarritako arauen arabera prestatuko direla. TATBko 126. artikulua, 1. 2. eta 3. paragrafoetan arautzen du plantila prestatzeko eta aurrekontuan onartzeko modua, eta zehazten du plantilan sartuko direla dotazio ekonomikoa duten plaza guztiak. Halaber, artikulua honek xedatzen du plantila aldatzeko prozedura, ondoko era honetan:

*2. Las plantillas podrán ser ampliadas en los siguientes supuestos:*

*a) Cuando el incremento del gasto quede compensado mediante la reducción de otras unidades o capítulos de gastos corrientes no ampliables.*

*b) Siempre que el incremento de las dotaciones sea consecuencia del establecimiento o ampliación de servicios de carácter obligatorio que resulten impuestos por disposiciones legales.*

*Lo establecido en este apartado será sin perjuicio de las limitaciones específicas contenidas en leyes especiales o coyunturales.*

**Memoria honetan aztertuko den moduan, azkeneko urte hauetan indarrean jarri diren Estatuko aurrekontuetako legeek bereziki mugatu dituzte sektore publikoaren eta gure kasuan, Udalaren ahalmena plantilak handitzeko. Araudi hauen ondorioz, langileen behin-behinekotasunaren tasa neurririk gabe handitu da, eta plantilen batz besteko adina oso altua da, segidan ikusiko dugun moduan.**

### 3.- PROPOSATUTAKO NEURRIEN OINARRI JURIDIKOA



Aurreko atalean aipatu diren xedapen zehatzez gain, Dokumentu honetan aurreikusi diren enplegua egonkortzeko neurrien oinarri nagusia 2018ko Estatuko Aurrekontuei buruzko 6/2018 Legeak xedatu du. Hona hemen laburpen bat:

**19. art. - Lan Eskaintza Publikoa edo antzeko beste tresnaren bat pertsonal-beharren hornikuntza kudeatzeko.**

Legeak zehaztutako sektore publikoan pertsonal berria txertatzeko, gero adierazten diren ataletan xedatutako mugak eta baldintzak bete behar dira. [Honako hauek salbuetsita daude: merkataritza-sozietate publikoak eta enpresa-entitate publikoak, sektore publikoko fundazioak eta nagusiki Sektore Publikoa osatzen duten Administrazioek eta Organismoek parte hartutako partzuergoak, horiek denak, hurrenez hurren, Lege honen eta Estatuko Organo Konstituzionalen hogeita zazpigarren, hogeita zortzigarren eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoari jarraituko baitiote]:

- Salbuespena: aurreko EPE batzuei dagozkien hautapen-prozesuetatik datorren pertsonala txertatzea.
- 1. muga: Gastuen aurrekontuaren 1. kapitulua. (*homogeneotasun-egoeren haustura-kasuetan izan ezik, Programa honetan argudiatzen den bezala*).

Administrazio Publikoetan pertsonala txertatzeari buruzko xedapenak:

a) Aurreko ekitaldietan aurrekontu-egonkortasunari eta zor-publikoari eta gastu arauari buruzko helburuak bete dituzten Administrazio Publikoak (*Tolosako Udala*):

1. Birjarpen-tasa, ehuneko 100.

2. Tasa gehigarria, % 8, giza baliabideen errefortzua behar duten sektoreetan, betiere aurrekontu-egonkortasun eta finantza-jasangarritasunaren esparruaren barruan. *Portzentaje gehigarri hau lehentasunez erabiliko da jarraian azaltzen diren egoeraren bat gertatzen denean: zerbitzu publiko berriak ezartzea, urte-sasoia araberako jarduera turistikoaren eraginez handitzea edo espero diren erretiro-kopurua altua izatea.*

3. Aipatutako portzentajea % 10 izango da toki-erakundeentzat, baldin-eta, aurreko baldintzaz gain, zor-finantzarioa 2017ko abenduaren 31n amortizatua badaukate.

4. Bere birjarpen-tasa edozein sektore edo kolektibotan, berdin dio zeinetan, metatzeko aukera.

b) Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetarako, Autonomietako Polizia Kidegoetarako eta Udaltzaingotarako, birjarpen-tasa izango da ehuneko 115.

c) Birjarpen-tasa gehigarria, % 5, udalerrri guztiek, baldin-eta, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 26.1 artikulua aplikatuta, 2013tik 2017rako denboraldiko ekitaldiren batean



zerbitzu publiko gehiago emateko legezko betebeharra izan badute, urte horietako urtarrilaren 1ean eguneratutako udal erroldaren arabera zuzenbidezko biztanleria hazteagatik. Tolosako Udalak ez luke beteko baldintza hau, aipatu Legearen 26.1 xedaturiko biztanleen kopuru-muga ez duelako bete (20.000 biztanle).

d) Giza baliabideen birjarpen-tasaren kalkulua: aurreko urteetan bezala. Espediente honen kasuan, kontuan hartu beharko dira 2017an eta 2018an emandako jubilazioak, halaber, 2019an aurreikusten direnak, Lan Eskaintza Publikoak onartzeko garaian.

e) Giza baliabideen birjarpen-tasatik eratortzen den gehieneko plaza-kopuruaren barruan ez dira aintzat hartuko barne-sustapeneko prozeduren bidez hornitzeko ateratzen diren plazak, ez eta epai judizial bidez mugagabe ez-finkotzat jotako pertsonalari dagozkionak ere.

**f) ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO TASA GEHIGARRIA**, 2017ko Aurrekontuei buruzko Lege Orokorrean (ALO) dagoenaz gain:

1. Barne hartuko ditu izaera estrukturaleko plazak.

2. Aurrekontu-zuzkidura dutenak.

3. Aldi baterako lotura duen langileek betetzen dituztenak. Posible al da posturik ez duten plazak aintzat hartzea? BAI, AURRETIK LANPOSTU-ZERRENDA (LPZ) GASTUA HANDITU GABE ALDATUZ GERO. BIRKALIFIKATU DIREN PLAZAK ERE SAR DAITEZKE, betiere eginkizunak aldatzen ez badira. Auzitegi Gorenak 2016ko azaroaren 29an emandako bi epai: 1003/2016 eta 1022/2016.

4. Gutxienez 2014ko abenduaren 31 ezker, aldi baterako eta etenik gabe beteta egon direnak.

5. Honako sektore eta kolektibo hauetan: administrazio-zerbitzuetako eta zerbitzu orokorretako langileak, ikerkuntza-arlokoak, osasun publiko eta ikuskatzailea medikokoak, bai eta beste zerbitzu publiko batzuk ere. Guztiak, Toki Administrazioan, 2018ko Estatuko Aurrekontuak onartzen dituen Legearen xedapenak kontuan hartuz.

6. Tasa gehigarri honi dagozkion Enplegu Publikoko Eskaintzak: onartu eta dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratu behar dira, 2018, 2019 eta 2020 ekitaldietan. Egonkortze prozesuen barruan dauden plazak aldi baterako betetzeko tasak ehuneko 8tik behera egon behar du, arlo bakoitzean, aldiaren amaiera. TASEN BALIOZKOTASUNA BALDINTZA HAUEK BETETZEAREN MENDE GELDITZEN DA.

7. Hautaketa-prozesuak: berariazkoak, irekiak, lehia librea, berdintasun-, meritu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioak bermatuta.

8. Negoziatu ahal izango dira Estatuko Administrazio Orokorreko eta Autonomia Erkidegoetako eta Toki-Erakundeetako lurralde-eremu bakoitzean.

9. Prozesu horiek garatzeko, Administrazio desberdinen arteko koordinazioa posible egiten duten neurriak artikulatu daitezke.





TOLOSAKO  
UDALA

10. MUGAK: Gastu-gehikuntzarik ez, giza-baliabideen gehikuntzarik ez.

11. Ogasun eta Funtzio Publikoaren Ministerioari jakinarazi behar zaio aldi baterako zenbat plaza dauden, bai eta ISPA sistemaren bidezko egonkortze-prozesuen emaitzak ere.

Horretaz gain, aldi baterako langileen kontratazioa edo bitarteko funtzionarioen izendapena: **bakar-bakarrik egoera berezietan eta presazko eta atzeraezinezko beharrak betetzeko.**

Lehentasunezko sektoreetan birjartze-tasak pilatzeko aukera: berdin.

Arau hauek guztiek oinarrizko izaera dute eta Konstituzioaren 149.1.13a eta 156.1 artikuluen babespean ematen dira.

#### **4.- ALDI BATERAKO ENPLEGUA KONTOLIDATZEKO ETA EGONKORTZEKO JARDUNBIDEI BURUZKO IRIZPIDE OROKORRAK**

Gai honi buruz Estatuan zehar eman diren prozesuak aztertu ondoren, dokumentu honetan prozesu hauek garatzeko irizpide orokorrak proposatzen dira, indarrean dagoen legeria kontuan hartuta. Abiapuntu gisa, 2017KO ESTATUKO AURREKONTU OROKORRETATIK ERATORRITAKO EGONKORTZE PROZESUA APLIKATZEKO IRIZPIDE KOMUNAK, (hainbat aldaketekin) izeneko dokumentuan oinarritzen da proposamen hau.

ENPLEGU PUBLIKORA SARTZEKO SISTEMAK, 2017KO AURREKONTU LEGEAREN ONDOREN eta 2018ko Estatuko Aurrekontu Legearen aurreikuspenak kontuan hartuta:

- Txanda irekia: oposizioa edo oposizio-lehiaketa.
- Txanda irekia: aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuekin (2014-12-31 baino lehenagoko enplegua).
- Txanda irekia, aldi baterako enplegua kontsolidatzeko prozesuekin (2005-01-01a baino lehenagoko enplegua). Enplegatu publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 4. Xedapen Iragankorrean araututako kontsolidazio prozesuekin. Kasu horretan, proben edukiak zerikusia izango du deialdi bakoitzaren helburu diren lanpostuen ohiko prozedura, lan eta funtzioekin (PROBA PRAKTIKOAK). Berdintasun-, meritu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioak errespetatu beharko dira.

AZKENEKO BIEK HELBURU BERA DUTE: ALDI BATERAKO LANGILEEN TASA MURRIZTEA, PROZESUAREN AMAIERAN, % 8 BAINO TXIKIAGOA IZAN ARTE. Helburu hori 2018ko ALO Proiektuan mantentzen da.

JARDUKETA-IRIZPIDEAK:





- Iragarri beharreko plazak:
    - Aldi baterako betetako plazen kopurua: % 100. *Kasu honetan, alde batera utzi dira hainbat lanpostu edo kolektibo: Musika Eskola eta Euskaltegiko irakasleak, erretirotik gertu egon daitezkeen langileak...*
    - Lanaldi partzialeko lan-postuak: bat balitz bezala zenbatuko dira, eta prozesuan izaera horrekin hornitu ahalko dira.
    - Egonkortze-kopuru horri aldatu gabe eutsiko zaio prozesu osoan zehar.
  - Egonkortze- eta kontsolidazio-epeak zenbatzeko, ez dira etenalditzat hartuko, lanpostua, dagozkion tramite administratiboen ondorioz, hutsik egon den epea (adib: funtzionario bat lanpostua utzi ondoren beste bat izendatzea, edota langilea berriro izendatu edo kontratatzeko epe laburra).
  - Zer gertatzen da erreferentziazko lanposturik ez duen aldi baterako langileekin? Lanpostu hauek prozesuan kontatuko dira baldin eta:
    - izaera estrukturala badute, behar estrukturaleri erantzuten badiete (hau da egiaztatu beharreko lehen aspektua).
    - aldi baterako programak ez badira.
    - aurrekontu-zuzkidura badute eta 1. Kapituluaren gehikuntzarik eragiten ez badute.
    - Bere kasuan, lanpostu berriak sortu edo hutsik daudenak aprobetxatu behar dira.
- Gure kasuan kontuan hartu dira:*
- Lanpostuen kopurua, ez pertsonena:
    - Pertsona batek baino gehiagok bete badu lanpostu edo dotazio bat egonkortze-prozesuan, kontatu egin beharko da.
    - Bitarteko langile bi txandakatu badira plaza berean, lanpostu bakarra kontatu behar da.
  - Aldi baterako langile laboralak bete eta ahalmen publikoak erabiltzea beharrezko duten lanpostuak/ Funtzionarizatzeak:
    - Plazak kontatu egingo dira dagokion kidego edo eskalako langile funtzionarioek bete ditzaten.
    - Egonkortze-prozesuetan parte hartu ahal izango dute lanpostu horiek behin-behineko izaerarekin betetzen duen langile laboralek. Langile horiek funtzio horretan egindako lana meritutzat hartuko da.



TOLOSAKO  
UDALA

- Hautaketa-prozesuaren baldintzak:
  - Atera beharreko lanpostuak sartu behar dira LEP (Lan Eskaintza Publikoa) batean, zeina eskumena duen organoak onartu eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko den.
  - Deialdietan adierazi behar da zein LEPan dauden baimenduta.
  - Lanpostu berak hutsik jarraitzen badu hautaketa-prozesuaren ondoren, sartu ahal izango da hurrengo LEPan.
  
- LEPak exekutatzeko epeak:
  - Hautaketa-prozesuaren deialdiak argitaratuko dira 3 urteko epean, dagokion LEPa onartzen den egunetik kontatzen hasita, 2018an izan behar duelarik.
  
- Debekatuta dago deialdi itxiak egitea; prozesu irekiak izan behar dute.
  
- Lanpostua eskuratzeko behar den titulu akademikoa edo hizkuntza-profila eskatuko da, baita lanpostu hori aldi batean eta jarraian bete dutenei ere, salbu-eta araudiak besterik baimentzen badu. Aldi baterako kontratua dutenek antzintasun baldintzak betetzen dituztenean, parte-hartzeko aukera eduki behar izan dute (doktrina judiziala).
  
- Deialdia, beste hautaketa-prozesu batzuekin batera ala haietatik aparte? Bi moduak izan daitezke, honako hauek aintzat hartuta:
  - Prozesuak egiten badira prozesu arruntekin metatuta, baloratu beharreko ariketak eta merituak berberak izango direla.
  - Bereizita burutzen diren prozesuak guztietan desberdintasunak ezar daitezkeela.
  - Nolanahi ere, prozesuak izan behar dutela irekiak, lehia askekoak.
  
- Aukerak negoziazio kolektiboaren esparruan edukiko dira kontuan.
- Tolosako Udalaren kasuan, aldi baterako lana kontsolidatzeko edo egonkortzeko jardunbide berezituak burutzea proposatzen da.



- Egonkortze-prozesuetan erabili beharreko hautaketa-sistemak: (Ez Enplegatu publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 4. Xedapen Iragakorrean araututako kontsolidatzeko-prozesuak; kasu horretan, antzintasun handiena duten langileentzat proba batik bat praktikoa izango litzateke oposizio-lehiaketa fasean):
  - Oposizioa edo oposizio-lehiaketa, dagokion prozesua erregulatzeko berriazko araudia dagoenean izan ezik.
  - Egoera objektibo berberen aurrean ez da tratu ezberdintasunik egingo.
  - Oposizioa: gainditutakoen kopurua izango da gainditu dutenen kopuru berbera, plaza kopurua gaindituta ere.
  - Lehiaketa: ezin da erabili oposizio-fasea gainditzeko, eta ez da baztertzaileria izango.
  - Lehiaketa-faseari emandako puntuazio osoa: ezin du gainditu indarrean dagoen araudiak baimendutako gehieneko puntuazioa. Gure kasuan, bat etorrita TAOLaren 100.2a). artikuluan ezarritakoarekin, 896/1991 Errege Dekretua, Oinarrizko Arau eta Gutxieneko Programei dagokienean, izango litzateke aplikagarri, eta Euskal Funtzio Publikoaren Legea (EFPL) izango litzateke aplikagarri lehenengoak arautzen duen guztian. EFPLren 26.3 artikulua xedatzen duenez, lehiaketa-fasean puntuazioak ezin du gainditu oposizio-faseari dagokion puntuazioaren % 45. Egonkortze eta kontsolidatze jardunbideetan puntuazio garrantzitsua emango zaio Udal honetan burututako jardunari.
  - Horretaz gain, lehiaketa-fasean baloratu behar dira, bai Administrazioan emandako zerbitzuak, baita beste meritu batzuk (titulazioa, ikastaroak). Izan ere, lanpostuan izandako esperientziak ezin du baldintza bakarra izan.
  
- Aldi baterako edo bitarteko langileari jakinarazi behar zaio lanpostu hori deialdiaren barruan sartuko dela.
  
- Deialdian identifika daitezke, edo ez, zein diren eskainiko diren lanpostuak, eta horiei dagozkien kodeak. Dena dela, prozesuaren tipologia aipatu behar da kasu guztietan: kontsolidazioa (Enplegatu publikoaren Oinarrizko Estatutua), egonkortzea (Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea) edo epai batek mugagabe ez-finko izaera aitortzen duen epaiaren ondorengo prozesua,...
  
- Eskaintzako lanpostuen lehentasun-ordena: Administrazio bakoitzari dagokio, irizpide objektiboen arabera; negoziazio kolektiboaren bidez ebatzi behar da.
  
- Hautaketa-prozesuaren ondoren, lanpostuen uzteak eta jabetzeak modu koordinatuan artikulatu behar dira.



TOLOSAKO  
UDALA

- Egonkortze eta kontsolidazio-prozesuak negoziazio kolektiboaren bidez ebatzi behar dira (Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea Enplegatu publikoaren Oinarrizko Estatutua).

## 5.- LANPOSTUAK HORNITZEKO BESTELAKO ERAK

190/2004 Dekretuak, urriaren 13koak, besteak beste, ondoko era hauek arautzen ditu, lanpostuen hornikuntzarako:

- Liburutegiko administrariak UDATEko lanpostua hornitzeko: Giza Baliabideen Birbanaketa, 37 eta 38 artikulua.
- Amortizatuko den Kontuhartzaitzako administrariaren lanpostuko titularra sortuko den Errenta administrariaren lanpostua hornitzeko: Pertsonalaren Berresleipena, 44. art.
- Hirigintza Departamentuko administrariaren lanpostua Kontratazio Departamentuari atxikitzea: Lanpostuaren Berraxikipena, 39 eta 40. artikulua.

Neurri hauek hartzea proposatzen da Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa honetan, ondoan azalduko den prozedura jarraituz.

## 6.- PLANAREN ONARPENA EMATEKO PROZEDURA: IZAPIDETZEA

Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planak onartzeko prozedura bi eremuetan garatu behar da:

### 1. Langileen ordezkariekin negoziazioa

5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarenak, 37.1.c) artikuluan ezarritakoari jarraiki, negoziatzeko gai izango dira, Herri Administrazioetako bakoitzak dituen eskumenei lotuta, bakoitzak bere eremuan eta kasuan-kasuan legez dagokion irismena izanik, giza baliabideak antolatzeko planak eta planifikazio-tresnak.

Testu bereko 33. artikulua ezartzen du negoziazio-prozedura Udalaren ordezkarien eta langileen ordezkarien artean egingo dela. Azkenik, 37.2 artikulua xedatzen du, besteak beste, honako gai hauek ez direla izango nahitaez negoziazioan aztertu beharrekoak, kontsultak egiteko eragozpenik gabe, halere:



TOLOSAKO  
UDALA

- Herri Administrazioen erabakiak, baldin eta beren antolamendu-ahalei eragiten badiete.
- Zerbitzu publikoen erabiltzaileek eta herritarrek dituzten eskubideen erregulazioa.
- Administrazioko egintzak eta xedapenak eratzeko prozedura.
- Zuzendaritzako langileen lan-baldintzak zehazteko erabakiak.
- Hierarkia-harremanari dagozkion zuzendaritza eta kontrol-ahalmenak.

Programaren 1. zirriborroak ondorengo izapidetzea izan du:

- Giza Baliabideetako Batzordean aztertu eta eztabaidatu da, udal talde politiko guztiekin eta langileen ordezkariekin.
- Saio ezberdinak egin dira: Udal Departamentuetako arduradunekin, eta sail bakoitzarekin.
- Prozesu parte-hartzaile bat eman da nahi izan duten langile guztiekin.

## 2. Udaleko Osoko Bilkuraren onespina

Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planaren xedapenek eragina izango dute Lanpostuen Zerrendan eta Langileen Plantilan (lanpostuak sortzea, sailkatzea, ezaugarriak aldatzea, ordainsariak arautzea...), halaber Aurrekontuko 1. Kapitulan.

Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana onartzeko eskumena Osoko Bilkurari dagokio, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2.i) artikuluan ezarritakoaren arabera. Jardunbideari dagokionez, ondoko izapide hauek bete behar dira:

- Pertsonaleko Batzorde Informatiboak diktaminatu behar du Programari dagokion irizpena.
- Programak udalbatza plenoaren behin behineko onespina behar du, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 90 artikuluan eta 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategina onartzen duenak, bere 126 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Espedientea informazio publikoan jarriko da, 15 laneguneko epean, interesatuek aztertu eta iradokizunak edo alegazioak aurkez ahal ditzaten.



TOLOSAKO  
UDALA

- Epea iragan eta alegaziorik aurkeztuko ez balitz, Programa behin betiko onartuzat emango da, eta argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web orrian.
- Alegaziorik aurkezten bada, Batzorde Informatiboak diktaminatuko ditu eta Udalbatzaren Osoko Bilkurak ebatziko ditu. Ondoren, Programaren behin betiko onespeneri buruzko erabakia hartuko du organo horrek.

Horretaz gain, urte bakoitzeko Lan Eskaintza Publikoaren onspena eta plazak zein lanpostuak hornitzeko deialdien onspena alkate-udalburuari dagozkio, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, bere 21.1.g) artikuluan xedatutakoaren arabera. Tolosako Udalaren kasuan, aipaturiko eskumena Tokiko Gobernu Batzarraren esku jarri zen, Alkatetzak 2015eko uztailaren 29an emandako 2015/1.728 Dekretuaren bitartez. Beraz, dokumentuaren eranskinetan azaltzen diren Lan Eskaintza Publikoen eta Hautaketa frogen egutegiak izaera orientatiboa dute, eta eskumena duen organoaren onspena behar dute, indarrean sartu ahal izateko.

## **7.- PROGRAMAZIOA: LAN ESKAINTZA PUBLIKOAK ETA HAUTAKETA-PROZESUAK**

Langileekin parte-hartze prozesua izan ondoren, eta ordezkari sindikalekin negoziazio kolektiboa garatu eta gero, dokumentu honen 3. eranskinean txertatu da Lan Eskaintza Publikoen Programazioa. Horren ordez, hainbat irizpide nagusi hartu dira, salbuespenekin:

- Lan eskaintza publikoak 2018an, 2019an eta 2020an onartuko dira.
- Lan eskaintza publikoak onartzerakoan kontuan hartu behar da Sektore Publikoko Aurrekontuak arautzen dituen une bakoitzeko legeria.
- Lan eskaintza publiko hauek orekatuak izango dira, ahal den neurrian, programatu behar diren hautaketa jardunbide guztiak era orekatuan banatuz.
- Enplegua egonkortzeko jardunbideak ahalik eta era kontzentratuenean gauzatuko dira.
- Irizpide orokor gisa, 2018ko Lan Eskaintza Publikoak ondorengo lanpostuak hartuko ditu bere barne, beti ere aurrekontuei buruzko araudiak xedaturikoa kontuan hartuz:
  - Bete gabeko lanpostuak.
  - 2017ko urtariletik aurrera bitarteko langileekin hornitutako lanpostu hutsak.
  - Langileek eskaturiko prozesuak.



TOLOSAKO  
UDALA

- Gauzagarria den neurrian, 2019. eta 2020. urteetako Lan Eskaintza Publikoetan sartuko dira erabat hutsik, edo hutsik eta egonkortzeko edo kontsolidatzeko dauden lanpostuak, Programa honetan aurreikusitakoak, erdibana, zera, 2019ko LEPan % 50 eta 2020ko LEPan gelditzen den % 50a .
- Kontsolidazio edo egonkortze prozesuek eragiten dituzten langileek izango dute aukera prozesuak aurreratzeko, aurreko urteetako Lan Eskaintza Publikoetan sartuz, beti ere aurreko irizpideak kontutan hartuta.

Tolosako Udaleko Giza Baliabideetako Batzorde Informatiboak, Langileen ordezkarien parte hartzearekin, 2018ko urriaren 18an aztertu zuen Enplegu Planaren Memoria, eta urriaren 25ean egindako bilkuran, irizpena aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza ondokoa izan zen:

Aldeko botoak:

Iñigo Alonso Sarasibar (EAJ-PNV)

Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)

Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)

Lore Agirre Zipitria (EHBildu)

Cristian Fernandez Susin (PSE-EE)

Beraz, Tolosako Udaleko Giza Baliabideetako Batzordeak ondoko irizpenaren onespena proposatzen dio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**LEHENA.-** Onartzea ***Tolosako Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2018-2020 Bitarteko Programaren 1. Fasea (Enplegu Plana)*** izeneko dokumentua.

**BIGARRENA.-** Onartzea 2018ko Lanpostuen Zerrenda eta Programan xedaturiko lanpostuen funtzio eta zereginak.

## 01. ALKATETZA / ALCALDÍA

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN				ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS										ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN		
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUA C.	OHARRAK OBSERV.
1.101	ALKATETZAKO IDAZKARIA / SECRETARIO-A DE ALCALDÍA	E		1	1															39.937,36
1.102	KOMUNIKAZIO ARDURADUNA / RESPONSABLE DE COMUNICACIÓN	E		1	1															40.871,18

Lanpostuak guztira / Total Dotaciones: 2

## 02. ADMINISTRAZIO OROKORRA / ADMINISTRACION GENERAL

### 2.1. IDAZKARITZA OROKORRA / SECRETARÍA GENERAL

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN				ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS										ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN		
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUA C.	OHARRAK OBSERV.
2.101	IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO-A GENERAL	F	S	1	2	C	A1	HN	1	500		4	31.01.1994	30	28.685,16	20%			O	
2.102	ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA / TECNICO-A DE ADMINISTRACIÓN GENERAL	F	N	1	1	C	A1	AG	3	531		4	31.01.1994	24	19.027,96				O	
2.103	KONTRATAZIOKO AOT / TAG DE CONTRATACIÓN	F	N	1	1	C	A1	AG	3	602		4	30.06.2020	24	19.027,96				V	HPS
2.104	ETXEBIZITZA ETA ONDARE KUDEAKETARAKO TEKNIKARIA / TÉCNICO-A DE GESTIÓN DE VIVIENDA Y PATRIMONIO	F	N	1	1	C	A2	AG	3	400		4	30.06.2020	23	17.835,31				V	HPS
2.105	ERROLDA ETA ESTADISTIKAKO ADMINIST. / ADMVO-A DE EMPADRONAMIENTO Y ESTADIST.	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	31.01.1994	17	13.909,28				CS	
2.106	HIGIEZINEN KUDEAKETARAKO ADMINIST. / ADMVO-A DE GESTIÓN DE INMUEBLES	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	31.01.1994	17	13.909,28				O	
2.107	OSOKO BILKURETAKO IDAZKARI ADMINIST. / ADMVO-A DE SECRETARÍA Y PLENOS	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	31.01.1994	17	13.909,28				O	



## 2.2. ERREGISTROA ETA INFORMAZIOA / REGISTRO E INFORMACION

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN		ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS											ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN				
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUA C.	OHARRA K OBSERV.	
2.201	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	F	N	1	1	C	C1/C2	AG	4	300		3	19.06.1998	17	13.909,28					O	
2.202	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	30.06.2019	17	13.909,28					V	HPS
2.203	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	30.06.2019	17	13.909,28					V	HPS
2.204	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	30.06.2019	17	13.909,28					V	HPS
2.205	JAKINARAZLEA-HARRERAGILEA / NOTIFICADOR-A - RECEPCIONISTA	F	N	1	1	C	E	AG	6	100		2	31.01.1994	12	12.227,63		1.039,36			O	

## 2.3. GIZA BALIABIDEAK / RECURSOS HUMANOS

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN		ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS											ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN				
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUA C.	OHARRA K OBSERV.	
2.301	GIZA BALIABIDEETAKO AOT / TAG DE RECURSOS HUMANOS	F	N	1	1	C	A1	AG	3	531		4	29.03.2001	25	19.971,14		1.532,58			O	
2.302	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	31.01.1994	17	13.909,28					O	
2.303	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	30.01.2007	17	13.909,28					O	

## 2.4. INFORMATIKA / INFORMÁTICA

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN		ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS											ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN			
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TTT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUA C.	OHARRA K OBSERV.
2.401	INFORMATIKARIA / INFORMATICO-A	F	N	1	1	C	A1	AE	3	529		4	30.06.2020	24	18.999,54				OV	HPS
2.402	INFORMATIKARI TEKNIKARI LAGUNTZAILEA / TECNICO-A AUXILIAR INFORMATICO	F	N	1	1	C	C1	AE	4	302		3	31.01.1994	18	14.560,98		2.145,78		O	
2.403	ESPEDIENTE KUDEATZAILEA / ADMINISTRADOR-A DE EXPEDIENTES	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	29.03.2001	18	14.382,90		456,26		O	

Lanpostuak guztira / Total Dotaciones: 18

## 03. OGASUNA ETA FINANTZA ADMINISTRAZIOA / HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN FINANCIERA

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN		ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS											ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN			
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TTT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUA C.	OHARRA K OBSERV.
3.101	KONTUHARTZAILEA / INTERVENTOR/A	F	S	1	2	C	A1	NH	2	500		4	31.01.1994	30	28.685,16	20%			O	
3.102	KONTUHARTZAILETZAKO TEKNIKARIA / TECNICO-A DE INTERVENCIÓN	F	N	1	1	C	A1	AG	3	500		4	31.01.1994	24	19.747,70				O	
3.103	DIRUZAINA/TESORERO-A	F	N	1	1	C	A1	NH	2	602		4	30.06.2019	24	19.027,96				V	HPS
3.104	DIRUZAINZAKO ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A DE TESORERÍA	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	31.01.1994	20	15.603,98		703,36		O	
3.105	KONTABILITATE ETA EROSKETA ADMINIST. / ADMVO-A DE CONTABILIDAD Y COMPRAS	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	30.06.2019	18	14.396,62				OV	
3.106	KONTUHARTZAILETZAKO ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A DE INTERVENCIÓN	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	30.06.2022	17	13.909,28				OV	
	KONTUHARTZAILETZAKO ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A DE INTERVENCIÓN	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	31.01.1994	17	13.909,28		1.014,30		O	
3.107	ERRENTA TEKNIKARIA / TÉCNICO-A DE RENTAS	F	N	1	1	C	A2	AG	3	431		3	27.03.2007	20	16.131,50				O	

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN		ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS											ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN			
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITU A C.	OHARRA K OBSERV.
3.108	ERRENTA ADMINISTRARIA/ ADMINISTRATIVO-A DE RENTAS	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	30.06.2019	17	13.909,28		1.014,30		V	HPS / RE
3.109	ERRENTA ADMINISTRARIA/ ADMINISTRATIVO-A DE RENTAS	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	30.06.2019	17	13.909,28				V	HPS
3.110	ZERGARIA / RECAUDADOR-A	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	30.09.2014	18	14.654,92				O	
<b>Lanpostuak guztira / Total Dotaciones: 10</b>																				

## 04. KULTURA, JAIK ETA GAZTERIA / CULTURA, FIESTAS Y JUVENTUD

### 4.1. KULTURA / CULTURA

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN		ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS											ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN			
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITU A C.	OHARRA K OBSERV.
4.101	KULTURA, JAIK ETA GAZTERIAKO BURUA / JEFE-A DE CULTURA, FIESTAS Y JUVENTUD	F	N	1	1	C	A1	AE	3	500		4	29.09.2015	24	19.705,56		2.351,58		O	
4.102	ARTXIBOZAINA / ARCHIVERO-A	F	N	1	1	C	A1	AE	3	545		4	31.01.1994	23	16.762,72				O	
4.103	LIBURUZAINA/ BIBLIOTECARIO-A	F	N	1	1	C	A2	AG	4	450		4	31.01.1994	20	16.688,42				O	
4.104	LIBURUZAINA/BIBLIOTECARIO-A	F	N	1	1	C	A2	AG	4	450		4	30.06.2022	20	16.688,42				OV	
4.105	KULTURA KUDEAKETAKO TEKNIKARIA/ TECNICO DE GESTION DE CULTURA	F	N	1	1	C	A2	AG	3	400		4	30.06.2021	20	16.233,70				V	HPS
	KULTURA ETA JAIETAKO KOORDINATZAILEA / COORDINADOR-A DE CULTURA Y FIESTAS	F	N	1	1	C	C1	AE	4	300		3	31.01.1994	18	14.607,88		%4		O	
4.106	KULTURA ETA GAZTERIAKO ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A DE CULTURA Y JUVENTUD	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	31.01.1994	18	14.396,62				O	
4.107	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	30.06.2019	17	13.909,28				V	HPS
	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	L	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	31.01.1994	17	13.909,28				OV	

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN		ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS											ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN			
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUA C.	OHARRA K OBSERV.
4.108	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	L	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	31.01.1994	17	13.909,28				O	
4.109	LIBURUTEGIKO ADMINISTRARIA/ ADMINISTRATIVO-A DE BIBLIOTECA	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	31.01.1994	17	13.909,28				O	
4.110	LIBURUTEGIKO ADMINISTRARIA/ ADMINISTRATIVO-A DE BIBLIOTECA	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	31.01.1994	17	6.954,64				O	50%
4.111	<a href="#">LAGUNTZAILE BALIOANIZTUNA / AYUDANTE-A POLIVALENTE</a>	F	N	1	1	C	C2	AG	5	200		3	30.06.2022	17	13.390,02				V	
4.112	UDAL ERAIKINETAKO ATEZAINA/ CONSERJE DE EDIFICIOS MUNICIPALES	F	N	1	1	C	C2	AG	5	200		2	31.01.1994	12	12.108,74				O	

## 4.2. GAZTERIA / JUVENTUD

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN		ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS											ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN			
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUA C.	OHARRA K OBSERV.
4.201	GAZTERIAKO TEKNIKARIA / TECNICO-A DE JUVENTUD	F	N	1	1	C	A2	A G	3	300		4	30.06.2021	20	16.233,70				OV	HPS

### 4.3. MUSIKA ESKOLA / ESCUELA DE MUSICA

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN				ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS										ORDAINKETA RETRIBUCIÓN			EGOERA SITUACIÓN			
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TTT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUAC.	OHARRA K OBSERV.
4.301	MUSIKA ESKOLAKO ZUZENDARIA / DIRECTOR-A DE LA ESCUELA DE MUSICA	L	N	1	1	C	A2	AE	3	700		3	31.01.1994	20	17.446,38		827,68		CS	
4.302	MUSIKA ESKOLAKO IDAZKARIA /SECRETARIO-A DE LA ESCUELA DE MUSICA	L	N	1	1	C	A2	AE	3	700		3	31.01.1994	19	15.401,96				CS	
4.303	TXISTU IRAKASLEA ETA TXISTULARI BANDA KO ZUZENDARIA / PROFESOR-A DE TXISTU Y DIRECTOR-A DE LA BANDA DE TXISTULARIS	L	N	1	3	C	A2	AE	3	700		3	28.03.2018	19	9.786,38				OV	68%
4.304	MUSIKA ESKOLAKO IRAKASLEA / PROFESOR-A DE LA ESCUELA DE MUSICA	L	N	5	1	C	A2	AE	3	700		3	31.01.1994	19	14.101,50				O	
4.305	KLARINETE IRAKASLEA/ PROFESOR-A DE CLARINETE	L	N	1	3	C	A2	AE	3	700		3	26.11.2011	19	10.576,13				OV	75%
4.306	BIOLA IRAKASLEA / PROFESOR-A DE BIOLA	L	N	1	3	C	A2	AE	3	700		3	29.12.2000	19	7.332,78				OV	52%
4.307	SAXOFOI IRAKASLEA / PROFESOR-A DE SAXOFÓN	L	N	1	3	C	A2	AE	3	700		3	31.01.1994	19	8.460,90				OV	60%
4.308	BIOLONTXELO IRAKASLEA / PROFESOR-A DE BIOLONCHELO	L	N	1	3	C	A2	AE	3	700		3	31.01.1994	19	3.948,42				OV	28%
4.309	PERKUSIO IRAKASLEA / PROFESOR-A DE PERCUSIÓN	L	N	1	3	C	A2	AE	3	700		3	29.12.2000	19	7.332,78				OV	52 %
4.310	TRONPA IRAKASLEA / PROFESOR-A DE TROMPA	L	N	1	3	C	A2	AE	3	700		3	31.01.1994	19	2.820,30				OV	20%
4.311	FLAUTA IRAKASLEA /PROFESOR-A DE FLAUTA	L	N	1	3	C	A2	AE	3	700		3	31.01.1994	19	7.332,78				OV	52%
4.312	DULTZAINA IRAKASLEA / PROFESOR-A DE DULZAINA	L	N	1	3	C	A2	AE	3	700		3	29.12.2000	19	5.640,60				V	40%
4.313	TRONPETA IRAKASLEA / PROFESOR-A DE TROMPETA	L	N	1	3	C	A2	AE	3	700		3	31.01.1994	19	6.909,74				OV	49%
4.314	OBOE IRAKASLEA / PROFESOR-A DE OBOE	L	N	1	3	C	A2	AE	3	700		3	29.12.2000	19	5.076,54				OV	36%
4.315	KONTRABAXU IRAKASLEA / PROFESOR-A DE CONTRABAJO	L	N	1	3	C	A2	AE	3	700		3	29.12.2000	19	2.820,30				OV	20%
4.316	KORAL IRAKASLEA / PROFESOR-A DE CORAL	L	N	1	3	C	A2	AE	3	700		3	29.12.2000	19	5.076,54				OV	36%

#### 4.4. BANDA ETA TXISTULARIAK / BANDA Y TXISTULARIS

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN		ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS											ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN			
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUAC.	OHARRA K OBSERV.
4.401	MUSIKA BANDA KO ZUZENDARIA / DIRECTOR-A DE BANDA DE MÚSICA	L	N	1	3	C	A2	A E	3			3	26.12.2011	20	3.972,64				OV	25% (1)
4.402	TXISTULARIA / TXISTULARI	L	N	5	3	C	A2	A E	3			3		17	2.060,52				OV	16%

Lanpostuak guztira / Total Dotaciones: 40

### 05. HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA / URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

#### 5.1. HIRIGINTZA

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN		ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS											ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN			
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUAC.	OHARRA K OBSERV.
5.101	HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBIT. BURUA / JEFE-A DE URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS	F	S	1	2	C	A1	A E	3	500		4	30.06.2021	28	28.195,44	20%			OV	
	HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBIT. LETRATUA / LETRADO DE URBANISMO, OBRAS Y SER.	F	S	1	2	C	A1	A E	3	531		4	31.01.1994	24	18.705,12	16%			OV	
5.102	HIRIGINTZAKO AOT/ TAG DE URBANISMO	F	N	1	1	C	A1	A E	3	531		4	30.06.2020	24	19.027,96				V	HPS
5.103	ARKITEKTOA / ARQUITECTO-A	F	N	1	1	C	A1	A E	3	548		4	30.06.2020	26	22.545,88				V	HPS
5.104	ARKITEKTOA / ARQUITECTO-A	F	N	1	1	C	A1	A E	3	548		4	30.06.2019	26	22.545,88				OV	
	ADMINISTRARI BURUA / JEFE-A ADMINISTRATIVO-A	F	N	1	1	C	C1	A G	4	300		3	31.01.1994	20	16.985,36				O	
5.105	ADMINISTRARIA ETA ARTXIBOKO KUDEATZAILEA / ADMVO-A Y GESTOR-A DE ARCHIVO	F	N	1	1	C	C1	A G	4	300		3	30.06.2019	17	16.093,64				V	HPS
5.106	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	F	N	1	1	C	C1	A G	4	300		3	31.01.1994	17	13.909,28		150,36		O	
5.107	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	F	N	2	1	C	C1	A G	4	300		3	30.01.2007	17	13.909,28				O	
5.108	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	F	N	1	1	C	C1	A G	4	300		3	29.03.2001	17	13.909,28				O	

## 5.2.INGURUMENA / MEDIO AMBIENTE

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN				ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS										ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN		
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUA C.	OHARRA K OBSERV.
5.201	INGURUMENEN ETA LANDA EREMUKO TEKNIKARIA/ TECNICO MED AMB Y ZONA RURAL	F	N	1	1	C	A2	AE	3	440		4	30.06.2021	20	15.854,72				OV	HPS

## 5.3. OBRAK ETA ZERBITZUAK / OBRAS Y SERVICIOS

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN				ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS										ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN		
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUA C.	OHARRA K OBSERV.
5.301	ARKITEKTO TEKNIKOA / ARQUITECTO TECNICO-A	F	N	1	1	C	A2	A E	3	449		3	31.01.1994	20	17.768,00		4.996,58		O	
5.302	ARKITEKTO TEKNIKOA/ ARQUITECTO-A TÉCNICA	F	N	1	1	C	A2	A E	3	449		4	30.06.2021	20	17.768,00				V	HPS
5.303	INGENIARIA / INGENIERO-A	F	N	1	1	C	A1	A E	3	542		4	30.12.2014	26	22.043,28			10%	O	
5.304	INGENIARI TEKNIKOA / INGENIERO-A TÉCNICO-A	F	N	1	1	C	A2	A E	3	444		4	30.06.2020	20	16.177,46				OV	HPS / CT: 7.132,46
	AGENTEA / AGENTE	F	N	1	1	C	C2	A E	5	200		3	26.12.2011	19	16.606,66	24%			O	
5.305	OBRA PUBLIKOETAKO INGENIARI TEKNIKOA /ITOP	F	N	1	1	C	A2	A E	3	444		4	30.06.2021	20	17.768,00				V	HPS
5.306	IKUSKATZAILEA-DELINEANTEA / INSPECTOR/A-DELINEANTE	F	N	1	1	C	C1	A E	4	325		3	28.09.2010	18	14.996,38		131,32		OV	
5.307	OBRA LANTALDEKO ARDURADUNA/ENCARGADO-A DE LA BRIGADA DE OBRAS	F	N	1	1	C	C2	A E	5	200		2	30.06.2021	16	18.453,68			35%	CS	
5.308	PEOIA / PEÓN	F	N	1	1	C	E	A E	7	100		1		12	13.217,54				O	
5.309	PEOIA / PEÓN	F	N	1	1	C	E	A E	7	100		1		12	13.217,54				O	
5.310	PEOIA / PEÓN	L	N	1	1	C	E	A E	7	100		1		12	13.217,54				V	
	PEOIA / PEÓN	L	N	1	1	C	E	A E	7	100		1		12	13.217,54				OV	

### 5.3. OBRAK ETA ZERBITZUAK / OBRAS Y SERVICIOS

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN				ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS										ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN		
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TTT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOERA SITUACIÓN	OHARRA K OBSERV.
	GARBIKETAKO LANTALDEKO ARDURADUNA / RESPONSABLE DE BRIGADA DE LIMPIEZA	F	N	1	1	C	C2	A E	6	200		2	31.01.1994	14	12.608,26				O	
	GARBIKETAKO PEOIA/ PEON DE LIMPIEZA	F	N	1	1	C	E	A E	7	100		1		13	12.952,38				O	
5.311	OBRA LANTALDEKO OFIZIALA / OFICIAL BRIGADA DE OBRAS	F	N	1	1	C	C2	A E	6	200		2	31.01.1994	14	13.847,39				V	RE
5.312	PEOIA / PEÓN	F	N	1	1	C	E	A E	7	100		1		13	12.952,38				V	RE
5.314	PEOIA / PEÓN	L	N	1	1	C	E	A E	7	100		1		12	13.217,54				OV	
5.315	GIDARIA /CONDUCTOR	L	N	1	1	C	C2	A E	7	200	C	1		13	14.390,46				O	
5.316	GIDARIA /CONDUCTOR	L	N	1	1	C	C2	A E	7	200	C	1		13	14.390,46				OV	
5.317	PEOIA / PEÓN	L	N	4	1	C	E	A E	7	200	C	2	30.06.2019	12	13.217,54				V	
5.318	ZUZENDARI TEKNIKOA / DIRECTOR-A TECNICO-A	F	N	1	1	C	A2	A E	7	446		3	31.01.1994						O	Tol / 55.459,76
5.319	ENKARGATUA / ENCARGADO	F	N	1	1	C	C1	A E	7			2	19.06.1998						O	Tol / 46.990,56
5.320	UR ETA ARGIKO 1. OFIZIALA / OFICIAL DE 1º DE AGUA Y LUZ	F	N	4	1	C	D	A E	7		C	1							O	Tol / 35.821,40
5.321	KOMERTZIALIZAZIO AGENTEA / AGENTE COMERCIALIZADOR	F	N	1	1	C	C2	A E	7	200				11	17.579,38				O	
5.322	UDAL ERAIKINETAKO ARDURADUNA / RESPONSABLE DE EDIFICIOS MUNICIPALES	F	N	1	1	C	E	A E	6	100		2	30.09.2002	14	10.150,42				OV	
5.323	ESKOLETAKO ATEZAINA / PORTERO-A DE ESCUELAS	F	N	1	1	C	E	A E	7	100		2	31.01.1994	13	12.901,70		382,20		O	
5.324	ESKOLETAKO ATEZAINA / PORTERO-A DE ESCUELAS	F	N	1	1	C	E	A E	7	100		2	28.12.2010	13	12.901,70				CS	

Lanpostuak guztira / Total Dotaciones: 39



**06. GARAPEN EKONOMIKOA, TURISMOA, MERKATARITZA, AZOKAK ETA ENPLEGUAREN SUSTAPENA / DESARROLLO ECONÓMICO, TURISMO, COMERCIO, FERIAS Y PROMOCIÓN DEL EMPLEO**

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN		ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS											ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN			
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUAC.	OHARRA K OBSERV.
6.101	G.EKONOM, TURISMOA, MERKATARITZA, AZOKAK ETA ENPLEGUAREN SUSTAPENEN BURUA / JEFE-A DESARR., TURISMO, COMERCIO, FERIAS Y PROMOC. DEL EMPLEO	F	N	1	1	C	A1	A G	3	500		4	30.06.2022	24	18.041,52				V	HPS
6.102	ENPLEGUKO TEKNIKARIA / TECNICO-A DE EMPLEO	F	N	1	1	C	A2	A G	3	400		3	31.01.1994	24	17.152,38				O	
6.103	MERKATARITZA, FERIAK ETA TURISMOKO ADMINISTRARIA / ADMVO-A COM. FERIAS Y TUR.	F	N	2	1	C	C1	A G	4	300		3	19.06.1998	17	13.909,28			2%	O	
6.104	MERKATARITZA, FERIAK ETA TURISMOKO ADMINISTRARIA / ADMVO-A COM. FERIAS Y TUR.	F	N	2	1	C	C1	A G	4	300		3	30.06.2019	17	13.909,28			2%	OV	

Lanpostuak guztira / Total Dotaciones: 4

**07. GIZARTE ZERBITZUAK / SERVICIOS SOCIALES**

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN		ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS											ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN			
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUAC.	OHARRA K OBSERV.
7.101	GIZARTE ZERBITZUETAKO BURUA / JEFE-A AREA SERVICIOS SOCIALES	F	S	1	1	C	A2	A E	3	432		4	31.01.1994	25	19.720,26				O	
7.102	GIZARTE LANGILEA / TRABAJADOR-A SOCIAL	F	N	3	1	C	A2	A E	3	432		3	30.06.2022	19	15.653,82				V	
	GIZARTE LANGILEA / TRABAJADOR-A SOCIAL	L	N	1	1	C	A2	A E	3	432		3	27.12.2007	19	15.653,82				OV	
	GIZARTE LANGILEA / TRABAJADOR-A SOCIAL	L	N	2	1	C	A2	A E	3	432		3	02.10.2018	19	15.653,82				OV	
7.103	GIZARTE LANGILEA / TRABAJADOR-A SOCIAL	F	N	1	1	C	A2	A E	3	432		4	30.06.2019	19	15.653,82				V	HPS
7.104	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	F	N	1	1	C	C1	A G	4	300		3	31.01.1994	18	14.878,50				O	
7.105	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	F	N	2	1	C	C1	A G	4	300		3	30.06.2022	17	13.909,28				V	
	GIZARTE ZERBITZUETAKO ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A DE SERVICIOS SOCIALES	L	N	2	1	C	C1	A G	4	300		3	02.10.2018	17	13.909,28				OV	

Lanpostuak guztira / Total Dotaciones: 8

## 08. BERDINTASUNA / IGUALDAD

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN				ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS										ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN		
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUA C.	OHARRA K OBSERV.
8.101	BERDINTASUN TEKNIKARIA / TECNICO-A DE IGUALDAD	F	N	1	1	C	A2	A G	3	451		4	30.06.2021	20	16.206,82				OV	HPS
8.102	BERDINTASUN TEKNIKARIA / TECNICO-A DE IGUALDAD	F	N	1	1	C	A2	A G	3	451		4	30.06.2020	20	16.206,82				V	HPS

**Lanpostuak guztira / Total Dotaciones: 2**

## 09. EUSKARA ETA HEZKUNTZA / EUSKERA Y EDUCACIÓN

### 9.1. EUSKARA /EUSKERA

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN				ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS										ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN		
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUA C.	OHARRA K OBSERV.
9.101	EUSKARA ETA HEZKUNTZAKO BURUA / JEFE-A DE AREA DE EUSKARA Y EDUCACIÓN	F	S	1	1	C	A1	A G	3	600		4	T.G.	25	19.971,14				OV	
9.102	HIZKUNTZ-NORMALIZATZAILEA / NORMALIZADOR-A LINGÜÍSTICO-A	L	N	1	1	C	A2	A G	3	400		4	T.G.	19	15.155,70				O	
9.103	ITZULTZAILEA / TRADUCTOR-A	L	N	1	1	C	A2	A G	3	400		4	T.G.	19	15.155,70				CS	
9.104	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	L	N	1	1	C	C1	A G	4	300		3	31.01.1994	17	13.909,28				OV	

## 9.2 EUSKALTEGIA / EUSKALTEGI

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN						ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS								ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN			
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUAC.	OHARRA K OBSERV.	
9.201	IRAKASLE-ZUZENDARIA / PROFESOR-A DIRECTOR-A	L	N	1	1	C	A2	A E	3	400		4	T.G.	20	17.252,62					OV	
9.202	IRAKASLE-IDAZKARIA / PROFESOR-A SECRETARIO-A	L	N	1	1	C	A2	A E	3	400		4	T.G.	19	14.910,70					OV	
9.203	IRAKASLEA / PROFESOR-A	L	N	5	1	C	A2	A E	3	400		4	T.G.	19	14.076,72					O	
9.204	IRAKASLEA / PROFESOR-A	L	N	2	1	C	A2	A E	3	400		4	T.G.	19	14.076,72					OV	

Lanpostuak guztira / Total Dotaciones: 13

## 10. KIROLAK / DEPORTES

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN						ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS								ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN			
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUAC.	OHARRA K OBSERV.	
10.101	KIROLETAKO BURUA / JEFE DE AREA DE DEPORTES	F	N	1	1	C	A1	AG	3	600		4	31.01.1994	24	18.041,52					O	
10.102	KIROL INSTALAZIOEN KUDEATZAILEA / GESTOR-A DE INSTALACIONES DEPORTIVAS	F	N	1	1	C	A2	AG	3	600		4	30.06.2020	23	20.598,41					V	HPS
10.103	ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO-A	F	N	1	1	C	C1	AG	4	300		3	30.06.2020	17	13.909,28					OV	
10.104	KIROLETAKO MONITOREA / MONITOR DE DEPORTES	F	N	3	1	C	C1	AE	7	200		2	31.01.1994	14	13.587,98					O	
10.105	KIROLETAKO MONITOREA / MONITOR DE DEPORTES	F	N	1	1	C	C2	AE	7	200		2	31.01.1994	14	13.398,98			4%		O	
	KIROL ERAIKINETAKO ARDURADUNA / ENCARGADO DE INSTALACIONES DEPORTIVAS	F	N	1	1	C	C2	AE	6	200		2	31.01.1994	13	13.837,60					V	
10.106	KIROL ERAIKINETAKO ARDURADUNA / ENCARGADO DE INSTALACIONES DEPORTIVAS	F	N	1	1	C	E	AE	6	100		2	31.01.1994	13	13.837,60			6%		O	
10.107	KIROL ERAIKINETAKO HARRERAGILEA / RECEPCIONISTA INSTALACIONES DEPORTIVAS	F	N	2	1	C	C2	AE	5	100		2	31.01.1994	14	12.740,00			4%		O	

Lanpostuak guztira / Total Dotaciones: 11

## 11. SEGURTASUNA / SEGURIDAD

### 11.1. UDALTZAINGOA / POLICIA LOCAL

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN		ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS											ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN			
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOERA SITUACIÓN	OHARRA K OBSERV.
11.101	OFIZIALA / OFICIAL	F	S	1	2	C	C1	A E	7	300	A2/B/E	3	31.01.1994	22	21.103,88	20%			CS	
11.102	OFIZIALORDEA / SUBOFICIAL	F	N	1	2	C	C1	A E	7	300	A2/B/E	2	29.12.2011	21	19.113,78	20%			CS	
11.103	LEHEN AGENTEA / AGENTE 1º -	F	N	5	1	C	C1/C2	A E	7	200	A2/B/E	2	31.01.1994	17	16.950,64				O	4 O y 1 CS
11.104	AGENTE TRAFIKO KOORDINATZAILEA / AGENTE COORDINADOR DE TRAFICO	F	N	1	1	C	C1	A E	7	300	A27B/E	2	31.12.2018	14	15.827,56				O	
11.105	UDALTZAINA / AGENTE	F	N	19	1	C	C1/C2	A E	7	200	A2/B/E	2	31.01.1994	14	15.827,56				O	
11.106	UDALTZAINA / AGENTE	L	N	1	1	C	C1/C2	A E	7	200	A2/B/E	2	31.01.1994	14	15.827,56				O	
11.107	UDALTZAIN ADMINISTRARIA / AGENTE ADMINISTRATIVO-A	F	N	1	1	C	C1/C2	A E	7	200	A2/B/E	2	31.01.1994	14	15.827,56				O	
11.108	UDALTZAIN ADMINISTRARIA / AGENTE ADMINISTRATIVO-A	F	N	1	1	C	C1/C2	A E	7	200	A2/B/E	2	30.09.2002	14	15.827,56				O	

Lanpostuak guztira / Total Dotaciones: 30

## 12. PARTAIDETZA, GARDENTASUNA ETA DATUAK BABESTEKO DELEGARITZA / PARTICIPACIÓN, TRANSPARENCIA Y DELEGADO DE PROTECCION DE DATOS

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN				ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS										ORDAINKETA RETRIBUCIÓN			EGOERA SITUACIÓN			
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOERA SITUACIÓN	OHARRA K OBSERV.
12.101	PTZA, GARD ETA DB DELEGATU AOT / TAG DE PATRC, TRANSP Y DELEGADO DE PD	F	N	1	1	C	A1	A G	3	531		4	30.06.2021	24	18.705,12				V	HPS / Comp. det
12.102	INFORMAZIO KUDEATZALEA / GESTOR-A DE INFORMACIÓN	F	N	1	1	C	C1	A E	3	300		3	31.01.1994	17	13.306,30				O	

Lanpostuak guztira / Total Dotaciones: 2



TOLOSAKO  
UDALA

**HIRUGARRENA.-** Onartzea dokumentuaren eranskinetan jasotzen diren Lan Eskaintza Publikoen eta plaza zein lanpostuak hornitzeko jardunbideen izaera orientagarria, haien onspena organo eskudunak ebatzi behar duelako. Kasu guztietan, Lan Eskaintza Publikoek errespetatu beharko dute unean uneko araudia, sektore publikoko aurrekontuei buruzkoa.

**LAUGARRENA.-** Horretaz gain, Udalbatzaren Osoko Bilkurak konpromisoa hartzen du abian jarri den prozesuari amaiera jarriko diola 2018-2020 urteetan, ondoko hauek betez:

- Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programaren 1. Fasea (Enplegu Plana) behin betikoz onartzea.
- Udaleko Lanpostu eta Departamentuen azterketa gauzatzea, hain zuzen:
  - Lanpostuen funtzioak eta zereginak berraztertzea, oraingo errealitatea eta beharrak kontuan hartuta.
  - Departamentuen ebaluazioa egitea, bakoitzean dauden beharren aurrean irtenbideak proposatuz. Kasu honetan, ezinbestekoa da departamentu bakoitzaren partaidetza bermatzea.
  - Departamentu bakoitzaren eta Udal osoaren antolaketa jasotzen duen organigrama berraztertzea, garai berriekin bat datorren organigrama finkatuz.
- Lanpostuen, departamentuen, eta Udalaren antolaketa zehaztu ondoren, lanpostuen balorazio prozesu bat gauzatzea, zeregin eta funtzioen benetako edukia kontutan hartzen dituen. Edonola ere, lanpostuen balorazioetatik sorturiko emaitzak aplikatzerakoan, kontuan hartu beharko da uneko aurrekontuei buruzko legeria.
- 

**BOSGARRENA.-** Hartutako ebazpenak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

**SEIGARRENA.-** Espedientea informazio publikoan jartzea eta interesatuei entzunaldia ematea hamabost laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita. Interesatuek espedientea aztertu eta alegazio edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte aipaturiko epean.

Alegaziorik aurkeztu ezean, ***Tolosako udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2018-2020 Bitarteko Programaren 1. Fasea (Enplegu Plana)*** izeneko dokumentua behin betikoz onartutzat emango da, irizpen honetan jasotako terminoetan. Bestelako kasuan, espedientea Udalbatzaren Osoko Bilkuraren aurrean aurkeztuko da, hark alegazioak ebatzi eta dokumentuari behin betiko onspena eman diezaion. Ondoren,



TOLOSAKO  
UDALA

dokumentuaren laburpena argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, iragarki taulan, eta Tolosako Udalaren web orrian.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **hasierako onarpena** eman dio Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko programaren 1. faseari: Enplegu Plana 2018-2020.

**6. Onartzea Tolosa eta Charleville. Mézièresen arteko senidetze hitzarmena.**      **6. Aprobación del convenio de hermanamiento de Tolosa y Charleville-Mézières.**

Partehartzeak:

... Alkatea: *“Orain arte Txotxongiloak izan dira Charleville eta Tolosako herrien arteko harremanaren oinarria. Charleville- Mézières herrian ospatzen diren Munduko Txotxongilo Antzerki Jaialdian Tolosak beti parte hartu izan duen horretan. Baina badira hilabete batzuk atzera bi herrien artean lanketa batean murgilduta gaudena adiskidetasun hori hitzarmen ofizial baten bidez sustatzeko. Azaroaren 16an sinatuko da Tolosan eta urtarrilean izango da Frantzia iparraldean anaikidetasun horren sinadura. Hitzarmenak helburu bezala du bi herriak are eta gehiago gerturatzea, harremanak sendotzea eta txotxongiloetatik haratago elkar eragiten diguten gai horietan sakontzea. Lan mahaia sortu zen 2017 urte amaieran lanketa hori gorpuzteko. Bertan, garapen ekonomikoko eta kultur arloko udalordezkariez gain, Tolomendi Landa Garapeneko elkarteak parte hartu zuen. Baita, Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuak eta Tolosaldea Garatzen Garapen Agentziak ere. Pasa den 2017ko azaroan, Titirijai txotxongilo jaialdiaren aitzakian, Charleville Mézièreseko udal ordezkariak Tolosara bertaratu ziren. Hartu-eman honen emaitzarekin osatutako dokumentua jasota dago 1 eranskinean. Bestalde, 2018ko maiatzean, senidetze hitzarmenaren oinarri izango diren arloak ezagutzeko ordezkari tolosarrak igo ginen Frantziara. Bertan kultur arloko guneak, herria bera, eta bertako egun ekonomikoa ezagutzeko aukera izan genuen. Bertan ikusitakoarekin eta Tolosan hitz egindakoa jasoz, sortu da pixka bat senidetzea honen oinarria. Hartu eman honetatik elkarlanerako aurreikusitako proiektu edota lan lerro nagusi dira: Industria 4.0, 3D fabrikazio aditiboa, gastronomia, ikasle eta*



TOLOSAKO  
UDALA

*formakuntza trukaketa, lehen sektorea edota turismoarekin zerikusia izango luketenak. Behin azaroaren 16an senidetze hitzarmena sinatuta, interesgune diren alorreko plangintzak jarriko dira abian, bi herrien ezagutza, harremanak eta aukerak elkarbanatzeko. Jarraian hitzarmenaren proposamena irakurri du.”*

... Iñaki Irazalbalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Egia esan guk beti defenditu izan dugu herrien arteko senidetzea, adiskidetze eta horrelako prozesuak behar dutela mami bat, arrazoi bat, ez soilik oportunitate politiko hutsaren truke. Horregatik aurreko legegintzaldian Uztaritzetik senidetze hitzarmena nahiko egona zena indarrean jarri genuen, balioan jarri genuen eta gauzak bideratzen hasi ginen. Oraingo udal taldeak ere bide horretan jarraitu du. Kasu honetan, Charleville herriarekin planteatzen den senidetze hitzarmen honek ere mamia dauka, helburuak dauzka eta bai Tolosak eta bai Charleville Mezieresek ondorio positiboak atera daitezke txotxongilo mundutik aparte. Neronek pertsonalki azpimarratuko nuke irakaskuntza, hezkuntza, lanbide hezkuntzaren munduan lortu daitezkeen sinergia eta egin dezakegun lanak. Hori guztiagatik, guk babestuko dugu proposamen hau eta espero dugu hitzarmen honek bide luzea izatea, produktiboa eta gure bi herriak eta kulturak, bi pertsonen elkar ezagutzeko balio izatea.”*

-----

## **HERRITARREKIKO HARREMANAK, PARTAIDETZA ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEA BATZORDEAREN 2018KO URRIAREN 15EKO IRIZPENA.**

Txotxongiloak ziren orain arte elkar batzen zituena bi herriak. Charleville- Mézières (Frantzia) hirian ospatzen da bi urtetik behin Munduko Txotxongilo Antzerki Jaialdia, Tolosa parte izan ohi delarik. Baina badira hilabeteak bi herriak beste lanketa batean murgilduta daudena: adiskidetasun hitzarmen ofizial bat landu dute; azaroaren 16an sinatuko dena Tolosan eta urtarrilean Frantzian.

Hitzarmenak helburu du bi herriak are gehiago gerturatu, harremanak sendotu eta txotxongiloetatik haratago elkar eragiten dieten gaietan sakontzea.

Lan mahaia sortu zen 2017 amaieran lanketa hori gorpuzteko. Bertan, garapen ekonomikoko eta kultur arloko udal-ordezkariez gain, Tolomendi Landa Garapen elkarteak, Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutua eta Tolosaldea Garatzen Garapen Agentzia ere barne dira.

Jada pasaden 2017ko azaroan, Titirijai txotxongilo jaialdia aitzakia, Charleville Mézièreseko udal ordezkariak bertaratu ziren Tolosara (*hartu eman honen emaitza jasotzen duen dokumentua eransten da I. Eranskin gisa*), eta 2018ko maiatzean, senidetze hitzarmenaren oinarri izango diren alorrak ezagutzeko, ordezkari tolosarrak igo ziren Frantziara. Bertan kultur arloko guneak, herria bera, eta bertako ehun ekonomikoa ezagutzeko beta izan zuten. Bertan ikusitakoarekin eta Tolosan hitz egindakoa jasoz, txosten bat prestatu zuten Tolosako lan mahaiko kideek (*II. Eranskin gisa jasotzen dena*).

Hartu eman honetatik elkarlanerako aurreikusitako proiektu edota lan lerro nagusi posibleak Industria 4.0, 3D fabrikazio aditiboa, gastronomia, ikasle eta formakuntza trukaketa, lehen sektorea edota turismoarekin zerikusia izango lukete.





TOLOSAKO  
UDALA

Behin azaroaren 16an senidetze hitzarmena sinatuta, interesgune diren alorretako plangintzak jarriko dira abian, bi herrien ezagutza, harremanak eta aukerak elkarbanatzeko.

Aurreko guztia kontuan hartuz Batzordekideek bere adostasuna azaldu dute senidetzearekiko eta honako hau proposatzen zaio Tolosako Udaleko Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

Bi udalerriek sinatu beharreko senidetze dokumentua honakoa da, Europa mailan sinatzen diren beste senidetze akordioen antzekoa, baina aurreikusitako lan lerro posiblei erreferentzia egiten diena ere:

## **TOLOSA (EUSKAL HERRIA) ETA CHARLEVILLE-MEZIERES (FRANTZIA)**

### **Aurrekariak**

Txotxongiloen lagun diren hirien nazioarteko erakundearen sortzaileek, Tolosako hiriak eta Charleville-Mézières hiriak aspalditik dute adiskidetasunezko lankidetzaren harreman bat.

Orain, hainbat bisita eta elkartzeko ondoren, bi udalerriok erabaki dugu adiskidetasun-hitzarmen ofizial bat sinatzea, gertutasun handiagora lortzearen eta gure harremanak sendotzeko asmoz.

Guk, Tolosako alkate Olatz Peon Ormazabalek eta Charleville-Mézières-eko alkate Boris Ravignonek, ondorengo konpromisoak hartzen ditugu:

- Bi udalerrien artean harreman estuak ziurtatzea;
- Gure herritarren arteko trukeak

## **TOLOSA (PAYS BASQUE) ET DE CHARLEVILLE-MEZIERES (FRANCE)**

### **Préambule**

Membres fondateurs de l'Association Internationales des Villes Amies de la Marionnettes, les villes de Tolosa et Charleville-Mézières entretiennent depuis de nombreuses années une relation amicale de collaboration.

A la suite de différentes visites et rencontres réciproques, elles ont décidé de s'engager dans une démarche de rapprochement et d'officialisation de leurs liens d'amitié, à travers la signature d'une charte de jumelage.

Nous, Olatz Peon Ormazabal, Maire de Tolosa et Boris Ravignon, Maire de Charleville-Mézières, prenons l'engagement solennel de:

- Assurer l'établissement de liens permanents entre les municipalités de nos deux villes;
- Encourager et soutenir les échanges



TOLOSAKO  
UDALA

bultzatzea eta babestea, elkar hobeto ezagutzeko eta lankidetzaren handiago lortzeko, eta, horrela, europar senidetasunaren sentipen bizia garatzeko;

- Gizalegeak dioen bezala jokatzeko, hau da, aniztasuna errespetatuz eta konfiantza eta elkartasuna erakutsiz;

- Gogor lan egitea bi udalerrion interesatzen zaizkigun proiektuak aurrera eramaten, besteak beste, honako hauek gai hartuta: kultura eta txotxongiloen artea, gastronomia, turismoa, industria 4.0 (fabrikazio aditiboa-3D) eta ikastetxeen arteko harremanak;

- Ahal den neurrian bultzatzea herritarrek parte hartu dezaten hitzarmen honen barruan egingo diren ekintzetan, eta, aldi berean, benetan elkar hobeto ezagutzera eramango gaituzten ekintzak bultzatzea, hala, adiskidetasun estuagoa eta iraunkorragoa lortzeko bi udalerrion artean.

entre nos concitoyens pour développer, par une meilleure compréhension mutuelle et une coopération efficace, le sentiment vivant de la fraternité européenne;

- Agir selon les règles de l'hospitalité, dans le respect de nos diversités dans un climat de confiance et dans un esprit de solidarité;

- Ouvrir à des projets de partenariat dans des domaines d'intérêt commun, comme notamment la culture et les arts de la marionnette, la gastronomie, le tourisme, l'industrie 4.0 (fabrication additive-3D) et les échanges scolaires;

- Associer le plus largement possible nos populations aux actions menées dans le cadre de notre jumelage en et à mettre en œuvre toutes initiatives contribuant à une véritable connaissance réciproque et à l'établissement d'une relation d'amitié profonde et durable entre nos deux villes.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Tolosa eta Charleville. Mézièresen arteko senidetze hitzarmena.



7. 2011ko martxoaren 31n Miguel Muñoa Fundazio Ongile Partikularren Patronatua, Tolosa F.K eta Tolosako Udalaren artean sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren aldaketa Tolosako Berazubi Estadioa birgaitzeko.
7. Aprobación de la modificación del convenio de colaboración suscrito el 31 de marzo de 2011 entre el Patronato de la Fundación Benéfico Particular Miguel Muñoa, Tolosa CF y el Ayuntamiento de Tolosa para la rehabilitación del Estadio Berazubi.

Partehartzeak:

... Alkatea: *"Hitzarmen hau Tolosako udala, Tolosa Lantzen, Muñoa Fundazioa eta Tolosa C.F. klubaren artekoa, 2011ko martxoaren 31n sinatu zuten. Ordutik hona, bitarte horretan, batetik kontratu publikoen legea aldatu da eta, bestetik, Berazubi Estadio birgaitzeko espero zen inbertsio kopuru ekonomikoa gaintu eginda. Horrek bultzatu gaitu hitzarmen berri sinatu behar izatea oreka ekonomikoko hori mantentzeko, hitzarmena 9 urtez iraupena luzatu behar zelako derrigorrez. Honek ahalbideratuko Tolosa C.F. klubeko estadioko bulego horiek birgaitzeko ahal izatea. Hitzarmena onartu ondorez esleipena jarriko genuek martxan obra lehenbailehen gauzatu ahal izateko."*

-----

### **KIROL BATZORDEAREN 2018KO URRIAREN 9KO IRIZPENA.**

2011ko martxoaren 31an Tolosako Udalak, Muñoa Fundazioa eta Tolosa C.F. klubak, lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, Berazubi estadioko, fase ezberdinetan, birgaitzeko eta erabilera publikoaren emateko konpromisoarekin. Tolosako Udalak 2011ko martxoaren 29ko osoko bilkuran, Tolosa C.F. klubak 2011ko martxoaren 24ko ezko batzar nagusian eta Miguel Muñoa ongintzako fundazioak barne batzarrean, aurretik onartu zuten hitzarmena.

Hitzarmenaren ondorioz, Berazubi estadioko kudeaketa Usabal kiroldegia osagarri izatera igaro zen 2013ko urriaren 31tik aurrera lehen faseko obra lanak amaitu eta gero.

Berazubi estadioko publikatzea lortzen du Udalak. Usabal kiroldegiko abonatuak aukera dute Berazubi estadioko kirol eraikinak erabiltzeko.



TOLOSAKO  
UDALA

Bitarte horretan, batetik kontratu publikoen legea aldatu da eta bestetik Berazubi estadioa birgaitzeko espero zen inbertsio kopuru ekonomikoa gainditu egin da.

Hitzarmeneko konpromisoen artean, bulegoen birgaitze obra lanen proiektua sartzen zen (2017-rako aurreikusia) eta Berazubi frontoia estaltzearen egokitasuna aztertzeakoarena (2018-rako aurreikusia).

Ondorioz, 2011n sinatutako hitzarmenaren errebisioa eta moldatzea ezinbestekoa dela ikusirik, aldaketak honako hauek dira:

1.- Tolosan Lantzen S.A. egindako azterketa ekonomikoaren arabera, Berazubi estadioaren bulegoak eraikitzea eragingo duten gehiegizko kostutik pasatzeak derrigortzen dio administrazioari hitzarmenaren **epea handitzera 2059 urteko martxoaren 31 arte**. Frontoiari dagokionean, estalkia gauzatzea erabakiko balitz, hitzarmena berriro aldatu beharko litzateke, bere iraupena luzatzeko era proportzionalan, hitzarmenean xedaturiko irizpidearen arabera, auzoko bizilagunen adostasunarekin eta Tolosako Udalak egiaztatuta.

2.- 2011ko hitzarmenak 1.eranskineko hirugarren atalean xedatzen ziren Tolosa C.F. klubarentzako konpentsazioa ekonomikoak hitzarmen honetatik atera eta Tolosa C.F. kluba eta Udalaren arteko hitzarmen izenduna batean gauzatuko dira.

3.- Hitzarmenaren II. Eranskinari (4.1.1.) dagokionez, Berazubi estadioko sorosle zerbitzuari dagozkion atal guztiak bertan behera geratuko dira.

Horrenbestez, 2011n sinatutako hitzarmenaren aldaketa proposamena aurkezten zaie kirol batzordekideei, jakinik 2011ko martxoaren 3an sinatutako hitzarmena indarren izango dela, betiere, honako dokumentuak moldatutakoa izan ezik, eta dioenaren kontra ez badoa.

Batzorde kideek, zerbitzuburuak emandako azalpenen ondoren, aho batez, hauxe da eman duen



TOLOSAKO  
UDALA

## DIKTAMENA

Lehenik: 2011ko martxoaren 31an Tolosako Udalak, Muñoa Fundazioa eta Tolosa C.F. klubak, Berazubi estadioa birgaitzeko sinatu zuten hitzarmenean proposatutako aldaketak onartzea, ondoko testuaren arabera:

**2011KO MARTXOAREN 31N MIGUEL MUÑOA FUNDAZIO ONGILE PARTIKULARRAREN PATRONATUA, TOLOSA FUTBOL KLUBA ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEAN SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENAREN MOLDATZEA, TOLOSAKO BERAZUBI ESTADIOA BIRGAITZEKO.**

**MODIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN SUSCRITO EL 31 DE MARZO DE 2011 ENTRE EL PATRONATO DE LA FUNDACIÓN BENÉFICO PARTICULAR MIGUEL MUÑOA, TOLOSA CF, Y EL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA PARA LA REHABILITACIÓN DEL ESTADIO BERAZUBI TOLOSA.**

Tolosan, 2018ko .....-ren .....-n.

En Tolosa, a .....de ..... de 2018.

### BILDURIK

**Jesus Maria Arrieta Sagasti**, adinez nagusia, Tolosan bizi eta 15154026-Q zenbakidun NANA duena.

**D. Iñaki Martixa Leunda**, adinez nagusia, Tolosan bizi eta 15964617-H. zenbakidun NANA duena.

**Olatz Peon Ormazabal**, adinez nagusia, Tolosan bizi eta 34108801-P zenbakidun NANA duena.

### REUNIDOS

De una parte, **D. Jesús María Arrieta Sagasti**, mayor de edad, domiciliado en Tolosa con DNI nº 15154026-Q.

De la otra, **D. Iñaki Martixa Leunda**, mayor de edad, domiciliado en Tolosa con DNI nº 15964617-H.

De la otra, **Dña. Olatz Peon Ormazabal**, mayor de edad domiciliada en Tolosa con DNI 34108801-P.



TOLOSAKO  
UDALA

## DIHARDUTE

**Jesus Maria Arrieta**, Miguel Muñoa Fundazio Ongile Partikularren Patronatuko (aurrerantzean Muñoa Fundazioa) lehendakari bezala.

**Iñaki Martixa Leunda**, Tolosa Futbol Klubaren Kirol Elkarteko (aurrerantzean Tolosa FK) lehendakari bezala, espresuki ekitaldi honetarako ahalmendua, 2018 irailaren 3an, ez ohizko batzar nagusian hartutako erabakiaren bidez, dokumentuaren kopia erantsiko dugu 1. zenbakiarekin.

Dña. Olatz Peon Ormazabal, Tolosako Udaleko alkate eta Tolosa Lantzen S.A.ko (aurrerantzean Tolosako Udala) lehendakari bezala.

Bertaratuek, bakoitzak diharduen kontzeptuan, dokumentu hau izenpetzeko behar besteko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta

## ADIERAZTEN DUTE

I. **Muñoa Fundazioa** Tolosako "Berazubi estadioa" izeneko lursailen eta instalazioen jabea dela.

II. Aipameneko lursailak eta instalazioak errentan emanda daudela Tolosa CF

## ACTÚAN

**D. Jesús María Arrieta Sagasti**, en su calidad de Presidente Nato del Patronato de la Fundación Benéfico Particular Miguel Muñoa, en adelante, **Fundación Muñoa**.

**D. Iñaki Martixa Leunda**, en su calidad de Presidente de la Sociedad Deportiva de Tolosa Club de Futbol, en adelante, **Tolosa CF**, facultado expresamente para este acto por virtud del acuerdo adoptado el 3 de septiembre de 2018., en asamblea extraordinaria, cuya copia se acompaña como documento número 1.

Dña. Olatz Peon Ormazabal, en su calidad de Alcaldesa del Ayuntamiento de Tolosa en adelante, Ayuntamiento de Tolosa.

Todas las partes que comparecen, en el concepto en el que actúan, reconociéndose capacidad suficiente para la suscripción del presente documento,

## EXPONEN

I. Qué **Fundación Muñoa** es propietaria de los terrenos e instalaciones que conforman el conocido, "Estadio Berazubi" de Tolosa.

II. Qué dichos terrenos e instalaciones se hallan arrendados desde el 11 de



TOLOSAKO  
UDALA

taldeari, irabazi asmorik gabeko entitateari, 1922ko azaroaren 11z geroztik. Errentariak kontratu horri eta ondoren izenpetu dituztenei jarraitu die.

Horietan guztietan, Muñoa Fundazioak zehatz-mehatz betetzeko Miguel Muñoa Mujikak adierazitako nahia bere testamentuan, hain zuzen ere, Santiago Erro notarioaren aurrean, bere protokoloko 693 zenbakiarekin, 1907ko uztailaren 10ean xedatutako testamentuan, hurrengo kontratu baldintza hauek jaso ziren:

a.- Tolosa CF taldeak, kontratuak dirauen bitartean, irabazi asmorik gabeko kirol elkarteak izaten jarraitzea.

b.- Tolosa CF taldeak arreta eta begiramen berezia izatea Tolosako lurreamendi Egoitzan hartutako pertsona guztiak, "Berazubi Estadioan" antolatutako futbol partidu, joko atletiko eta gainerako ekitaldietan doan sartzeko eskubidea emanaz haiei.

c.- Jarritako errenta aintzaketat hartuta, errealitatean doakotasun izaera duena, debekatuta geratzen zen kontratua lagatzea edo bere azpierrementamendua.

III. Gaur arte, indarrean dagoen kontratua, 2011ko martxoaren 31ean sinatutakoa dela, eta bere indarraldia

Noviembre de 1.922 al **Tolosa CF**, entidad sin ánimo de lucro. El arrendatario en cuestión, ha venido rigiéndose por éste contrato y por los sucesivos que han ido suscribiéndose.

En todos ellos, con el propósito de que **Fundación Muñoa** diera fiel cumplimiento a la voluntad testamentaria expresada por Don Miguel Muñoa y Mugica en testamento otorgado el día 10 de julio de 1907 ante el Notario Don Santiago Erro, número 693 de su protocolo, se incluyeron como condiciones contractuales-estipulaciones, las siguientes:

a.- La necesidad de que el **Tolosa CF** mantuviera durante el tiempo de vigencia del contrato, su carácter de sociedad deportiva sin ánimo de lucro.

b.- La obligatoriedad de que el **Tolosa CF** tuviera una atención y consideración especial con todas las personas que se hallaren acogidas en la Residencia Yurramendi de Tolosa, concediéndoles el derecho de asistencia gratuita a partidos de fútbol, juegos atléticos y demás acontecimientos que se desarrollasen en el "Estadio Berazubi".

c.- Que atendida la práctica gratuidad de la renta estipulada, quedaba prohibida la cesión del contrato o subarriendo.

III. Que hasta la fecha de hoy, el contrato de arrendamiento que se halla en vigor es el suscrito en fecha 31 de marzo de 2011,



TOLOSAKO  
UDALA

2050ko abenduren 31ean amaitzen dela.

IV. 2011ko martxoaren 31ean Tolosako Udalak, Muñoa Fundazioak eta Tolosa CF kirol taldeak sinatutako hitzarmenak egungo udal kirol ekipamenduak erabiltzeko aukerari handitu eta hobetzeko xedeari erreparatu zion Berazubi estadioa udal kirol eraikinen udal horniduran sartuz. Aukera berria eta zabalagoa eskainiko zaie Tolosako kirol eraikinetako abonatuiei Berazubi estadioa erabiltzeko aukerarekin.

Sinatutako hitzarmenean Tolosako Udalak konpromisoa hartu zuen honako obra-inbertsioak egiteko :

1. fasea: harmaila eta aldagelak. 583.000 €.

2. fasea: kirol anitzetako guneak, gimnasioa, padelak..., mendebaldeko zuzena. 180.000€.

3. fasea: atletismo pista estalia, eta ekialdeko zuzena. 300.000 €.

4. fasea: tenis eta frontoiko zaharberritzea, urbaizazioa eta itxitura. 300.000 €.

5. fasea: bulegoko eraikina, Finish-Dorrea, biltegiak eta tabernaren estruktura.140.000€

**GUZTIRA: 1.788.570€** (Kontrata exekuzioa) = 1.503.000 € + GG +B.I.

cuyo plazo de duración concluye el día 31 de diciembre del año 2050.

IV. Que mediante convenio suscrito el 31 de marzo de 2011, el Ayuntamiento de Tolosa, la Fundación Muñoa y el Tolosa C.F. atendieron a la finalidad de ampliar y mejorar la dotación de instalaciones deportivas municipales mediante la inclusión del estadio Berazubi en la oferta de dichas instalaciones, ampliando la oferta deportiva a las personas abonadas de las instalaciones de dicha índole en el municipio de Tolosa.

En el convenio suscrito, el Ayuntamiento de Tolosa se comprometió a ejecutar las siguientes inversiones:

1ª fase: grada y vestuarios. 583.000 €

2ª fase: zona deportiva multiusos de gimnasios, padel..., recta oeste. 180.000 €.

3ª fase: recta cubierta de atletismo, recta este. 300.000 €.

4ª fase: remodelación pista de tenis y frontón, urbanización y cierre perimetral. 300.000 €.

5ª fase: edificio oficinas, torre-finish, almacenes y estructura edificio bar. 140.000 €

**TOTAL: 1.788.570€** (Ejecución contrata) = 1.503.000 € + GG +B.I.





TOLOSAKO  
UDALA

Era berean, eragiketak duen interes publikoari lotuta hitzarmenak baldintza hauek ezarri zituen

a) **Muñoa Fundazioak** eta **Tolosako Udalak** sinatutako errentamendu kontratuak bermatu behar zuten, hain zuzen ere, kontratuak, gutxienez 2050 arte, iraun behar zuela, egindako inbertsioen amortizazioa gauzatzeko.

b) "Berazubi Estadioko" instalazio guztiak, birmoldatu eta gero, egungo Usabal kiroldegia osagarriak izatea.

c) "Berazubi Estadioaren" kudeaketa eredua Usabal kiroldegikoaren berdina izatea, zerbitzu publiko orokor eta kalitatezkoa bermatzeko.

d) Errentamendu kontratu berriarengatik ordaindu beharreko errentak ez izatea aldaketa handirik.

V. Adostutako obren %80 egin eta gero eta, kontuan izanik onartutako kopurua gainditu dela, eta kontuan hartuz beharrezkoa dela kirol taldearen egoitzaren bulegoak zahar- berritzea, **beharrezkoa da**, hasieran adostutako sariak eta zerbitzuak lortzeko oreka ekonomikoa berreskuratzea derrigorrezkoa dela, 2011ko martxoan **sinatutako hitzarmena moldatu** eta duen iraupena luzatzeko.

Al mismo tiempo, el convenio establecía las siguientes condiciones, vinculadas al interés público de la intervención:

a) Que se garantizase que el contrato de arrendamiento suscrito entre **Fundación Muñoa** y el **Tolosa CF** tuviera un plazo de duración que no fuera inferior al año 2050 con el fin de garantizar la amortización de las inversiones realizadas.

b) Que todas las instalaciones del "Estadio Berazubí", una vez remodeladas, tuvieran un carácter de complementarias con el actual polideportivo municipal de Usabal.

c) Que el modelo de gestión en el "Estadio Berazubí" fuera el mismo que el del polideportivo Usabal con el fin de garantizar un servicio público general y de calidad.

d) Que la renta abonar por el nuevo contrato de arrendamiento no sufriera una variación significativa.

V. Una vez ejecutado el 80% de la obras acordadas y habiéndose agotado el crédito destinado a tal fin, teniendo en cuenta la necesidad de abordar la remodelación del edificio antiguo de las oficinas del club, **es necesario** restablecer el equilibrio económico de las prestaciones inicialmente pactadas **modificando para ello el convenio** suscrito, ampliando su plazo de duración.



TOLOSAKO  
UDALA

Horretarako, hitzarmena dirauen epean ezarri dagokion inbertsio ratioa, oinarri hartuta hasiera adostutako inbertsioen aurrekontua, ematen duen zenbakia 46.317/urteko (BEZ-a kanpo) eurokoa da. Alabaina, egungo aplikagarria den fiskalitate erregimena kontuan hartuz, urteko ratioaren kalkulua egiteko obrak sortuko duen BEZ-a kontuan hartuko da.

VI. Hitzarmena sinatu aurretik aldeek diote errentamendu kontratua sinatu dela **Muñoa Fundazioa** eta **Tolosa CF taldearen artean 2059ko martxoaren 31 arte**.

Aipatutako irizpideak aintzakotzat hartuta, **Muñoa Fundazioak** erabaki du onartzea, azaldutako proiektuak onura dakarrelako **Tolosako Udalerriarentzat** eta ez dituelako urratzen Muñoa Fundazioaren oinarri diren izpiritua eta helburuak.

Hori guztia kontuan hartuz, kideek honako estipulazioak onartzen dituzte:

Para ello, el ratio de inversión imputable a cada año de duración del convenio, tomando como base el presupuesto de las inversiones inicialmente acordado, se establecía en la cuantía de 46.317 € /año, (I.V.A. no incluido). Sin embargo, teniendo en cuenta el régimen de fiscalidad aplicable en la actualidad, para el cálculo del ratio anual habrá de tomarse en consideración el I.V.A. correspondiente a la inversión.

VI. Las partes manifiestan que previamente a la firma del presente convenio se ha suscrito el contrato de arrendamiento entre la **Fundación Muñoa** y el **Tolosa CF. hasta el 31 de marzo de 2059**.

**Fundación Muñoa** manifiesta su conformidad con los criterios expresados, por considerar que el proyecto expuesto supone un beneficio para el **Municipio de Tolosa** y no vulnera ni el espíritu, ni la finalidad que son esencia de Fundación Muñoa.

Por todo lo cual, los comparecientes otorgan las siguientes:



TOLOSAKO  
UDALA

## ESTIPULAZIOAK

### ***Lehena.- Xedea.***

Hitzarmen honen xedea da 2011ko martxoaren 31n sinatutako hitzarmena moldatzea bi helburu nagusiekin:

a) Oreka ekonomikoa berrezartzea hasieran adostutako ezaugarriekin bat egiteko, betiere, hitzarmenaren epe luzatuz.

b) Udalak Tolosa CF taldeari banatzen dizkion ekarpen ekonomikoak hitzarmenetik ateratzea aplikagarriak ez direlako. Diru ekarpen horiek, batu eta antolatuko dituen izenpeko hitzarmen berri batean osatuko dira.

### ***Bigarrena.- Tolosako Udalak exekutatuko dituen obrak***

**Tolosako Udalak** honako obrak egiteko konpromisoa hartuko du;

- Klubaren bulego-eraikinaren zaharberritzea 2017ko abenduan Juan Antonio Aranburu arkitekto teknikoak idatzi eta aurkeztutako exekuzio proiektuaren arabera 386.268,14 euro (BEZ-a barne) balioa duena.

Frontoiaren zaharberritzeari dagokionez, Tolosako Udalak exekuzioari ekingo dio eduki hauek kontuan hartuz:

## ESTIPULACIONES

### ***Primera.- Objeto.***

Este convenio tiene por objeto proceder a la modificación del convenio suscrito el 31 de marzo de 2011, con dos objetivos principales:

a) Restablecer el equilibrio económico de las prestaciones inicialmente pactadas, ampliando el plazo de duración del convenio.

b) Excluir de su ámbito de aplicación las aportaciones dinerarias que realiza el Ayuntamiento al Tolosa CF, las cuales serán de objeto específico en el convenio que unifique y regule una subvención con carácter nominativo.

### ***Segunda.- Obras a ejecutar por el Ayuntamiento de Tolosa.***

**El Ayuntamiento de Tolosa** se compromete a la ejecución de la siguiente obra:

- Remodelación del edificio antiguo de las oficinas del club de conformidad con el proyecto de ejecución redactado y presentado en diciembre de 2017 por el arquitecto técnico Juan Antonio Aranburu, con un presupuesto de 386.268,14 euros (IVA incluido).

En cuanto a la reforma del frontón, el Ayuntamiento de Tolosa procedería a la ejecución de la citada obra atendiendo las siguientes condiciones:



TOLOSAKO  
UDALA

.- Obrak gauzatzeko bizilagunen adostasunarekin beharko du izan, Tolosako Udalak egiaztatuta.

.- Aipatutako exekuzioa Muñoa Fundazioaren eta Tolosa CF taldearen arteko errentamendu kontratuaren luzatzearekin lotuta beharko du izan, aipatutako futbol taldea, Muñoa Fundazioa eta Tolosako udalaren artean hitzartutako epe luzatzearekin bat egingo duelarik.

Obrak exekutatuko balira, oreka ekonomikoa berrezarri beharko litzateke laugarren atalean xedatutakoaren formularen arabera, era horretan iraupena luzatuko da xedatutako ratioaren arabera.

#### ***Hirugarrena.- Baimena***

**Muñoa Fundazioak**, ekitaldi honetan Jesus Maria Arrietak ordezkaturia, **BAIMENA EMATEN** dio Tolosako Udalarari Berazubi Estadioa deituriko jabetzan hobekuntzak egiteko, klubaren bulegoen erakinaren birgaitze eta erreforma obrei dagozkienak, hain zuzen ere, 2017ko abenduan aurkeztutako exekuzio proiektuaren arabera, 386.268,14 euro (BEZ-a barne) balioa duena.

Muñoa Fundazioa espresuki salbuetsita geratuko da aipatu obren exekuziotik eratorritako edozein motatako erantzukizunetatik.

#### ***Laugarrena.- Kalkuluak eta doitze ekonomikoak. Epea luzatzea.***

Klubaren eraikin zaharraren bulegoen zahar berritzea eragiketaren ondorioz,

.- Que la ejecución de las obras cuente con la conformidad de la vecindad afectada, verificada por el Ayuntamiento de Tolosa.

.- Que dicha ejecución esté vinculada a la prórroga del contrato de arrendamiento entre Fundación Muñoa y Tolosa CF, por un plazo equivalente al convenido entre dicha Fundación, el Ayuntamiento de Tolosa y el citado club de fútbol.

Caso de que las obras se ejecutasen, el equilibrio económico del presente convenio deberá ser restablecido, conforme a la regla estipulada en la cláusula cuarta, prorrogando su duración conforme al ratio establecido en aquella.

#### ***Tercera.- Autorización***

**Fundación Muñoa**, representada en este acto por Don Jesús María Arrieta, **AUTORIZA** al Ayuntamiento, a que en la propiedad denominada Estadio de Berazubi se realicen las obras de mejora, rehabilitación y reforma de las oficinas del club que representan un gasto de 386.268,14 euros (IVA incluido) según el proyecto de reforma presentado en diciembre de 2017.

Fundación Muñoa queda expresamente exonerada de cualquier tipo de responsabilidad derivada de la ejecución de las citadas obras.

#### ***Cuarta.- Cálculos y ajustes económicos. Ampliación de plazo***

Como consecuencia de la ejecución de la



TOLOSAKO  
UDALA

hasieran adostutako hitzarmenaren epea 2059ko martxoaren 31 arte luzatuko da, edo jarraian aipatzen den ratioaren arabera kalkulatu da, obraren likidazio-kostua hasieran aurreikusitakoaren ezberdina bada.

Aipatutako interbentzioari frontoiaren exekuzioa erantsiko balitzaio xedapen honetan esaten dena aplikatuko da.

Honako inbertsioa/urteko berdintasun erregela aplikatuko zaie:

46.317€/urteko kontratua handitzea.

**Bosgarrena.- Instalazioen ezinbesteko osagarritasuna 2059ko martxoaren 31 arte.**

**Muñoa Fundazioak**, Berazubi Estadioa izeneko higiezinaren jabeak, eta Tolosa CF taldeak, aipameneko higiezinaren eta bere instalazioen errentariak, **BAIMENA ematen diote** Tolosako Udalari -modu ezeztazinean eta bukatu arte errentamendu kontratua (2059-03-31), lehenbiziko bi erakundeen artea sinatua-, udal entitateak inbertsioa egin nahi duen instalazio eta **zerbitzuen erabilera eta kudeaketa**, hitzarmen honetan araututakoaren arabera (futbol zelaiarena eta hasieran pentsatutako edaritegi-jatetxearena izan ezik, non hasiera batean behintzat Udalak ez daukan asmorik inolako inbertsiorik egiteko)

obra de remodelación del edificio antiguo de las oficinas del club, la duración del Convenio inicialmente pactada se prorrogará hasta el 31 de marzo de 2059, o el período que resulte de la aplicación del ratio establecido a continuación, si la cuantía de la inversión tras la liquidación de la obra ejecutada fuese distinta a la prevista inicialmente.

Si a la intervención reseñada se le añadiese la ejecución de la reforma del frontón se aplicará lo referido la presente cláusula.

*Se establece una regla de equivalencia inversión/año conforme al siguiente ratio:*

*46.317 €/1 año de ampliación convenio.*

**Quinta.- Necesaria complementariedad de las instalaciones hasta el 31 de marzo de 2059.**

**Fundación Muñoa**, propietaria del inmueble denominado Estadio de Berazubi, y el Tolosa C.F., arrendatario del mismo y de sus instalaciones, **AUTORIZAN** al Ayuntamiento de Tolosa, de forma irrevocable y hasta la finalización del contrato de arrendamiento (31-03-2059), suscrito entre las entidades citadas en primer lugar, **el uso y la gestión** de las instalaciones y servicios del ESTADIO BERAZUBI (excepto el campo de fútbol de hierba natural y el inicialmente planteado bar-restaurante, en los que en principio el Ayuntamiento no tiene la intención de realizar inversión alguna),



TOLOSAKO  
UDALA

eta erantsitako dokumentuei jarraituz.

Arrazoi horrengatik, bertaratutako guztiek, eta bereziki Muñoa Fundazioak, hurrengo hau onartzen dute: dokumentu honekin batera izenpetzekoa den errentamendu kontratuaren indarraldian, Tolosa CF taldeak, hitzartutako iraupen epea iragan baino lehen, Kirol Elkarte izateari utziko balio, errentamendua suntsituta geratuko litzateke. Halere, horrek ez luke ekarriko aldaketarik hartutako konpromisoetan, udal kirol instalazioen osagarritasunei eta haien erabilerarengatik jasotako erabilerara eskubideei dagozkienez.

Aipatu obrak proiektatu eta exekutatu dira dagozkion erabakiak izenpetu eta gero, eta Administrazio Publikoetan ohizkoak diren administrazio prozedurei jarraituko zaie.

Berazubiko kudeaketa, xedatuko da Usabal kiroldegiko araudi berberetatik.

Kontratua aurretik etengo balitz, edo edozein arrazoiarengatik Muñoa Fundazioaren eta Tolosa CF taldearen arteko errentamendu-kontratua bere indarraldia amaitu baino lehen bertan behera geratuz gero, estipulazio honetan eta hitzarmen honen zortzigarren estipulazioan xedatutakoari jarraituko zaio.

Hitzarmen hau sinatzearekin batera,

Por esta razón, todos los comparecientes aceptan, y particularmente Fundación Muñoa, que si durante la vigencia del contrato de arrendamiento a suscribir simultáneamente a este documento, el Tolosa CF, antes de transcurrido el plazo de duración pactado, dejara de existir como Sociedad Deportiva y por lo tanto, el arrendamiento quedara resuelto anticipadamente, ello en modo alguno supondrá una modificación respecto a los compromisos adquiridos con relación a la utilización por el Ayuntamiento de las instalaciones, y a la complementariedad de aquéllas con las propias municipales.

Dichas obras proyectadas se ejecutarán una vez se suscriban los acuerdos correspondientes, que seguirán a su vez, los procedimientos administrativos habituales de las Administraciones Públicas.

La gestión de Berazubi vendrá regulada por la misma normativa vigente en el polideportivo Usabal.

Para el supuesto de que se produzca la resolución anticipada del contrato de arrendamiento entre Fundación Muñoa y el Tolosa CF, se estará además de lo dispuesto en la presente estipulación a las determinaciones contenidas en la estipulación octava.

Simultáneamente a la suscripción del



TOLOSAKO  
UDALA

Muñoa Fundazioak eta Tolosa CF taldeak errentamenduko hitzarmen berri bat sinatuko dute, 2011ko martxoaren 31ko hitzarmena aurretik indargabetuz, honen epea hitzarmen honen laugarren estipulazioan adostutako epe berbera izango da.

***Seigarrena.- Tolosako Udala eta Tolosa CF taldearen arteko harremanak:***

Tolosako Udala eta Tolosa CF taldearen arteko harremanak herriko kirol talde zaharren eta kirol lizentzia gehien duen klubaren kirol eraikuntza finantziazioa lortzeko ekarpen ekonomikoei dagokienez, izenpeko diru laguntza- hitzarmen baten bitartez xedatuko dira. Hitzarmena sinatuko dute bi aldeek 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorrak eta udal araudiak xedatutakoaren arabera.

Gainera, osagarritasun printzipio horren ildotik, beraz, Berazubi estadioaren esparruan ez da utziko ematen, hain zuzen ere, Usabal kiroldegia esparruan eskaintzen diren zerbitzuei lehia egiten dien zerbitzurik.

Edozein kasutan, aurreko hitzarmenean zehaztu gabeko zerbitzu berrien egingarritasuna, jarraipen batzordeak aho batez onartu beharko ditu.

Eguneroko auzi txikiak eta inbertsioekin zerikusia ez dutenak

presente documento, Fundación Muñoa y el Tolosa CF, suscribirán un nuevo documento de arrendamiento, resolviendo anticipadamente el de fecha de 31 de marzo de 2011, cuya duración será idéntica a la acordada en la estipulación cuarta del presente convenio.

***Sexta.- Relaciones entre el Ayuntamiento de Tolosa y el Tolosa CF: .***

Las relaciones entre el Ayuntamiento de Tolosa y el Tolosa CF, en lo relativo a las aportaciones económicas para la financiación de la estructura deportiva del club más antiguo y con mayor número de licencias de la villa., se regularán a través del correspondiente convenio regulador de subvención nominativa, a suscribir entre ambos, de conformidad con lo establecido en la Ley General de subvenciones 38/2003 y la Ordenanza municipal de subvenciones.

Además, en mor del compromiso de complementariedad en el ámbito del estadio de Berazubi, no se permitirá la prestación de servicios que supongan una competencia real a los que se prestan en el ámbito deportivo de Usabal.

En cualquier caso, los nuevos servicios no descritos en el convenio anteriormente suscrito, deberán adoptarse por unanimidad de la comisión de seguimiento.

Cualquier otra circunstancia de menor relevancia a las inversiones descritas



TOLOSAKO  
UDALA

Berazubi estadioko kudeaketako Batzordean adostu beharko ditute Tolosako Udalak eta Tolosa CF taldeak.

Azkenik esan behar da Tolosa CF kirol taldeko ``ohorezko sozio izendatzen dituzten sozioak estadioan dohainik sartzeko eskubidea lortuko dutela automatikoki, halaxe adostu baitzen Tolosako Udaleko kirol batzordean, 2016ko maiatzaren 26an.

**Zazpigarrena.- Euskararen eta genero berdintasuna ziurtatzeko erabilera eta sustapenari buruzko hizkuntza irizpideak betetzeari buruz.**

Publikoari zuzendutako edozein ekintza edo jardueratan, nahiz Estadioko instalazioen erabileran, euskararen erabilera eta sustapenari buruz indarrean dagoen udal arautegia, batetik eta hizkuntzaren erabilera ez sexista eta estereotipoekin bukatzeko udal araudia bete behar da.

Euskararen erabileraren konpromisoei dagokionez gain, aldeek honakoak beteko dituzte:

.- Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasun udal araudia eta legedia beteko dute.

.- alkohola eta bestelako drogen adikzioari aurkako araudia beteko dute.

**Zortzigarrena.- Behar baino**

deberá de ser acordada previamente en la Comisión de gestión del estadio Berazubi entre el Ayuntamiento de Tolosa y el Tolosa CF.

Finalmente decir que, los socios y socias del Tolosa CF que sean distinguidos como socios honoríficos, obtendrán automáticamente el acceso gratuito al estadio de Berazubi según lo acordado el 26 de mayo de 2016 por el comisión de deportes del Ayuntamiento de Tolosa.

**Séptima.- Del cumplimiento de los criterios lingüísticos sobre el uso y promoción del euskera e igualdad entre mujeres y hombres.**

En toda acción dirigida al público en general, así como en el uso de las instalaciones del Estadio, se deberá cumplir con la normativa municipal vigente en cada momento respecto al uso y promoción del euskera, por un lado, y el uso no sexista del lenguaje y evitación de estereotipos entre mujeres y hombres por otro.

Además de los compromisos adquiridos relativos al uso del Euskera las partes se obligan a:

.- cumplir la legislación y ordenanza municipal en materia de igualdad de mujeres y hombres.

.- respetar las normas establecidas de prevención y adicción al alcohol y otras drogas.

**Octava.- Resolución anticipada**





TOLOSAKO  
UDALA

### ***lehenagoko etetea***

Behar baino lehenagoko kontratuaren etetea gertatuko da honako ustezko hauen artean:

1.- Tolosa CF taldea desagertuko balitz, Tolosako Udalak kirol taldeak utzitako lekua hartuko luke, egindako kirol eraikinen inbertsioetan, betebeharrak berdinekin errentamendu kontratua dirauen bitartean, eta epe luzapenak ere kontuan izanik, hitzarmen honen azalpen laugarren atalean zehazten diren inbertsioei dagokienez.

2.- Muñoa Fundazioa desagertuko balitz, oinordekoak hartuko lituzke eskubide eta eginbehar guztiak kontratu honi dagozkionak.

3.- Aurreikusitako gabeko bestelako gertakizunengatik etetea gertatuko balitz, alde bakoitzak likidazio prozesuan sartuko da eta jarritakoak jasoko ditu.

### ***Bederatzigarrena.- Publizitatea.***

Berazubi estadioan jarriko den publizitatea hurrengo puntuaren arabera xedatuko da:

1.- Berazubi Estadioko zerbitzu eta instalazioen entitate titularrek egindako publizitate elementu guztietan (kartelak, pankartak, panfletoak...) **Tolosako Udalaren lankidetzan adierazi** behar da **lehentasuneko tokian**, herriko armariaren logoa jarri edo

La resolución anticipada del presente Convenio se producirá en alguno de los siguientes supuestos:

1.- Si el Tolosa CF dejara de existir, el Ayuntamiento de Tolosa se subrogará en la posición ocupada por el Tolosa CF en iguales condiciones durante el plazo de vigencia del contrato de arrendamiento y sus posibles prórrogas, en aquellas instalaciones que han sido objeto de inversión conforme a la relación contenida en el cuarto punto expositivo del presente convenio.

2.- Si se diera el supuesto de extinción de la Fundación Muñoa, la entidad sucesora se subrogará en las obligaciones y derechos derivados del presente convenio.

3.- Si se produjera la resolución anticipada derivada de otra causa no prevista en el presente convenio, entrará en fase de liquidación, y cada parte restituirá sus respectivas prestaciones.

### ***Novena.- Publicidad.***

La publicidad que se coloque en el estadio Berazubi se determinará por los siguientes puntos:

1.- En todo elemento publicitario elaborado por cualesquiera de los entes titulares de los diferentes servicios e instalaciones del estadio de Berazubi (carteles, pancartas, panfletos...) deberá constar **en lugar preferente** la **colaboración** del **Ayuntamiento de**



TOLOSAKO  
UDALA

hitzarmenak dirauen bitartean Tolosako Udalak proposatutako beste edozein.

2.- **Tolosa CF taldeak lehenetasuna** edukiko du Berazubi Estadioko futbol zelaiko publizitatea kudeatzeko, hartarako gaitzen diren espazioetan (ikus plano), aipatutako entitateari eransten zaizkionak, baldin eta segurtasun arazorik ez badago eta interes gatazkarik ez dagoen bitartean **Tolosako Udalak**, kontraturiko eta bere menpeko publizitatearekin.

3.- Dena den, estadioan aurrez finkatu gabeko publizitatea jartzeko, alde z aurretik kudeaketa batzordeak **erabaki eta koordinatu** behar du.

4.- Edozein kasutan, publizitate orotan, ekipamendukoan nahiz seinalizazioan, errespetatu egin behar dira Udalak bere arautegian ezarritako baldintzak, **euskararen** edota Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen **tratamenduari dagokionez**.

5.- Edozein kasutan, publizitate orotan, ekipamendukoan nahiz seinalizazioan errespetatu egin behar dira Udalak bere arautegian ezarritako baldintzak, **generoaren berdintasunaren tratamenduari** dagokionez.

6.- Edozein kasutan, publizitate orotan, ekipamendukoan nahiz seinalizazioan, errespetatu egin behar dira Alkohola eta drogen kontsumoko desegokiaren **prebentzio eta adikzio** aplikagarriak diren legeak. Bereziki adin txikikoak tartean badira.

**Tolosa**, incluyendo el escudo de la villa o cualquier otro que durante la vigencia del convenio éste proponga.

2.- El **Tolosa CF** tendrá **preferencia** para la gestión de la publicidad del campo de fútbol del Estadio de Berazubi en los espacios que al efecto se habiliten, (ver plano) y se adscriban para dicha entidad, siempre que no haya problemas de seguridad, ni suponga colisión de intereses con la publicidad dependiente y contratada por el **Ayuntamiento de Tolosa**

3.- Ahora bien, la colocación de publicidad que no esté prefijada en el estadio deberá ser **acordada y coordinada** previamente en la comisión de gestión.

4.-En cualquier caso, toda la publicidad y señalización colocada en el estadio Berazubi, se deberán respetar las condiciones establecidas por el Ayuntamiento en su normativa **respecto al tratamiento del euskera** o de ambos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

5.-En cualquier caso, toda la publicidad y señalización colocada en el estadio Berazubi, se deberán respetar las condiciones establecidas por el Ayuntamiento en su normativa **respecto a la igualdad de mujeres y hombres**.

6.- En cualquier caso, toda la publicidad y señalización colocada en el estadio Berazubi, se deberán respetar las leyes de **prevención y adicción** al consumo de alcohol y drogas. Muy especialmente en lo que se refiere a menores.



TOLOSAKO  
UDALA

### ***Hamargarrena.- Jarraipen batzordea.***

Dokumentu honetan aurreikusitako ekintzetarako (egitekoak diren inbertsioak, faseak betetzea, datak, konpromisoak etab. eta edozein erabaki hartzeko, estadioa eta bere zerbitzuak eta instalazioak kudeatzeko eta erabiltzeko) Jarraipen batzordea eratuko da honako partaide hauekin: **Tolosako Udaleko** edo berak adosten duen udal erakundeko **bi kide**, **Tolosa CF** taldeko **kide bat** eta **Muñoa Fundazioko ordezkari bat**.

Funtzionamendu erregimena administrazioko legerian organo kolegiatuentzat aurreikusitakoa izango da. Batzordeko lehendakaria Tolosako Udaleko alkatea izango da.

Halere, aipatu batzordeak funtzionamendu batzorde bat izendatu ahal izango du, kudeaketa batzordea izenarekin, alderdien artean egunero sor daitezkeen arazoak konpontzeko ahalmenarekin. Eguneroko arazo hauek ezin badira konpondu funtzionamendu batzordean, Jarraipen Batzordeak izango du eskumena haiek ebazteko.

### ***Hamaikagarrena.- Araubide juridikoa.***

Hitzarmen honek izaera publikoko izaera administratiboa du, 40/2015 Sektore Publikoaren Araudi Juridikoaren Legearen arabera. Eraikinen erabilera aplikagarria den

### ***Décima.- Comisión de seguimiento.***

Para cuantas acciones se prevén en este documento (inversiones a realizar, cumplimiento de fases, fechas, compromisos, etc, y para adoptar cualquier acuerdo de gestión y utilización del Estadio, de sus servicios e instalaciones) se constituirá una comisión de seguimiento compuesta por **dos personas representantes del Ayuntamiento de Tolosa** o entidad municipal instrumental que determine, **una del Tolosa CF** y **otra** de la **Fundación Muñoa**.

El régimen de funcionamiento será el previsto para los órganos colegiados en la legislación administrativa. La presidencia de la comisión la ostentará la primera autoridad del Ayuntamiento de Tolosa.

No obstante, dicha comisión podrá designar una comisión de funcionamiento, que se denominará comisión de gestión, que este facultada para resolver los problemas diarios de gestión que pudieran surgir entre las partes. Cuando estos problemas diarios no pudieran solucionarse en la comisión de funcionamiento, será la Comisión de Seguimiento el órgano competencial para resolverlo.

### ***Undécima.- Régimen jurídico.***

De conformidad con los principios establecidos en la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público, el presente convenio posee naturaleza administrativa. El uso de las instalaciones se regirá por la legislación patrimonial



TOLOSAKO  
UDALA

ondarearen legeen eta erabilera publikoko ondasun zuzenbidearen arabera.

**Xedapen osagarria.- Aurreko akordioen deuseztatzea**

Aldeek adostu dute 2011ko martxoaren 31ko hitzarmenaren **I. Eranskineko** hirugarren atala **bertan behera** uztea bere osotasunean, zuen xedea galdu duelako.

Hitzarmen horretako **II. eranskinari** dagokionez, Berazubi estadioko sorosle zerbitzuari dagozkion atal guztiak **bertan behera** geratuko dira. Zehazturik 4.1.1 atala bere osotasunean.

2011ko martxoaren 31n sinatutako hitzarmena indarrean izango da, betiere, honako dokumentuak moldatutakoa izan ezik, eta dioenaren kontra ez badao.

Eta hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, alde guztien adostasuna adierazteko, hitzarmen hau izenpetzen da hasieran esandako toki eta egunean.

aplicable, relativa a los bienes de servicio público.

**Disposición Adicional.- Nulidad de acuerdos anteriores**

Las partes acuerdan **dejar sin efecto** el apartado tercero del **Anexo I** del convenio suscrito el 31 de marzo de 2011, como consecuencia de la pérdida de su objeto.

En lo referente al **anexo II** del mismo convenio **se dejan sin efecto** todo lo que se refiere a los servicios de socorrismo en el estadio Berazubi, concretamente el apartado 4.1.1 en su totalidad.

El Convenio suscrito el 31 de marzo de 2011 continuará vigente en todo aquello que no haya sido modificado por el presente documento, y no lo contraviniera.

Y para que conste y surta los efectos oportunos, en prueba de conformidad de las partes, se suscribe el presente convenio en el lugar y fecha arriba indicados.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.



TOLOSAKO  
UDALA

Beraz, Udaltzako aho batez **onartu du** 2011ko martxoaren 31n Miguel Muñoa Fundazio Ongile Partikularraren Patronatua, Tolosa F.K eta Tolosako Udalaren artean sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren aldaketa Tolosako Berazubi Estadioa birgaitzeko.

- 8. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko irailaren 1etik 30era. (2018/1.654- 2018/1.863).** **8. Notificación de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 30 de septiembre de 2018 (2018/1.655-2018/1.863).**

Alkatetzak 2018ko irailaren 1etik 30era bitartean (2018/1.654-2018/1.863) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

- 9. Tolosako udalaren adierazpen Instituzionala Euskaltzaindiaren sorreraren 100. urteurrenean.** **9. Declaración institucional con motivo del Centenario de la creación de Euskaltzaindia.**

Partehartzeak:

...Onintza Lasa Arteaga (EHBildu): *Mozioa irakurri ondoren honako hau adierazi du: zoriontzekoa da aurreko plenoan lñakik egin zuen proposamen hori aurrera eman izana. Poztekoa da ere ikustea beraiek begi onez ikusi zutela. Behingoz bai akademiak eta bai herri xeheak euskararen alde bat egiteko aukera izango dugu.*"

...Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *"Adierazpen instituzionalekin bat gatoz, nola ez. Motzen esateko, 100 urte errez esaten dira eta 100 urteetan lan ikaragarria egiten, euskara ikertzen, zaintzen, zabaltzen. Orain dela mende bat Akademia honek hasitako bidea, edukitako ibilbidea eta egindako ekimenak oso garrantzitsua izan direla, direla eta izango direla etorkizunean euskararentzat. Hori goraiatu eta aitortu."*

...Alkatea: *"Euskaltzaindiak 100 urte bete ditu eta lan ugari bete ditu urte hauetan, gramatikagintzan, hiztegigintzan, euskararen batuaren finkatze prozesuan, toponimia eta lexikoaren esparruan. Euskaltzaindiak oinarriko zutoinak jarri ditu euskararen erabilerak aurrera egin dezan. Oraingoan 100 urte bete dituen, Tolosako Udalak bere aitortza eskaini nahi dio jarrai dezan bidea jorratzen. Asko dago egiteko, kezka ere ugariak dira, oreka zaila da askotan, zenbaitetan. Erabilera indartzeak daramatzalako ondo ikusiak ez diren joerak nabarmentzen. Baina aitortu behar dugu pozten gaituela erabilera gora egitea, bereziki gure eskualdean. Asko dago egiteko, hizkuntza gutxiagotuak hizkuntza indartsuak baititu bere aldamenean*



TOLOSAKO  
UDALA

*eta ekimen ugari burutu behar dira sendotze bidean. Horretan, zer esana handi du Euskaltzaindiak eta gure lankidetzak eskaini nahi diogu apala bada ere. Euskaltzaindiari zorionak ematea dagokigu oraingoan eta gure herriko etxearen ateak irekitzea bere eskura eta zerbitzura jartzeko.”*

-----

Onintza Lasa Arteaga, EHBilduko zinegotziak adierazpena irakurri du. Honela dio:

### **EUSKARA BATZORDEAREN 2018KO URRIAREN 25EKO IRIZPENA**

**Tolosako udalaren adierazpen instituzionala Euskaltzaindiaren sorreraren 100. Urteurrenean**

***‘Baina guk, hizkuntza larreakoa, nahi haugu ere noranahikoa’***

Aurten ehun urte beteko dira Euskaltzaindia sortu zenetik. Mende oso bat Akademiak euskararen alde, bai bera ikertzen, bai bera zaintzen. Orain ehun urte, orduko euskal herritarren ordezkari instituzionalek ikusi zuten beharrezkoa zela erakunde bat, euskararen bidea prestatu eta bidean aurrera zuzen jarraitzen gidatuko zuena. Erakunde hori pertsona adituek osatu behar zuten. Akademiak euskararen desberdintasunak aztertuko zituen, hutsuneak bete, hitzen forma eta esanahia finkatuko zituen, eta idazteko modu bakar bat ezarri; euskalkietatik bat ere baztertu gabe, haiek elkarren osagarri eta elkarren aberasgarri erabiliko zituen, eta, atzenean, erakunde horrek hizkuntza garbia, akasgabea eta jakintza-arlo guztietarako egoki eta erabilgarria izango zena ezarriko zuen. Horrela irudikatu zuten Euskaltzaindia orduko Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako ordezkari instituzionalek euskararen esparru osorako akademia bat eragin zutenean. Era berean, aurten 50 urte bete dira Euskaltzaindiak Arantzazuko Batzarra antolatu zenetik. Batzar hura hartu ohi da euskara batuaren abiapuntu-datatzat. Euskara batua sortzeko asmoak, ahaleginak eta saiakerak lehenago ere hasiak ziren —euskara batuaren sorreran bereziki esanguratsua izan zen 1964. urtean egindako Baionako Biltzarra—, baina Arantzazuko Batzarra izan zen euskara batua sortzeko prozesuari abiapuntu sendo eta formal garrantzitsua eman ziona.

1968az geroztik euskara batuak ibilbide bizkorra eta sendoa osatu du, eta gizartearen esku utzi du euskara normaltasunez erabili ahal izateko tresna emankorra eta eraginkorra, erabilera arloa edo eremua edozein dela ere.

Euskarak egun duen egoera ezin da ententitu euskararen Akademiaren lana gabe. Izan ere, orain dela berrogeita hamar urte, Arantzazun egindako batzarrean, gaur egungo euskara batuaren lehen oinarriak finkatzen hasi zen Euskaltzaindia. Lizardi poetak kantatutakoa —*Baina nik, hizkuntza larreakoa, nahi haunat ere*



TOLOSAKO  
UDALA

*noranahikoa*'— egia bihurtzeari bide eman zion batzar hark.

Izan ere, euskararen garapenean ezinbesteko izan diren baliabideetan —literatura, hedabideak, ikastetxeak, unibertsitatea, administrazioa, euskalduntze-alfabetatzea, kultur ekoizpena...— euskara batua nahitaezko tresna izan da administrazio, gizarte-eragile eta herritar ororentzat, guztia Euskaltzaindiaren eraginpean.

Bestetik, seinalatzekoa da atzen 100 urteotan euskararekin eta euskal kulturarekin Tolosak agertu izan duen konpromisoa, azpimarratzekoa delarik Euskal Berpizkundera Tolosak eta tolosarrek jokatu zuten paper inportantea.

Euskaltzaindiaren lanak merezi duen aitortpena zabaltzeko, gaur eta hemen, Tolosako udaleko Batzar Aretoan Akademiaren osoko bilkurak Euskaltzaindiaren lana aintzat hartu nahi du.

## ERABAKIA

Tolosako udalak, Tolosako herritarren ordezkari moduan, Euskaltzaindiaren ibilbidea eta jardun akademiko eta historiko osoa aitortzen eta eskertzen du eta bereziki euskara batuaren garapenean egin duen eta egiten diharduen lan eskergera.

Tolosako udalak bat egiten du Euskaltzaindiaren mendeurren ekitaldiekin eta tolosar guztiei gonbita egin nahi die bat egin dezaten Euskaltzaindiaren ehungarren urte hau dela-eta izango diren ekitaldiekin.

Tolosako udalak Euskaltzaindia gonbidatzen du mendeurrenaren ospakizunen harian Tolosan ekitaldi bat antola dezan. Udalak ekitaldi hori egiteko beharrezkoa izan daitezkeen baliabideak jarriko ditu.

## DIKTAMENA

Euskara Batzordea 2018ko urriaren 25ean bildu ba eta proposamen hau Osoko Bilkuran onartzea erabaki du batzordekideen boto hauekin:

- Jokin Azkue ALDEKO BOTOA
- Onintza Lasa ALDEKO BOTOA
- Maite Ruiz de Egilaz ALDEKO BOTOA

Esan beharra dago, Batzordean aurkeztu baino lehenago, alderdi politiko guztiek adostutako adierazpen instituzionala dela.





TOLOSAKO  
UDALA

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Tolosako udalaren adierazpen Instituzionala Euskaltzaindiaren sorreraren 100. urteurrenean.

**Gai zerrendatik kanpo, “Monarkiarik ez dugu nahi” izeneko mozioa. aurkeztu da.**

Gaiaren premiatasuna bozketara jarri aurretik ondorengo parte-hartzea izanda.

Partehartzeak:

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Aurreko parte-hartzean oportunitate politikoa aipatu dut eta gai honen premiatasunaren arrazoia oportunitate politikoa da. Azkenengo bi edo hiru aurreko asteetan gertatu diren gertaeraren harian. Lehenbizi Kataluniako parlamentuan onartu zuela Felipe VI erregearen parte-hartzeak eta gainerako konfliktua eta gero nolabait monarkia kondenatu zutelako. Gauzak bere horretan gelditu izan balira ez zuen ibilbide gehiago izango baldin eta Espainiako Gobernuko presidente jaunak erabaki izan ez balu Konstituzionalaren aurrean salatuko zuela Kataluniako parlamentuko erabaki hori. Bai iruditzen zaigula horrekin neurriak pasa zituela. Izan ere, adierazpen askatasun kontrako salaketa bat da, are gehiago, Pedro Sanchezek aurrera jarraitu behar duenean Estatuko kontseiluaren kontrako iritziarekin. Beraz, premiatasuna da oportunitate politikoa salatzeko Estatu honetan Pedro Sanchezen erabaki horrekin nolabait adierazpen askatasunaren mugak jartzen zaizkiola eta baita herritarren aukeratutako parlamentu soberano bati. Hori soberano dago demokrazian. Eta hori ez badugu ikusten gero ez harritu hemen ere horrelakoak izatea. Arrazoia oportunitate politikoa eta orain da momentua, ez hemendik hilabetera. Aldarria egiteko momentua da eta honi buruz erabaki bat hartzeko momentua.”*

Parte-hartzearen ondoren, **gaiaren premiatasuna bozketara jarri da:**





TOLOSAKO  
UDALA

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin eta Pedro Manuel Etxabe Zabala.

**Aurkako botoa:** Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu du** gaiaren premiatasuna.

• **Monarkiarik ez dugu nahi izeneko mozioa.**

Partehartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Gogoratu nahi dut ebazpen hau onartu zela Parlamentuan gobernuko letratuen iritziaren aurka ere, ez da lehengo aldia Kataluniako parlamentuan hori egiten dutela. Kataluniako arazoa ez da monarkia bai edo monarkia ez. Kataluniako arazoa gobernua eta estatuaren elkarteko elkarrizketa bideraezinak egin zutena izan dira. Espainian denbora berri bat ireki da, denbora berri bat ireki da Gobernu berriarekin eta guztiok itxaropena dugu elkarrizketa eta zentzua nagusituko direla arazoari irtenbide negoziatu bat emateko. Horregatik, mozioaren aurka bozkatuko dut.”*
- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez: *“Gure ikuspegitik hau elkartasun mozioa da, ez hainbeste monarkia gaitzesteko mozioa, gu guztiok errepublikanoak, errepublika zaleak garela..hori bada ere. Hemen da elkartasuna adieraztea, iritzi askatasuna mugatu nahi dioten herritarrek aukeratutako erakunde baten kasuan. Lehenago esan dut iruditzen zaigu marra guztiak gainditzen ari dira. Iruditzen zaigu Pedro Sanchezek hartu duen erabakia hartu ez balu ez ginateke hemen arituko honetaz hitz egiten. Azkenean hemen adierazpen askatasunez ari gara. Europako parlamentua soberanoa da esateko esan zuena, udaletxe hau soberanoa den bezala, Inongo gobernuak ezindu soberano hori mugatu eta ukatu. Orain demokrazia kontu batez ari gara eta hasten garenean gustatzen ez zaizkigun iritzi eta erabaki politikoak epaitegira eramaten, hori estatuak sarri egin duen bezala ez dakigu non bukatuko dugun. Gero harrituko gara orbanak agertzea, tupak e.a.k agertzea. Ari gara pabimentatzen bidea horrelako erabakiekin horrelakoak agertzeko. Sentitzen dut partidu sozialistarengatik baina Pedro Sanchez erratu egin da eta asko. Edo hainbeste itsutzen du nolabait borboitarren lilurak edo Juan Carlos edo Felipismo gehitu zaigu Pedro Sanchez haritik tiraka ze ez dago beste esplikaziorik . Esan dudan bezala hau elkartasun mozioa da eta iritzi askatasunaren aldeko mozioa. Eta marra gorriak jartzen aldeko mozioa da.”*



TOLOSAKO  
UDALA

... Alkatea: *Bat gatoz elkartasun mozio batez ari garela. Ez da lehenengo aldia Kataluniako herriaren erabakitzeko eskubidea babesten dela udal pleno honetan benetan pentsatzen dugulako Kataluniako gizarteak eta Kataluniako berezko ordezkari instituzioei dagokiela bere etorkizuna erabakitzea. Baita ere gaitzesten dugun, behin eta berriz, 155 artikulua suposatzen duen salbuespen kontrol guztiak. Inportantea da, lehenago Iñakik adierazi duen bezala, adierazpen askatasunaren eta pluraltasunaren adierazpen libre aldarrikatzea. Mozioan eskatzen da elkarrizketa adostasuna, katalan herritar guztien iritzia errespetatzea oinarrizko baldintzak direlako, bizikidetza bermatzeko, ez soilik bide baketsu eta demokratikoak erabiliz gainera. Beraz, guk ere babestu egingo dugu mozioa.*"

-----

Mozioak honela dio:

### **Monarkiarik ez dugu nahi**

Joan den urriaren 11an Kataluniako parlamentuak ebazpen bat onartu zuen non, besteak beste, Felipe VI. Borboikoak Kataluniako gatazka politikoan jokatu duen papera gaitzesten zen, balio errepublikanoen aldarria egiten zen eta monarkia abolitzea eskatzen zen. Urriaren 25ean Bartzelonako udalak bat egin zuen Parlamentuak onartutako ebazpenarekin mozio baten bidez.

Espainiako gobernuaren kontrako erreakzio gogorra izan du. Gobernuak adierazi du Parlamentuaren ebazpena Auzitegi Konstituzionalean salatuko duela, nahiz eta Estatu Kontseiluak horren kontrako iritzia eman duen.

Hori guztia aintzat hartuta, demokrazia eta iritzi-askatasunaren printzipioa aldarrikatuz, Tolosako udalak elkartasuna adierazi nahi dio Kataluniako Parlamentuari bere eginez hark onartutako ebazpena.

Tolosako udalak:

1. Dei egiten die Estatuko erakunde guztiei berma dezatela elkarbizitza, kohesio soziala eta Estatutako pluraltasunaren adierazpen librea. Zentzu horretan gaitzetsi egiten ditu herritarren kontrako ekintza errepresiboak eta kondenatu egiten ditu egiten den mehatxua 155. artikulua aplikatzeko, alderdi politiko katalanak legez kanpo uztekoa, politika epaitegien bidez egitea eta oinarrizko eskubideen kontra aplikatutako biolentzia.

2. Kataluniako erakundeei eta alderdiei dei egiten die elkarrizketara, adostasunera eta katalan herritar guztien aukera-pluraltasuna errespetatzera.



TOLOSAKO  
UDALA

3. Errege Felipe VI.ak Kataluniako gatazkan izan duen parte hartzea eta urriaren 1ean gorputz polizialen biolentzia justifikatzea gaitzesten eta kondenatzen ditu.

4. Salio errepublikanoekin duen konpromisoa berresten du eta monarkiaren gisako erakunde zaharkitu eta antidemokratikoa abolitzearen aldeko apustua egiten du.

5. Gaitzetsi egiten du Espainiako gobernuak adierazpen-askatasunari eginiko erasoa Kataluniako Parlamentuaren ebazpena Epaitegi Konstituzionalean salatzean.

6. Erabaki honen berri Kataluniako Parlamentuko presidenteari eta Estatuak EAEn duen ordezkariari emango zaie.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin eta Pedro Manuel Etxabe Zabala.

**Aurkako botoa:** Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu du** Monarkiarik ez dugu nahi izeneko mozioa.

## **10. Galderak eta eskaerak.**

## **10. Ruegos y preguntas.**

Partehartzeak:

...Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *“Bere parte-hartzea hasi du Tolosa Goxua azoka berezia irratian jarritako iragarkiaren mezua jarritz. Behin bakarri entzunez gero ez nuke gaia hona ekarriko, baina astean zehar egunean bi edo hiru aldiz entzun eta gero, grabatu egin nuen eta hona hemen galdera. Zergatik Tolosa Goxua Euskadi Irratian iragartzeko orduan Tolosa, Explorer San Sebastian Region, Basque Country erabiltzen den.”*

... Nerea Letamendia Belloso, Merkataritza, Feria eta Turismo zinegotzia: *“Batzordean*



*aipatu genuen bezala diru-laguntza ezberdinak jasotzen dira Gipuzkoako Foru Aldunditik, beraz, diru laguntza horiek jasotzeko egiten den komunikazio guztietan sartu beharra dago. Gipuzkoa Aldundiaren Logoa San Sebastian region da eta hor sartu behar da diru-laguntza justifikatzeko eta baita Jaurlaritzarena ere. Bai Foru aldunditik eta bai Jaurlaritzatik. Guztietan beraien logoak sartu behar dira bestela diru laguntza ez da jasotzen. Hori da arrazoia.”*

- ... Alkatea: *“Tolosako udalak ere diru-laguntzaz laguntzen duen ekintzetan Tolosako Udalak ere logoa jartzea eskatzen du. Ez da ez ohikoa.”*
- ... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *“Aurrekontuetan konturatu naiz Garatzenen bitartez datorren diru-laguntza hala ere ez nago batere ados. Orain Gipuzkoako Foru Aldundiak montatu duen istorio hau San Sebastian Region honekin ez nago batere ados. Eta ni ez naiz abertzaleen karneta banatzen dituen baina Tolosan, gehiengo abertzaleak garen udaletxe batean, oso harro gaude Tolosako feria bat iragartzeko garaian erabiltzez Explorer san Sebastian Region Basque Country. Uste dut aurreneko gauza gu saldu behar duguna da gurea, Tolosa. Gu tolosarrak gara eta gara gipuzkoarrak eta gara euskal herritarak. Guk hemendik ez bagara sinesten hasten ea zer saldu behar dugun. “*
- ... Alkatea: *“Jakin dezazun, Gipuzkoako Foru Aldunditik hartutako irizpidean dagoela San Sebastian region hori. Hori eztabaidatuta izan zen orain dela denbora asko. Ez da oraingokoa, ez da berria. Eta ezkerak abertzale karnetak ez dituzun banatzen, izan ere seguru nago batzuk gabe geldituko ginatekeela. Turismoko irizpideak markatzen direnean kanpo begira markatzen dira, ez barrura. Hori Foru Aldundiko Turismo sailak hartutako erabakia da, oso eztabaidatua, egia, baina oso eztabaidatua. Sentitzen dut zuri gehiegi ez gustatzea.”*
- ... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *Badakit bere garaian batzordean eztabaidatu genuen eta orduan garbi utzi nuen. Marketing-nen izenean arrazoitu zidaten. Guk politikoak gara eta askotan marketing-a aparte utzita jakin behar dugu zer saldu, herri bat saltzen ikasi behar dugu. Kanpotarrei ere erakutsi behar diogu. Esan behar diegu hau Gipuzkoa dela eta Donostiatik ateratzen direnean Gipuzkoa ezagutzen duela. Hori erakutsi behar dugu. Gainera oso kurioa iruditzen zait, ez nago ados zuk esan duzun bezala, Olatz, baina izan ere, tartean, hemen, Euskaltzaindiaren 100. urteurrenez ari gara, uste dut Euskaraldiaren inguruan argazkia atera behar dugu eta gero oso ondo iruditzen zaigu hau saltzea San Sebastian Region bezala.*
- ... Alkatea: *“Zorionez hemen aniztasunaren izenean ere diskurtso asko egoten dira eta nola denok ez dugun berdin pentsatzen, agian, aniztasunaren horren izenean denok ez dugu berdin ikusten eta zuri oso neurri egokia iruditzen zaizun hori agian herriarentzako onura den gure dena ere erakusteko egokia den irizpide bat izan daiteke nahiz eta zuri gehiegi ez gustatu.”*
- ... Peio Etxabe Zabala (EHBildu) : *“Arkauteko parkean dagoen auzo konposteko txabola erabat txikituta dago eta eta iruditzen zait Udalaren eskumena dela hori baldintza honetan edukitzea, ateak ireki ezinik daude eta taula guztiak hautsita daude.”*
- ... Patxi Amantegi Zubiria (Ingurumena, Auzoak, Obrak eta Zerbitzuetako zinegotzia):



*“Lehen ere egin genizkien denei txukuntze lanak. Uste dut lehengo urtean izan zela. Arkautekoa izan zen lehenengoa egin zena. gehien deterioratzen dena izango da gainera eta egia da errepasso baten beharra daukala. Joango gara eta jarriko dugu martxan.”*

... Iñaki Irazalbalbeitia (EHBildu): *“Nire galdera da urriaren 19eko prentsan irakurria izan genuen albisteaz. Gipuzkoa Foru Aldun Nagusiak, Markel Olano jaunak eta Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Azpiegitura sailburuak, Arantxa Tapiak, Tabakaleran eman zuen prentsaurreko batean proiektu ilusionagarri bat aurkeztu zuten. Proiektua interesgarria aurkeztu zuten bai Gipuzkoaren gune Industriaren ikuspegitik eta Euskal Herriaren industriaren ikuspegitik. Izan ere, planteatzen zuten Mubil izeneko elektromugikortasuna bultzatuko duen zentro bat. 19,3 milioiko euroko inbertsio 3 urteetan. Bihotza energia biltegia laborategi bat, bertan egingo dituzte saioak gure herriko enpresa inportanteak, CAF eta Irizar aipatu zituzten, besteak beste. Guzti honekin kezka bat sortze zaigu. Izan ere Irizarrek elektromugikortasuna duen planta Aduna dago. CAFek Power&Automation enpresa, honetan dabilen adarra Iruran dauka lantegia. Galdera da, zuri Olatz, Tolosako alkate eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakari bezala, ea momenturen batean edo bestean Aldunditik hurbildu zaizkizuen galdetuta Tolosaldea horrelako azpiegitarik jartzeko leku egokia bazegoen, interesgarria edo/eta komenigarria iruditzen zaizuen.”*

... Alkatea: *“Gainera Apatta bertan dago, CAF-eko beste bi enpresa dauzkagu Rail Line Comonents eta Ennera Energy and Mobility. Beraz, lurralde hau txikia da. Elektromugikortasun gaiarekin ikusten dut aukera itzela daukagula gure eskualdean. CAF eta Irizar daude. Irizar-ek Adunan dauka planta eta gu gaude N-1 Donostia eta Goierri elkartzan dituen eje horretan. Gipuzkoa Foru Aldundia dauka lau lan lerro oso ondo markatuak, tartean elektromugikortasuna da bat eta horren inguruan egin ditugu bilera diferenteak, bai Gipuzkoa Foru Aldundiarekin, baita Eusko Jaurlaritzarekin ere, gure baliabideak mahai gainean jarritz. Uste dut egoitza leku batean edo bestean jarrita ere, gure eskualderako horrek ekarriko duela eta eragingo dituela aukera asko. Uste dut lan lerro lantzea bai Tolosaldea Garatzenetik eta baita ditugun beste baliabide guztietatik oso inportante izango dela guretzako.”*

... Iñaki Irazalbalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Nire galdera zen ea galdetu duen Foru Aldundiak eta Jaurlaritzak, galdetu duten aukerarik bazegoen Mubil zentroa jartzeko. Hori da galdera.”*

... Alkatea *“Eta nire erantzuna da: egin ditugun elektromugikortasunaren gaiarekin bilerak beraiek deitu dute? Ez. Nik dut Gipuzkoa Foru Aldundira eta joan naiz Garapen Agentziako teknikariarekin gaienra.. Nik deitu dut Eusko Jaurlaritzara eta elkartu naiz Arantza Tapiarekin eta zerrendan horregatik egon da Tolosalderako aukera,ni neroni aurreratu naizelako. “*

... Iñaki Irazalbalbeitia Fernandez (EHBildu) : *“Konforme badirudi San Sebastian Region Lasarten bukatzen dela. Donostia da San Sebastian region Lasarten bukatzen da. Donostialdean alegia, eta ez dator Tolosara. Azken aldian Eusko Jaurlaritzak, Diputazioa alorrezko zer inbertsioak inportanteak egin dituzte, Tolosa Tolosaldean diru publikotik ordainduta? Ez naiz Irizarretaz ari eta Apatta beste kontu bat. Benetan zuen alderdiak gobernatzen dituen Diputazioak eta Jaurlaritzak*



TOLOSAKO  
UDALA

*benetan kontenplatu dute Tolosa aukera bezala, herri proiektuak, hori da Mubil herri proiektua, enplegua sortuko dutena, Tolosaldera ekarzeko? Hori da gure galdera eta egin beharko genukeen gogoeta eta hori da mahai gainean jartzen dugun dugun gogoeta.”*

- ... Alkatea: *“Nik berdina erantzungo dizut Iñaki, zurekin konpartituta ere elektromugikoartasunaren gaiaren garrantzia gurerako, hori erabat konpartitzen dut, uste dut aukera izango dela egoitza leku batean egon da ere, eta hori ere bertatik landu egin behar dela baita ere. “*
- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Gaia aldatuz, adierazi nahi dugu, gure alderdi kide diren Iñaki Errazkin eta Ainhoa Intxaurrendietari elkartasuna adierazi nahi diegu GHK-k hartu duen erabakiaren aurrean. Iruditzen zaigu eta, lehen aipatu dut Kataluniako gaia aipatu dudanean, prozesu politiko eta erabaki politikoaren judizializazioa bide okerrera eraman gaitzake. Hemen GHK-k galdu zuen epaiketa bat eta epaiketa hori arrazonatzen zuen erabaki politikoa parametro egoki batzuen arabera hartua zela, baina, hala ere, GHK-k helegitea jarri behar dio erabaki horri. Prentsari jaramonik egiten badiogu eta jarraitzen ari diren arrazoibide kuriosoa, maltzurak ez esateagatik helegite hori justifikatzeko, ematen du erabaki horren atzean ondare publikoaren eta herritarren ongizatea eta herritarrek baliabideak ongi erabiltzea baino inportantzia gehiago dituztela mendeku pertsonalak, arazo pertsonalak. Nik pertsonalki, nik Iñaki Irazabalbeitiak horrela uste dut, nire taldeaz aparte. Ez da ulertzen momentu honetan ikusita erabaki politikoaren judizializazioak nola daramatzen GHK horrelako erabakia hartzeak. Horregatik adierazi nahi diegu hemendik gure elkartasuna Ainhoari eta Iñakiri.”*
- ... Alkateak: *“Amaitzeko Luis Mari Inza zendu da orain dela egun gutxi barru. Zinegotzia izan zen bere garaian. Helarazi diegu agur bat bidaliz alargunari baina publikoki egindako lan guztia Udaletxean eskertu eta gure samina azaldu familiari.”*

Besterik gabe, 20:55ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut.

ALKATEA

IDAZKARIA